



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2007ko abenduaren 10a

36. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Gure zaharren eskubideei buruzko txosten berezia (Adin guztiendako gizartea. Zaharrek ere badute zeresanik), Nafarroako Arartekoaren Bulegoak egin [\(2. or.\)](#).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Gure zaharren eskubideei buruzko txosten berezia (Adin guztiendako gizartea. Zaharrek ere badute zeresanik), Nafarroako Arartekoaren Bulegoak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 26an eginiko bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Arartekoaren Bulegoak gure zaharren eskubideei buruz egindako txosten berezia (Adin guztiendako gizartea. Zaharrek ere badute zeresanik) argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Gure zaharren eskubideei buruzko txosten berezia (Adin guztiendako gizartea. Zaharrek ere badute zeresanik), Nafarroako Arartekoaren Bulegoak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|--|--|
| <p>I. KAPITULUA. Aitzinsolasa (4. or.).</p> <p>II. KAPITULUA. Txostenaren arrazoiak eta helburuak. metodologia (5. or.).</p> <p> II.1. Arrazoiak eta helburuak (5. or.).</p> <p> II.2. Metodologia (6. or.).</p> <p>III. KAPITULUA. Zaharren eskubideak nazioartean (11. or.).</p> <p> III.1. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertetsala (11. or.).</p> <p> III.2. Zahartzeari buruzko Vienako Nazioarteko I. Ekintza Plana (11. or.).</p> <p> III.3. Zaharren Giza Eskubideen Aldarrikapena. Nazio Batuen printzipioak zaharrei buruz (12. or.).</p> <p> III.4. Nazio Batuek 2001. urterako finkatutako helburu orokorrak zahartzeari buruz. (12. or.).</p> | <p> III.5. Zahartzeari buruzko Aldarrikapena (13. or.).</p> <p> III.6. Nazioarteko Zahar Federazioaren adierazpena (13. or.).</p> <p> III.7. "Giza eskubideak eta zaharrak" txostena (14. or.).</p> <p> III.8. Nazio Batuen Zaharren Nazioarteko Urtea (15. or.).</p> <p> III.9. Oinarrizko Eskubideen Europar Batasuneko Gutuna (15. or.).</p> <p> III.10. Zahartzeari buruzko Madrilgo Nazioarteko II. Ekintza Plana (16. or.).</p> <p> III.11. OMEren txostena zahartze aktibo eta osasuntsua sustatzeari buruz: "Zahartze aktiboa: esparru politikoa" (18. or.).</p> <p> III.12. Zaharren aurkako tratu txarrei osotasunean aurrea hartzeko Torontoko Adierazpena (19. or.).</p> <p> III.13. Nazioarteko bertze gertakari interesgarri batzuk (19. or.).</p> <p>IV. KAPITULUA. Zaharren eskubideak Espainian (21. or.).</p> <p> IV.1. Espainiako Konstituzioa (21. or.).</p> <p> IV.2. Osasunari buruzko Lege Orokorra (22. or.).</p> <p> IV.3. Zaharren Espainiako Kontseiluak antolatutako Espainiako biltzarrak (22. or.).</p> <p> IV.4. Gizarte Segurantzari buruzko legeak (22. or.).</p> <p> IV.5. Toledoko Ituna (22. or.).</p> <p> IV.6. Espainiako I. Gerontologia Plana (1992-1997) (22. or.).</p> <p> IV.7. Zaharrendako Ekintza Plana (2003-2007) (23. or.).</p> |
|--|--|

- IV.8. 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, mendekotasun egoeran dauden pertsonen eta haien senideen autonomia pertsonala sustatu eta haien laguntzeari buruzkoa (24. or.).
- V. KAPITULUA. Zaharren eskubideak Nafarroan (25. or.).
- V.1. Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legea, 1983koa (26. or.).
- V.2. Osasunari buruzko Foru Legea (26. or.).
- V.3. Nafarroako Gerontologia Plana (1997-2000) (26. or.).
- V.4. Nafarroako Adinekoen Kontseilua (27. or.).
- V.5. Boluntario lanari buruzko Foru Legea (27. or.).
- V.6. Zahar etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duen Foru Legea (28. or.).
- V.7. Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeo Fundazioa (28. or.).
- V.8. Pertsona zaharrak familian hartzeari buruzko Foru Legea (28. or.).
- V.9. Alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko Foru Legea (28. or.).
- V.10. Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Lege berria, 2006koa (29. or.).
- V.11. Bertze arau interesgarri batzuk (30. or.).
- VI. KAPITULUA. Zaharren Eskubideen eta Betebeharren Gutunak (32. or.).
- VI.1. Aitzinsolasa (32. or.).
- VI.2. Zaharren eskubideen dekalogoia. Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkarte (32. or.).
- VI.3. Zaharren eskubideen dekalogoia. Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua (32. or.).
- VI.4. Zaharren Eskubideen eta Betebeharren Kataluniako Gutuna (33. or.).
- VI.5. Zaharren Eskubideen eta Betebeharren Gutunaren oinarriak. Espainiako Zahar Elkartearen Konfederazioaren proposamena (36. or.).
- VII. KAPITULUA. Hurbilketa zaharren egoerara gizartean. lekukotasunak (39. or.).
- VII.1. Duintasuna eta errespetua (39. or.).
- VII.2. Independentzia edo autonomia (49. or.).
- VII.3. Nork bere burua gauzatzea (56. or.).
- VII.4. Laguntza eta zaintza (64. or.).
- VII.5. Parte hartzea (77. or.).
- VIII. KAPITULUA. Ondorio orokorrak (81. or.).
- VIII.1. Zaharrak, multzo heterogeneoa (81. or.).
- VIII.2. Irudi estereotipatua eta ikusezintasuna gizartean (81. or.).
- VIII.3. Parte hartze eta garrantzi eskasa gizartean (81. or.).
- VIII.4. Adinagatiko diskriminazioa (81. or.).
- VIII.5. Laguntza eta zaintza (82. or.).
- VIII.6. Nork bere burua aski izatea eta nork bere kasa moldatzea (82. or.).
- VIII.7. Abusuak eta tratatu txarrak (82. or.).
- VIII.8. Garapen pertsonala. (83. or.).
- VIII.9. Zaharren betebeharrak (83. or.).
- IX. KAPITULUA. "Zaharren Eskubideen eta Betebeharren Nafarroako Gutuna"ren proposamena (84. or.).
- X. KAPITULUA. Gomendioak eta iradokizunak (86. or.).

I. KAPITULUA. AITZINSOLASA

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 16. artikulua ikerketa lana hasteko eta egiteko baime-na ematen dio erakunde honi, Nafarroako adminis-trazio publikoaren egintza edo jokabideren batek pertsona edo talde bati kalte egiten badio, hura argitzeko.

4/2000 Foru Legeko 36.2. artikulua zera eran-sten du: egitateen garrantziak horretarako bide ematen duenean, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak ezohiko txosten bat edo txosten mono-grafiko bat (txosten berezia) aurkeztu ahal diola Nafarroako Parlamentuari.

Agindua betetzeko, María Jesús Aranda Lasheras Nafarroako arartekoak eta haren aholkulariek txosten berezi bat egiteko proiektu bat hasi zuten, Nafarroako zaharren eskubideei buruz. Hau da, haiek izan zuten hain ideia ona, eta nahitaezkoa –eta pozgarria– da eskerrak ematea.

Egungo arartekoak kargua hartu eta aholkulari talde berriak txostena bukatu eta Nafarroako Par-lamentuari aurkezteko urratsak eman ditu.

Txostena Parlamentuari aurkeztu aurretik, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamen-tuari (egun Gizarte Gai, Familia, Kirol eta Gazteria Departamentua denari) eskatu genion egoki zerit-zan oharrak eta iradokizunak egiteko, halabeha-rrezkoa eta gizalegezkoa delako eta, zalantzarik gabe, testua hobeto idatzi eta testuko gomendioak gehiago onartzeko balio duelako.

Hain zuzen ere, testuaren azken idatzaldia egi-teko, Nafarroako Gizarte Gaietako Departamentu-ak idatziz eta ahoz egin dituen ekarpenak izan ditugu kontuan, eta, hartara, gehiago balioetsi ditugu txostenaren hasierako proiektuko zenbait iritzi eta ondorio.

Gainera, garrantzitsuenak iruditu zaizkigun ida-tziak, ondorioak eta gomendioak berrikusi, erantsi eta luzatu egin ditugu, denbora igaro delako eta ideia berriak izan ditugulako eta hainbat ohar hela-razi dizkigutelako.

Txostenaren helburua da zehaztea zer neurri hartu beharko liritekeen zaharren eskubideei kalte egiten dieten gabeziak daudenean eta neurriok beharra bezala arrazoitzea. Hau da, kontua ez da gizarte zerbitzuen Nafarroako sistema publikoa kri-tikatzea, zeharka eta grosso modo ebaluatzea bai-zik, aipatu helburuei jarraiki; dena dela, ebaluazio-ak ezinbestean ekarriko du sakoneko zenbait gabezia adieraztea.

Bada, txostenaren helburua da, zalutasunez (Arartekoa arautzen duen Foru Legearekin bat, “ikuskatze lan informalarren” gisara), Foru Komuni-tateko gizarte ongizateko sistemak zaharrei egun ematen dien zerbitzuari buruzko hainbat gomendio eta hobekuntza helaraztea kalte egiten duen administrazioari (laguntza ematen duenari) eta Nafarroako Parlamentuari, erakunde eskudunok aztertu egin ditzaten.

Azken batean, txostenaren helburua ez da, ezta gutxiago ere, administrazioaren lana kontrola-tu edo kritikatzeko, ahal den neurrian, zaharrenda-ko gizarte zerbitzuen sistema publikoa hobetzea baizik, Espainiako Konstituzioak herritarrei aitortzen dizkien eskubideen ikuspegiari jarraiki.

Izan ere, txosten bereziak dokumentu zabaltzat ditugu. Horregatik, administrazioarekin batera egi-ten ditugu, eta egiten dituen proposamenak eta gomendioak errealak, sinesgarriak eta baliozkoak izan dakizkien espero dugu, bai administrazioari berari eta bai funtzionarioei. Hots, arartekoa eta administrazioa elkarlanean aritzeko bitartekoa da txostena, kontrol edo zentsura bitarteko ezatsegi-na baino gehiago.

Lerro hauen bidez, beraz, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu txostena sustatu zutenei eta buru-belarri jardun direnei, eta baita Nafarroako Gobernuo Gizarte Gaietako Departamentuari ere, testua hobetzeko laguntza eta interes esker-gatik. Espero dugu txosteneko gomendioak eta iradokizunak baliozkoak izanen direla eta Nafarro-ako erakundeei eta interesa dutenei gure zaharren eskubideak hobeto ezagutu, babestu eta susta-tzen lagunduko dietela. Dena dela, ez gara “zaha-rrez” ari, modu abstraktuan, “gure zaharrez” baizik, modu konkretuan; alegia, sortu, zaindu, hezi eta mantendu egin gaituztenez, gu izatea eta egun garena izatea ahalbidetu duten izen-abizendun pertsonen, laster gu izanen garenaren islaz.

Hori dela-eta, bertze erakunde batzuen (hala nola, Espainiako Zahar Elkartearen Konfederazioa-ren eta Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkartearen) ildoan, egoki iritzi diogu Nafarroako Parlamentuari Zaharren Eskubideen Gutuna onar-dezan proposatzen ausartzeari, umiltasun osoz, eta zenbait gomendio egin ditzan, agintari publiko eskudunei politika aktibo eta oso berriak diseina-tzeko etengabeko lanean laguntzeko, zaharrak babesteko eta zaharren eskubide subjektibo publi-koak modu aktiboan sustatzeko.

II. KAPITULUA. TXOSTENAREN ARRAZOIAK ETA HELBURUAK. METODOLOGIA

II.1. ARRAZOIAK ETA HELBURUAK

Txostenaren helburua Espainian eta nazioartean zaharren eskubideak babestu eta hobetzeko izan diren ekimenen berri ematea da.

Funtsean, informazioa zabaltzea eta kontzientzia harraraztea du helburu; Nafarroako administrazio publikoa ez ezik, herritarrak ere deitzea, zaharrek duten erantzukizuna nork bere gain hartzera.

Izan ere, inoiz ez bezalako aldaketa demografikoa gertatzen ari da munduan.

Nafarroako biztanleria, mundukoa eta Espainiako bezala, oso azkar zahartzen ari da; kalkuluek diotenez, 2050. urterako, 60 urteko edo 60 urtetik gorako biztanleen kopurua bikoiztu egingen da.

Alde horretatik, gogoan izan beharra dago 65 urtetik gorako biztanleen kopurua bikoiztu egin dela azken 30 urteetan: 1970ean 3,3 milioi (biztanleriaren % 9,7) ziren; 2000. urtean, 6,6, milioi (% 16,6); eta, Espainiako Estatistika Institutuaren arabera, 2050ean % 30,85 izanen dira. Gaur egun, 65 urtetik gorako biztanle gehiago daude, 16 urtetik beherakoak baino, eta, ondorioz, Espainia munduko herrialderik zahartuenetakoa da.

Espainiarren bizi itxaropena 79,7 urtekoa da, eta, 100 urtetik gorako biztanleen kopuruaren zerrendan, Espainia bigarrena da –Japonia da lehena–. Nafarroan, berriz, bizi itxaropena handiagoa da: 80,7 urtekoa.

Zaharren eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak (IMSERSOK) “Zaharrak Espainian 2006” txostena eta “Zaharren bizi baldintzei buruzko inkesta” egin ditu, eta, haien arabera, 2006an, 7,3 milioi biztanlek baino gehiagok (biztanleriaren % 16,7k, Frantziako, Italiako, Alemaniako eta Erresuma Batuko ehunekoen antzekoak) zituzten 65 urte Espainian, eta haien bosten bat bakarrik bizi zen. Nafarroan, berriz, 65 urtetik gorako 103.637 biztanle (44.090 gizonezko eta 59.547 emakumezko) bizi dira egun, hau da, biztanleriaren % 17,5, eta haietan 30.118k (10.426 gizonezko eta 19.692 emakumezko) 80 urte baino gehiago dituzte, hau da, biztanleriaren % 5,1ek.

Zaharren % 34 Iruñean bizi dira; % 15, 10.000 biztanletik gorako eta 50.000tik beherako udalerrietan; % 30, 2.000 eta 10.000 biztanle artekoetan; eta % 21, 2.000 biztanletik beherakoetan. Hau da, gure zahar gehienak landakotzat har daitekeen eremuan bizi dira.

80 urte betetzea ohiz kanpokoa zen orain urte gutxi arte. Gaur egun, ordea, Nafarroako emakumezkoen bizi itxaropena 85,1 urtekoa da; hain zuzen ere, Nafarroako emakumezkoek dute bizitza luzeena Espainian, eta Europako ia estatu guztietan. Nafarroako gizonezkoen bizi itxaropena, berriz, 80 bat urtekoa da.

Hamarkadatik hamarkadara, piramide demografikoaren goiko aldea zabaldu egiten da; hainbertze, 85 urtetik gorakoaren proportzioa hirukoiztu egin da 20 urtean.

Zaharren proportzioaren hazkundera aurrerapen teknologikoekin eta osasun eta gizarte arlokoekin zuzenean lotuta dago.

Zalantzarik gabe, urte luzez bizitzeko aukera amaitu berri den mendeko gizartearen lorpenik handienetakoa izan da. Alabaina, datozen hamarkadotan, erronka nagusia izanen da urteok ahalik eta baldintza hoberenetan bizitzea, ezgaitasunik gabe eta, ondorioz, bertzeren mendean egon gabe.

Egungo zaharren kultur, ekonomia eta osasun egoera nabarmen ona da, eta “zahartze aktiboa” izateko moduan daude; hain zuzen, Osasunaren Munduko Erakundeak proposatu du “zahartze aktiboa”.

Hala ere, zahartzaroari buruzko estereotipo negatibo askok iraun egiten dute egungo gizartearen, eta zahartzaroa gainbeherarekin, endekatzearekin, gaixotasunekin, pasibotasunarekin eta etorkizunik ezarekin lotzen dugu.

Industria iraultzaren ondorioz, aldaketa nabarmenak izan dira gizarte egituretan. Familia zabalaren eredu ahuldu egin dela dirudi, eta, industriaren eta zerbitzuen gizarte honetan, familia nuklearren eredu (gurasoek eta seme-alabek osatutakoa) are gehiago nagusitu da.

Emakumezkoek eskubide eztabaida ezin bat erabili eta lanean hasi izanaren eta duela gutxi arte familia eta lana bateratzeko politika eraginkorrik ezaren ondorioz, administrazio publikoek askoz erantzukizun gehiago hartu behar izan dituzte bere gain zaharrak zaindu eta laguntzeko.

Hala ere, ezin erran daiteke aldaketa honen guztiaren arrazoi bakarra emakumezkoak lanean hasi izana dela, bidegabekia eta okerra bailitzateke. Aitzitik, familiak arrazoi asko direla medio ez dira lehen bezain ugariak: azken bi mendeetan, etengabe, biztanleria landa eremutik hirigunera aldatu delako eta, ondorioz, ekonomia eta lan arloan, bertzeak bertze, muga handiak izan dituelako; hiriguneko etxebizitzak txikiagoak direlako, hirigintza arloko askotariko eskakizunak direla eta; merkatu

ekonomiak eta Mendebaldeko bizi estiloak bizimodu anglosaxoiaren (mediterraneoaren aurkakoa) gero eta eragin handiagoa dutelako eta, gero eta gehiago, individualismoa eta norberaren askatasuna goren ditugulako taldeen (hala nola, familiarren) aldean; aisialdia nork bere kasa erabiltzeko aldi bihurtu delako, inork bere egin edo baldintzatu ezin duena... Horiek guztiak ere dira gizarte aldaketa honen arrazoi esanguratsuak.

Horren guztiaren ondorioz, familiarren eredu gurasoen eta seme-alaben arteko erlazioa bertzerik ez da egun: gurasoek seme-alabak zaintzen dituzte, baina ez alderantziz, eta gainerako senideak (aitona-amonak, anai-arrebak, etab.) nukleotik kanpo daude; gainera, bigarren mailako senideak zenbat eta zaharragoak izan, loturarik eza orduan eta handiagoa da.

Oraindik ere, Espainian, familia zabalaren eredu oso sustraituta dago, baina horrek ez du erran nahi familia nuklearraren eredura aldatzen ari ez denik. Behinik behin, Nafarroako Estatistika Institutuaren arabera, 2001. urtean bikoteen % 50 bizi ziren seme-alabekin, eta 2006. urtean, berriz, % 41. Ildo horretan, familien % 70ek bere kabuz zaintzen dituzte senide zaharrak; Europako bertze herrialde batzuetan familien % 40k zaintzen dituzte, baina aldea gero eta txikiagoa da.

Adituen arabera, kontua ez da zaharrak zaindu nahi ez ditugula; aitzitik, egungo egoera, egungo bizimodua dela-eta, gero eta oztupo gehiago ditugu. Gure zaharren belaunaldikoek uste omen dute familiak zaindu behar dituela, horixe egin zutelako beraiek seme-alabekin, eta zahar etxean sartzea abandonutzat dute.

Bestalde, argi eta garbi dago zaharrek garrantzia galdu dutela gizartean azken hamarkadetan, bertzeak bertze, gaur apenas balioesten dugulako zaharren esperientzia, ezagutza eta informazioa. Zaharren ezagutzaren ordez, bertze informazio iturri batzuk darabiltzagu, fidagarriagoak direlakoan: telebista, irratia, prentsa, Internet... Hots, komunikabide masibo sozialek ematen dute lehen zaharren bizi esperientziatik sortzen zen informazioa eta esperientzia.

Egungo gizarte modernoa, dinamikoa da, teknologia eta ezagutza maila handikoa, eta hobeto egokitzen dira gazteak, zaharrak baino. Gazteek unibertitate ikasketak egin dituzte, hiritarrak dira, hizkuntzak dakizkete eta teknologia aurreratuak erabiltzen dituzte, baina zaharrek ikasketa maila txikiagoa dute, asko landa eremukoak dira, askok eta askok nekazaritzan edo industrian jardun dute lanean eta, zailak direla-eta, teknologia informatiboak baztertzeko dituzte. 50 eta 55 urtetik gorakoen

aurretiko erretiroa bultzatzen dute ekoizpenaren eta zerbitzuen alorreko sektore askok (hurrenez hurren, bankuek eta industriak), eta, hartara, zaharrak "lehiakorrak" ez direlako ustea sustatzen, gizarte honetan balio ez dutelako.

Hainbat azterketak jakinarazi dutenez, zaharrak, gainera, diskriminatu ere egiten ditu gizarteak, eta gizarte modernoaren zati handi batek normal edo ezinbestekotzat jotzen du hori. Adinagatiko diskriminazioak gero eta interes handiagoa pizten du gizarte industrializatueta, baina Espainian, oro har, eta Nafarroan, zehazki, eztabaida berria da oraindik.

III. kapitulu nazioarteko egoerari buruzkoa da, eta, erran bezala, han ikusten denez, egoerari buruzko kontzientzia gero eta handiagoa da. Nazio Batuen Erakundeak berak zaharrak diskriminatze hainbat modu dagoela ohartarazi du, zehaztu du zer printzipio gobernatu behar duten zaharren eskubideak sustatzeko politika publiko oro eta ekintza planak abian jarri ditu zahartze aurre egiteko; ekintza planek zahartze aurre egiteko neurri zehatzak xedatzen dituzte.

Bestalde, Osasunaren Munduko Erakundeak, Torontoko Adierazpenaren bidez, gogora ekarri du zaharren eskubideak ez direla beti errespetatzen eta zaharrak ere tratatzen ditugula gaizki.

Nafarroako arartekoak, herritarren eskubide subjektibo publikoak Nafarroako administrazio publikoen aurka babestu eta haiek hobetzeko, egoki iritzi zion, 2006an, alor honetako Nafarroako egoera analizatzeari, eta, horretarako, txostena egiteari ekin zion. Hain zuzen ere, honako hauek zituen helburu:

– Nazioarteko, Espainiako eta Foru Komunitateko araudia aztertzea, zaharrek, bai familiarrean eta bai gizarte, politika eta kultur arloan, herritar gisa dituzten eskubideei buruzkoa.

– Jakitea Nafarroako zaharrek zer arazo dituzten beren eskubideen berezkitzat eta zer iritzi duten adinagatiko diskriminazio motei buruz.

– Nafarroan zaharren eskubideak sustatzen laguntzea.

II.2. METODOLOGIA

Txostena bi fasetan egin dugu:

A) Bibliografiaren azterketa

Txostena egiteko lehenengo fasean, zaharren eskubideen egoerari buruzko bibliografia sakon aztertu dugu, eta, horretarako, Espainiako eta nazioarteko erakundeek egin dituzten planei, programei eta adierazpenei buruzko informazioa bildu

dugu. Dena dela, Espainian eskubideen gutunak edo antzekoak osatzeko egindakoei aparteko arreta eman diegu.

Ondoren, Nafarroako Foru Komunitateak zaharrendako politiken arloan landu dituen plan eta arau nagusiak bildu ditugu.

Bildutako informazioaz, Zaharren Eskubideen eta Betebeharren Nafarroako Gutunaren lehenengo zirriborroa egin dugu.

B) Metodologia kualitatiboa: eztabaida taldeak

Prozesuaren bigarren fasean, ikerketa kualitatiboa antolatu eta jarri dugu abian, zahar elkarteetako eta erakundeetako ordezkariak osatutako eztabaida taldeen bidez.

Honako hauek izan dira eztabaida taldeen helburuak:

– Zaharren Eskubideen eta Betebeharren Nafarroako Gutunaren zirriborroa ezagutaraztea eta zaharren eskubideak hobeto sustatu eta babesteko proposamenak biltzea.

– Jakitea zaharrek zer iritzi duten zaharren eskubideen egoerari buruz Nafarroan.

– Jakitea zaharrek zer iritzi duten adinagatiko diskriminazio motei buruz.

Eztabaida taldeak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia katedradun Luis Sarriés Sanz jaunak eta Esther Casares irakasle elkartuak zuzendu dituzte; hori dela-eta, eskerrak eman nahi dizkiegu, lan hau egiteko izan duten arduragatik.

Honako hauek izan dira metodologia hau eta parte hartzaile hauek aukeratzeko arrazoiak:

– Zaharren ordezkariak aukeratu ditugu, haiek ikusten dutelako hobekien zer arazo dituzten zaharrek.

– Metodologia irekia aukeratu dugu, arrazoi beragatik, galdeketa erdi egituratu bidezkoa. Izan ere, galdeketa itxiaren bidez ez, baina metodo honen bidez iritzi eta sentimendu sor gehiago bil daitezke, eta horixe egin dugu.

– Zaharren eguneroko esperientziaren berri izan nahi genuen, bai banaka eta bai taldeka, eta eurek eta, oro har, zaharrek jasan behar dituzten egoerak eta arazoak zuzenean azaltzeko.

– Hipotesi bat hartu dugu abiapuntu: zaharrek kontzientzia gutxi dute oraindik, oro har, diskriminazio motei buruz. Hipotesia neurri batean baka-rik frogatu dugu: zaharrek erabateko kontzientzia dute esparru jakin batzuetan diskriminatu egin edo egiten dituztela, hala nola, ekonomia eta lan arloan, baina kontzientzia gutxiago dute bertze esparru batzuetako diskriminazioari buruz, hala nola, osasun arlokoari buruz.

Bildutako informazioak Nafarroako aniztasuna islatzeko, bederatzi talde osatu ditugu guztira, Nafarroa osokoak.

Ondoko taulak eztabaida taldeen kopuruaren eta parte hartzaileen kopuruaren, sexuaren eta jatorriaren berri ematen du.

EZTABAIDA TALDEETAKO KIDEAK

Eztabaida taldea	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Kideak, guztira
1. Iruña	6	3	9
2. Iruña	3	6	9
3. Tuter	10	3	13
4. Iruñerria	1	4	5
5. Lizarra	4	1	5
6. Gares	5	0	5
7. Tafalla	9	1	10
8. Irurutzun-Sakana	5	5	10
9. Irurtzun-Lesaka-Bera	5	7	12
GUZTIRA	48	30	78

Honako hauek ziren parte hartzaileen ezaugarriak:

– Sexuen presentzia nahiko orekatua izan da: 48 gizonezkoak eta 30 emakumezkoak parte hartu dute.

– Haien batez bertzeko adina 67 bat urtekoa da.

– Guztiak bere kasa moldatzen dira eta autonomoak dira.

– Batez bertzeko ikasketa maila lehen hezkuntzako zen, baina parte hartu du erdi edo goi mailako titulua duenik ere.

– Parte hartzaile guztiak zahar elkarte edo erakunderen batekoak dira eta, oro har, nolabaiteko erantzukizuneko kargua dute.

Eztabaida saioak 2006ko maiatzaren 10etik ekainaren 1era bitartean egin ditugu.

Bakoitzean, arartekoak, bost minutuz, lantegiarren helburuak labur-labur adierazi ditu eta eskerrak eman dizkie parte hartzaileei bertaratzeagatik eta lankidetzagatik, eta, ondoren, atera egin da, parte hartzaileen iritzia inola ere ez baldintzatzeko eta adierazpen askatasuna ahalik eta handiena izateko.

Bilera guztiak grabatu eta transkribatu egin ditugu, analizatu eta ordenatuta egituratzeko.

Ondoko taulako gaiak proposatu ditugu eztabaidagai, bileraren halako eskema erdi egituratua izateko.

EZTABAIDA TALDEENDAKO ESKEMA ERDI EGITURATUA

Gaia	Eduki espezifikoak
1. Erabakiak hartzea	Zer zailtasun izan ohi dituzte zaharrek erretiroaldia non emanen duten erabakitzeke, zahar etxera joan nahi duten, beren ondasunekin zer eginen duten? Egiten al diete presio zaharrei beren ondasunak direla-eta, funtsen jabegoa aldatzeko, etab.?
2. Familiak zaharren duintasuna aitortzea. Tratu txar psikikoak	Familiak zaharrei buruz iritzi ona duela uste al dute? Egoeraren batean apaldu egiten al dituzte, ez dituzte kontuan hartzen, bazter uzten dituzte? Ohikoak al dira gisa honetako esaldiak: "Burua galdu duzu", "Hobe duzu enbarazu ez egitea", etab.?
3. Tratu txar fisikoak	Litekeena al da zaharrei tratu txar fisikoak ematea? Nola?
4. Bikotea osatzeko arazoak	Zahar alargun eta ezkongabe batzuek bikotekidea aurkitu ohi dute zahar etxean edo bertzeretik harremanetan. Zer arazo sortzen dira zahar batek bertze bikotekide batekin ezkondu edo bizitzeko asmoa duela erraten duenean?
5. Seme-alabekin eta familiarekin lotutako arazoak	Zaharrek oso ongi dakite seme-alabekin eta suhi-errainekin (oro har, familiarekin) izaten dituzten harremanaren berri. Kontuan hartzen al dituzte, bazter uzten dituzte, etxean enbarazu egiten dute?
6. Osasun laguntza	Zaharrek zer ematen dute gehien faltan osasun laguntzaren alorrean, alegia, medikuarengan, erizainengan, osasun etxean, espezialisten errezetetan...?
7. Gizarteak zaharren duintasuna aitortzea	Uste dute gizarteak kontuan hartzen dituela zaharrak? Jaramon egiten al diete hitz egiten dutenean, ezer proposatzen dutenean, iritzia ematen dutenean? Zer iritzi du jendeak erretirodunetz?
8. Lana	Zer iritzi dute aurretiko erretiroaz eta nahitaezko erretiroaz? Ona al da inork erretiroa nahitaez hartzea?
9. Aholkularien beharra	Maiz, zaharrek aholkularitza behar dute. Norengana jotzen dute arazoak dituztenean erretiroa dela-eta, testamentua, beren ondasunen erabilera, ezkongabe edo alargun egon eta bikotekidearekin bizitzea, zahar etxea aukeratzea, bertze nonbait bizitzea... dela-eta?
10. Bakardadea	Batzuetan, zaharrak bakarrik sentitzen direla erraten dugu. Ados al daude? Noiz sentitzen dira bakarrik? Zeren arabera da bakardadea? Zer egin liteke zaharrek harreman onak izateko, adiskideak izateko, ez lur jotzeko?
11. Prestakuntza	Interesa al dute trebatzen jarraitzeko eta kultur ekitaldietara joateko? Egiten al dute halakorik? Interesa al dute Interneten?
12. Politikagintzan parte hartzea	Uste dute zaharrei gustatuko litzaiekeela herriko hautagai zerrenda bateko kide izatea? Gonbidatzen al dituzte? Zergatik?
13. Gizartean parte hartzea	Klub bateko kide izateaz gain, zaharrek elkarte askotan lan egin dezakete, hala nola, boluntario elkarteetan. Zer iritzi dute honi buruz?
14. Aisialdia eta kultura	Gaur egun, aisialdia erabiltzeko aukera asko daude gizartean. Zer ematen dute faltan aisialdia hobeto emateko?
15. Pentsioak	Zer iritzi dute egungo pensio araubideari buruz? Uste dute ezaugarriren bat ez dela hartzen kontuan pensio araubidea finkatzeko?
16. Etxeko laguntza	Ezagutzen al dute etxeko laguntza hartzen duen zaharrak? Zer iritzi dute funtzionamenduari buruz? Zer gauza ematen dituzte faltan?
17. Zahar etxeetako arazoak	Zer iritzi dute zahar etxeei buruz? Zer aldatu edo hobetuko lukete?
18. Zerbitzu komunak	Egia al da zaharrek beren etxean gelditu nahi dutela, betiko giroan? Zer zerbitzu behar dituzte horretarako?

Moderatzailea laguntzeko, galdeketa luzeago bat ere diseinatu dugu, eztabaidatu beharreko gaiak buruz azalpen gehigarri edo adibiderik behar izanez gero erabiltzeko; arartekoaren web orrian (www.defensornavarra.com orrian) eta txostenaren 1. eranskinean dago. Egia erran, oso-oso gutxi erabili dugu, denbora gutxi gurelako eta parte hartzaileek erraz ulertu dituztelako eztabaidatu

beharreko gaiak; horri esker, buru-belarri murgildu dira erantzuten.

Txostenaren lehenengo zirriborroa egin ondoren, 2007an, Nafarroako ararteko berriak Gizarte Ongizateko Departamentuaren iritzia eskatu du eta bi bilera egin ditu idazkari nagusi tekniko ohi eta egungo Gizarte Gaietako zuzendari nagusi

Marta Álvarez Alonso andrearekin. Halaber, Zaharren Nafarroako Behatokiari ere eskatu dio iritzia.

Azkenik, eztabaida taldeetan beti daudenez gero gainerakoek baino eragin handiagoa eta adierazmen hobea duten pertsonak, txostena haien

iritzi subjektiboez ez desorekatzeko, txosten eta inkesta objektiboetatik eta erakunde ofizialetatik eskuratutako datu estatistikoak erantsi dizkiegu haien adierazpenei. Horren guztiaren helburua egiazko egoeraren ahalik eta ikuspegi zuzenena ematea da.

III. KAPITULUA. ZAHARREN ESKUBIDEAK NAZIOARTEAN

Berez, zaharren oinarrizko eskubideak herritar izatetik ondorioztatzen dira, eta, beraz, ez lirateke bereiz aitortu behar. Alabaina, argi eta garbi dago, fisikoki ahulak direlako edo dena delakoagatik, zaharren eskubideak urratzeko arrisku handiagoa dagoela. Hori dela-eta, eskubideok are gehiago sendotu behar ditugu eta, batik bat, haiek babestu eta bermatzeko tresna juridikoak zehazkiago landu behar ditugu.

Zaharrek bertze behar espezifiko batzuk dituzte. Hainbatetan, beharrok mendekotasun egoeraren ondorio dira, eta, hori dela-eta, "zaharren osasuna eta ongizatea sustatzeko" neurriak hartu behar dira; bertze hainbatetan, berriz, askotariko neurriak hartu behar dira, "zaharrak benetan gizarteratu eta gizartean benetan parte hartzeko" eta "giro egoki eta onuragarria sortzeko".

Horren guztiaren ondorioz, azken hamarkadotan prozesu geldo bat jazo da halabeharrez, hainbat tresna lantzeko, eta, poliki-poliki, hainbat printzipio eta helburu osatu dituzte, eta baita arauak ere. Hartara, zahartze aktiboa sustatzeko politika berria sortu da, "adin guztiendako gizartearen aldekoa" argi eta garbi, zaharren eskubideak egiaz sustatu eta babesteko neurriak xedatzeko.

Ondoko taulan nazioartean zaharren eskubideen alorrean izan diren mugarrri nagusiak ageri dira. Nahikoa da begiratu bat ematea ondorioztatzeko nazioartean nahiko berriki hasi direla zaharren eskubideak aipatzen.

NAZIOARTEKO MUGARRI NAGUSIAK ZAHARREN ESKUBIDEEN ALORREAN

1948. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala.

1982. Zahartzeari buruzko Nazioarteko I. Ekintza Plana (Zahartzeari buruzko Munduko I. Biltzerra, Viena).

1991. Zaharren Giza Eskubideen Aldarrikapena. Nazio Batuen printzipioak zaharrei buruz.

1992. NBEko Biltzar Nagusiak 2001. urterako finkatutako helburu orokorrak zahartzeari buruz.

1992. NBEko Biltzar Nagusia: Zahartzeari buruzko Aldarrikapena.

1992. Nazioarteko Zahar Federazioaren adierazpena zaharren eskubideei eta ardurei buruz.

1996. NBEko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Batzordearen txostena: "Giza eskubideak eta zaharrak".

1999. Nazio Batuen Zaharren Nazioarteko Urtea.

2000. Oinarrizko Eskubideen Europar Batasuneko Gutuna (Niza).

2002. Zahartzeari buruzko Nazioarteko II. Ekintza Plana (Zahartzeari buruzko Munduko II. Biltzerra, Madril).

2002. OMEren txostena zahartze aktibo eta osasuntsua sustatzeari buruz.

2002. Zaharren aurkako tratu txarrei osotasunean aurrea hartzeko Torontoko Adierazpena (OME eta Zaharren kontrako Abusuei Aurrea Hartzeko Nazioarteko Sarea –INPEA–).

Jarraian, bakoitzak egin dituen ekarpen nagusiak labur-labur aztertuko ditugu, zaharren eskubideen ikuskeran, definizioan eta zehaztapenean zer-nolako eragina izan duten ikusteko.

III.1. GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSALA

1948an, Nazio Batuen Erakundeko Biltzar Nagusiak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala kaleratu zuen, eta, unibertsala dela-eta, testua zuzenean aplikatu behar zaie zaharrei. Are gehiago, hauxe da funtsezko nukleoa, eta hemendik ondorioztatu dira ondoren jaino diren gainerako arau eta adierazpen espezifiko guztiak.

III.2. ZAHARTZEARI BURUZKO VIENAKO NAZIOARTEKO I. EKINTZA PLANA

1982an, Zahartzeari buruzko Munduko I. Biltzerrak Zahartzeari buruzko Vienako Nazioarteko I. Ekintza Plana onartu zuen. Urte hartan bertan, Nazio Batuen Biltzar Nagusiak Plana onartu zuen, eta oraindik ere zaharren alorreko nazioarteko politikaren oinarria izaten jarraitzen du.

Planak oinarrizko giza balioak islatzen ditu, zaharren errespetuaren eta zaintzaren ingurukoak, nagusiki; izan ere, bi balio horiek konstanteak izan dira giza kulturaren garai eta leku guztietan. Halaber, arauak eta printzipio orokorrak proposatzen ditu, gizartearen zahartzeari aurre egiteko eta mundu osoko zaharren beharrei erantzuteko.

51 xede ezartzen ditu, osasunaren, etxebizitzaren, gizarte ongizatearen, ekonomiaren, hezkuntzaren... alorreko politikaren bidez lortu beharrekoak, eta hamaika gomendio, herrialde barruko eta nazioarteko sustapenari eta programei buruzkoak. Jarraian, nabarmengarrienak aipatuko ditugu:

– Zaharrek beren bizitza kontrolatzeko ahalmena lortu beharra.

- Zaharren independentzia sustatu eta gizarteratzea ziurtatu beharra, eta hirigintzari eta abarri buruz erabakitzeko prozesuetan parte har dezaten bideratu beharra.
- Zaharren gauza onei buruzko kontzientzia areagotu beharra.
- Zaharrek diru-sarrerara egoki gutxienekoak izan ditzaten bermatu beharra.
- Gizarte osoa zaharrekin dituen harremanez informatu eta kontzientziatu beharra.
- Osasun laguntza bermatu beharra.
- Etxeko laguntza sustatu beharra.
- Familiak eta zaintzaileak lagundu eta babestu beharra.
- Zaharrak beren kabuz molda daitezen bultzatu eta mantendu beharra.
- Gizarte zibilak boluntario lanak eta bestelako jarduerak egin ditzan bultzatu beharra.
- Zaharrak ezagutza, kultura eta balio espiritualak transmititzeko erabili beharra.
- Zahar guztiek hezkuntzan eta kultur erakundeetan parte hartzeko aukera izan dezaten ziurtatu beharra.

III.3. ZAHARREN GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPENA. NAZIO BATUEN PRINTZIOIAK ZAHARREI BURUZ

1991n, Nazio Batuen Biltzar Nagusiak 46/1991 Ebazpena onartu zuen, 1991ko abenduaren 16koa, Zahartzeari buruzko Vienako Nazioarteko I. Ekintza Plana aplikatzeko. Ebazpenak kontuan hartu beharreko oinarritzko bost printzipioak biltzen ditu:

– **Independentzia.** Zaharrek elikagai, ur, etxebizitza, jantzi eta osasun laguntza egokiak izateko eskubidea dute. Oinarritzko eskubideoz gain, soldatapeko lana egiteko eta hezkuntza eta gaikuntza jarduerak egiteko aukera izan behar dute.

– **Parte hartzea.** Zaharrek modu aktiboan parte hartu behar dute beren ongizatean zuzeneko eragina duten politikak egin eta aplikatzen; halaber, gazteei ezagutzak eta abileziak transmititzea eta taldeak edo elkarteak osatzea izan behar dute.

– **Zaintza.** Familiak zaintzea izan behar dute zaharrek, osasun zerbitzuak erabiltzea eta beren oinarritzko giza eskubideak eta askatasunak erabiltzea zaindu edo tratatu egiten dituzten etxeetan eta erakundeetan.

– **Nork bere burua gauzatzea.** Zaharrek gaitasun guztiak erabat garatzeko aukerak izan behar dituzte, gizartearen hezkuntza, kultura eta aisialdi arloko baliabideak eta baliabide espiritualak erabiliz.

– **Duintasuna.** Zaharrek duintasunez eta segurtasunez bizitzea izan behar dute, eta inola ere ezin ditugu esplotatu edo fisikoki edo psikikoki gaizki tratatu; duintasunez tratatu behar ditugu, adina, sexua, arraza, jatorri etnikoa, ezgaitasunen bat, egoera ekonomikoa edo bertze edozein ezagarrri gorabehera, eta egiten duten ekarpen ekonomikoari begiratu gabe balioetsi behar ditugu.

Nazio Batuen 1999ko dokumentu batek printzipio horiek guztiak berretsi zituen.

III.4. NAZIO BATUEK 2001. URTERAKO FINKATUTAKO HELBURU OROKORRAK ZAHARTZEARI BURUZ

1992an, Nazio Batuen Biltzar Nagusiak herrialde barruko helburuak finkatzeko gida onartu zuen eta zahartzeari buruzko 2001. urterako helburu orokorrak ezarri zituen. Honako hauek dira esparru nagusiak:

- Herrialde barruko oinarritzko azpiegitura.
- Osasuna eta elikadura.
- Ostatura eta ingurumena.
- Familia laguntzea.
- Hezkuntza eta komunikabideak.
- Gizarte laguntza.
- Enplegua edo/eta gutxieneko diru-sarrerak bermatzea.

Nabarmentzekoak dira oinarritzko edo egiturazko baldintzak sortzeko helburuak, zaharren eskubideak sustatu eta babestearren. Honako hauek azpimarratzen dituzte, bertzeak bertze:

- Zaharren parte hartzea sustatu beharra.
- Zahartzeari buruzko politiken alorrean barne egiturak eta koordinazio mekanismoak sortu beharra.
- Belaunaldi arteko politikak eta programak ezarri beharra.
- Zaharren egoerari buruz datuak bildu eta aldizka txostenak egin eta ezagutaraz daitezten ziurtatu beharra.
- Egungo legedia berrikusteko mekanismoak sortu beharra, zaharrei kalte egiten dieten gabezia, kontraesan eta diskriminazio mota nagusiak ikusteko.

III.5. ZAHARTZEARI BURUZKO ALDARRIKA-PENA

1992an, NBEko Biltzar Nagusiak Zahartzeari buruzko Aldarrikapena ere onartu zuen. Arren eta arren, eskatu zien estatu kideei Zahartzeari buruzko Nazioarteko Ekintza Plana aplikatzeko, zahartzeari buruzko 2001. urterako helburuak lortzeko. Bertzeak bertze, honako dei hauek egin zituen:

– Nazio Batuek zaharren alde emandako printzipioak ahal bezainbat ezagutaraztea.

– Nazioarteko Ekintza Plana herrialde barruko estrategia praktikoez, programa xeheez, helburu jakinez eta baliabide eta aukera errealez osatzea, nahi baina lortu ezin diren helburuak finkatu baino gehiago.

– Zaharrei buruzko herrialde barruko politikak eta programak garapen estrategia orokorren atalzat hartzea.

– Komunikabide publikoek eginkizun nagusia izan dezaten bultzatzea biztanleriaren zahartzeari buruz kontzientzia harrarazteko.

– Gizonezko zaharrak bultzatzea familia mantendu duten bitartean garatu ezin izan dituzten gaitasun sozialak, kulturalak eta emozionalak indartzera.

– Emakumezko zaharrei eman beharreko laguntza zehaztea, gizarteari egin dioten ekarpena ez dugu-eta behar bezala aitortu orain arte.

– Belaunaldi zaharrak eta gazteak elkarlanean aritzea, oreka sortzeko tradizioaren eta berrikuntzaren artean ekonomia, gizarte eta kultur garapenaren alorrean.

Zahartzeari buruzko Aldarrikapenak 1999. urtea Zaharren Nazioarteko Urte izendatzeko erabakia ere aipatzen du.

III.6. NAZIOARTEKO ZAHAR FEDERAZIOAREN ADIERAZPENA

Nazioarteko Zahar Federazioa jakitun da, pixkana, biztanleria zahartzen ari dela eta zaharren egoera pertsonalak, kulturalak eta sozialak askotarikoak eta oso bestelakoak direla. Hori dela-eta, askotariko erantzun politikoak eskatzen ditu, este-reotipoak alde batera uzteko, zaharrek aukera erreala izan dezaten gizartean normaltasunez parte hartzeko eta, prest badaude eta gai badira, ekarpenak egiteko.

Era berean, osasun egoera txarreko zaharrak zaintzen dituztenak laguntzeko eskatzen du.

Nabarmen duenez, oinarrizko giza eskubideak ez dira murrizten adindu ahala, baina, egia

erran, bazterketa eta zahartzaroak berezkoak dituen zailtasunak direla-eta, zaharrak arriskuan daude: gizarteak baztertzeko eta eskubideak galtzeko arriskuan; behinik behin, eskubideok berretsi eta errespetatu egiten ez baditugu, herrialde barruko eta nazioarteko neurri egokien bidez.

Bestalde, Nazio Batuek kaleratutako adierazpenek ez bezala, Zahar Federazioaren adierazpenak ardurei buruzko atal bat dakar. Hain zuzen ere, Nazioarteko Federazioak dio, gaur egun, herritar askok ardura handiagoa sentitzen dutela Lurreko bizitzaren kalitatea zaintzeko, eta zahar askok are erantzukizun handiagoa sentitzen dutela gizartearekin eta belaunaldi gazteekin, eta atsegin ez ekinen lioketela beren erantzukizuna onartzeko erronkari.

Horregatik guztiagatik, Nazioarteko Federazioak honako eskubide eta betebeharrak hauek egokitu dizkie zaharrei:

Zaharren eskubideak

1. Zaharrek etxebizitza, elikagai, ur, jantzi eta osasun laguntza egokiak izateko eskubidea dute, diru-sarreraren, familiaren laguntzaren eta autola-guntzaren bidez.

2. Zaharrek lan egiteko eta dirua egiteko bertze bide batzuk erabiltzeko eskubidea dute, adinean oinarritutako oztoporik gabe.

3. Zaharrek erretiroa hartzeko eta erretiroa noiz eta nola hartu behar duten erabakitzen parte hartzeko eskubidea dute.

4. Zaharrek hezkuntza eta gaikuntza programak erabiltzea izateko eskubidea dute, alfabetatzea hobetzeko, lanpostu bat errazago aurkitzeko eta jakinaren gainean erabakitzeko.

5. Zaharrek giro seguruan bizitzeko eskubidea dute, beren gogora eta gaitasun aldakorretara egokitu daitekeen giroan.

6. Zaharrek beren etxean ahal bezain luzaroan bizitzeko eskubidea dute.

7. Zaharrek gizarteratuta egoten segitzeko eta gizartean modu aktiboan parte hartzeko eskubidea dute, hala nola, beren ongizatean zuzeneko eragina duten politikak egin eta aplikatzeko prozesuetan.

8. Zaharrek ezagutzak, gaitasunak, balioak eta esperientzia belaunaldi gazteei transmititzeko eskubidea dute..

9. Zaharrek gizarteari zerbitzu egiteko eta boluntario izateko aukerak bilatu eta erabiltzeko eskubidea dute, beren interesetara eta gaitasunetara egokitzen diren karguetan.

10. Zaharrek zahar taldeak eta elkarteak osatzeko eskubidea dute.

11. Zaharrek eskubidea dute familiak lagundu eta zaindu ditzan, familiaren egoeraren arabera betiere.

12. Zaharrek osasun zerbitzuak erabiltzeko eskubidea dute, ongizate fisikoa eta adimenezkoa mantendu edo berreskuratu eta gaixotasunak saihestu edo atzeratzeko.

13. Zaharrek gizarte zerbitzuak eta zerbitzu juridikoak erabiltzeko eskubidea dute, autonomo izateko aukera handitzeko eta babesa eta zaintza lortzeko.

14. Zaharrek eskubidea dute erakundeek behar bezala tratatu eta babestu ditzaten, errehabilitazio zerbitzuak eman diezazkieten eta gizarte arloan eta adimen aldetik bizkor ditzaten, giro atsegina eta seguruan betiere.

15. Zahar etxeetan edo lagundu eta tratatu egiten dituzten etxeetan bizi direnean, zaharrek beren oinarritzko giza eskubideak eta askatasunak erabiltzeko eskubidea dute, eta beren duintasuna, sineskerak, beharrak eta bizitza pribatua guztiz errespetatuak izan daitezten. Halaber, ematen dieten laguntzari eta beren bizi kalitateari buruz erabakitzekeo eskubidea dute.

16. Zaharrek beren gaitasun guztiak erabat garatzeko aukera oroz baliatzeko eskubidea dute.

17. Zaharrek gizartearen hezkuntza, kultura eta aisialdi arloko baliabideak eta baliabide espirituak erabiltzeko eskubidea dute.

18. Zaharrek eskubidea dute zuzentasunez trata ditzaten, adina, sexua, arraza edo jatorri etnikoa, ezgaitasunen bat edo bertze edozein ezaugarri gorabehera, eta egiten duten ekarpen ekonomikoari begiratu gabe balioets ditzaten.

19. Zaharrek duintasunez eta segurtasunez bizitzeko eskubidea dute, eta esplotatu edo fisikoki edo psikikoki gaizki trata ez ditzaten.

20. Zaharrek autonomia pertsonala izateko eskubidea dute, osasunari buruz erabakitzekeo, eta baita duintasunez hiltzeko ere, bizitza luzatzea bertze helbururik ez duten tratamenduak onartzu edo errefusatu.

Zaharren ardurak

Norberaren balioei jarraiki, osasunak eta norberaren egoerak bide ematen dieten neurrian, zaharrek honako hauek egiten ahalegindu behar dute:

1. Aktiboak eta baliagarriak izaten, gai izaten eta beren ahaleginean fidatzen.

2. Osasun fisikoari eta psikikoari buruzko printzipioak ikasten eta beren buruari aplikatzen.

3. Eskaintzen dizkieten alfabetizazio programak aprobetxatzen.

4. Planak egiten eta zahartzarorako eta erretiroaldirako prestatzen.

5. Norberaren beharrekin bat, ezagutzak eta gaitasunak eguneratzen, lan merkatuan sartu nahi izanez gero, lan bat aurkitzeko aukera gehiago izateko.

6. Gainerako senideak bezala, malguak izaten, harreman aldakorren beharretara egokitzeko.

7. Ezagutzak, gaitasunak, esperientzia eta balioak gazteei transmititzen.

8. Norberaren gizarteko bizitzan parte hartzen.

9. Erkidegoari zerbitzu egiteko moduak bilatzen eta gauzatzen.

10. Osasun laguntzari buruz erabaki arrazoituak hartzen eta medikuari eta senideei jakinarazten, gaixotasun sendaezinen bat izanez gero, nola nahi duten trata ditzaten.

III.7. "GIZA ESKUBIDEAK ETA ZAHARRAK" TXOSTENA

Eskubide Ekonomikoen, Kulturalen eta Sozialen Nazioarteko Ituna 141 estatuk berretsi zuten. NBEko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Batzordea da haren jarraipena egiteko arduraduna, eta, 1996an, "Giza eskubideak eta zaharrak" txostena prestatu zuen.

Txostenak gogorarazten duenez, zaharrak dira gizarteko multzorik ahul, baztertu eta babesgaberenetako bat, eta, atzeraldi ekonomikoetan, benetako arrisku egoeran daude.

Hori dela-eta, honako gomendio hauek egiten ditu:

– Zahar guztiek gizarte segurantzaren izateko eskubidea izan dezaten ziurtatzea.

– Gizonezkoen eta emakumezkoen eskubide berdintasuna bermatzea eta aparteko arreta ematea emakumezko zaharrei, ez dutelako eskubiderik ez bere pentsioa eta ez alarguntasun pentsioa hartzeko eta, maiz, egoera kritikoa daudelako.

– Lan eskubideei dagokienez, neurriak hartzea, norberaren lanpostuan eta lanbidean adinagatiko diskriminazioa galarazteko, eta programak abian jartzea, erretiroaldirako prestatzeko.

– Familiak babestea, gizarte zerbitzuak sortuz etxean zaharrak dituzten familiak laguntzeko.

– Zaharrek bizi maila egokia izateko eskubidea izatea, haien oinarrizko beharrei erantzunen dietela eta osasun laguntza egokia izanzen dutela ziurtatzea eta zaharrei etxean ahal bezain luzaroen geratzen laguntzea. Zaharren oinarrizko beharrei erantzuteko eta osasun laguntza egokia izanzen dutela bermatzeko, diru-sarrerak eman behar dizkiegu, familiaren eta erkidegoaren laguntza izan behar dute eta beren burua aski izan behar dute.

– Zaharrek osasun fisikorako eta psikikorako eskubidea izatea eta zaharren osasuna zaintzeko osasun politika osoak ezartzea, bai prebentzioa eta errehabilitazioa eta bai fase terminaleko zaintza ezartzeko. Izan ere, gaitasun funtzionalak mantentzeko prebentzioari (aldizkako azterketak egiteari) eta errehabilitazioari esker, osasun laguntzan eta gizarte zerbitzuetan inbertsio txikiagoa egin behar da.

– Zaharrek hezkuntzarako eta kulturarako eskubidea izatea, hainbat aldetatik:

- Hezkuntza programez baliatzeko eskubidea izatea.
- Ezagutzak eta esperientzia belaunaldi gazteen esku jartzeko eskubidea izatea.
- Zaharrak kultur erakundeetan (museoetan, antzokietan, kontzertu aretoetan, zinema aretoetan...) sartzeko eta ibiltzeko programak babestea.

– Zaharrei buruzko estereotipo negatiboak gainditzea, eta ezgaitu eta bere kabuz molda ezin daitezkeen, gizartean eginkizunik betetzen ez duten eta inolako baliorik ez duten pertsonatzat hartzeari uztea.

– Gerontologiari, geriatriari eta psikologia geriatrikoari buruzko ikerketa sustatzea eta haien irakaskuntzan espezializatutako erakundeak sortzea.

III.8. NAZIO BATUEN ZAHARREN NAZIOARTEKO URTEA

1999. urtea Zaharren Nazioarteko Urte izendatu zuten, eta, hartara, gizakiak “gero eta bizitza luzeagoa” duela aitortu. Ondorioz, zaharren eta haien giza eskubideen alorrean aritzen diren herrialde barruko eta nazioarteko erakunde publiko eta pribatu guztiek aparteko arreta eman zioten zaharrezari, nork bere esparruan.



*Adin guztiendako gizartea
1999, Zaharren Nazioarteko Urtea*

“Adin guztiendako gizartea” izan zen Zaharren Nazioarteko Urtearen leloa, eta honako lau dimentsio hauek osatzen dute kontzeptua:

- Bizitzako aldi guztietako garapen pertsonalak eta aukerak.
- Belaunaldien arteko harremanak.
- Biztanleria zahartzearen eta herrien garapeneraren arteko harremanak.
- Zaharren egoeraren berri hobeto jakin eta hura hobetu beharrak.

Dudarik gabe, Zaharren Nazioarteko Urte mugarri izan zen gizarteak zaharren eskubideen kontzientzia hartzeko, sektore guztietako jardunean zahartzearen inguruko alderdiak kontuan hartzen hasteko eta alor honetan ikerkuntza eta ekin-tza bultzatzeko.

III.9. OINARRIZKO ESKUBIDEEN EUROPAR BATASUNEN GUTUNA

2000ko abenduan, Oinarrizko Eskubideen Europar Batasuneko Gutuna onartu zuten, Nizan, eta, bai Europako Parlamentuaren eta bai Europako Kontseiluaren iritziz, huraxe da Europako herritarren gutuna. Areago, lehenik, Europako Konstituzioaren proposamenaren oinarri bat izan zen eta, ondoren, Europar Batasuneko Itunaren atal bat izan da. Europako Konstituzioaren proposamena Erroman onartu zuten, 2004an, baina porrot egin zuen; Europar Batasuneko Ituna, bestalde, loteslea izan da.

Testuak Europako herritarren eskubideak eta askatasunak onartzen ditu, eta honako printzipio hauek ditu oinarri: duintasuna, askatasuna, norberaren burua gauzatzea, berdintasuna, independentzia, elkartasuna (laguntza), herritartasuna (parte hartzea) eta justizia.

Zaharren eskubideei dagokienez, honako artikulua hauek dira nabarmentzekoak:

II-81. artikulua. Bereizkeriarik eza

“Debekatuta dago bereizkeria oro, eta bereziki hauek: sexua, arraza, kolorea, herriko zein gizarte-ko jatorria, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa zein sinesteak, iritzi politikoak zein bertze edozein iritzi, estaturik gabeko nazio batekoa izatea, ondarea, jaiotza, ezgaitasuna, adina nahiz joera sexuala direla-eta eragindako bereizkeriak”

II-85. artikulua. Pertsona helduen eskubideak

“Batasunak onartu eta errespetatu egiten du pertsona helduek bizitza duina eta independentea izateko, eta gizarte-bizitzan eta kultura-bizitzan parte hartzeko daukaten eskubidea”

II-86. artikulua. Pertsona ezgaituen integrazioa

“Batasunak onartu eta errespetatu egiten du pertsona ezgaituek autonomia izateko, gizartean eta lanean integratzeko, eta gizartearen bizitzan parte hartzeko daukaten eskubidea”

II-94. artikulua. Gizarte-segurantza eta gizarte-laguntza

“1. Batasunak onartu eta errespetatu egiten du gizarte-segurantzako prestazioak eta gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubidea, Erkidegoko Zuzenbideak eta estatu bakoitzeko lege eta jorkaerek ezarritako moduan, bai amatasuna, gaixotasuna eta laneko istripuak gertatzen direnerako, mendekotasuna zein zahartzarora etortzen direnerako, nahiz lana galtzen denerako.

3. Gizarteko bazterkeriaren eta pobrezia-aren aurka borrokatzeko, Batasunak onartu eta errespetatu egiten du gizarte-laguntzak eta etxebizitzalaguntzak izateko eskubidea, baliabide nahikorik ez duten guztiei bizimodu duina bermatzeko, Erkidegoko Zuzenbideak eta estatu bakoitzeko lege eta jorkaerek ezarritako moduan”

II-95. artikulua. Osasunaren babesa

“Pertsona orok du osasun-prebentziorako eta osasun-sorospenaren onurak jasotzeko eskubidea, estatu bakoitzeko lege eta jorkaerek ezarritako moduan. Batasunaren politika eta ekintza guztiak zehaztu eta betetzerakoan, giza osasuna maila handian babestuko dela bermatuko da”

III.10. ZAHARTZEARI BURUZKO MADRILGO NAZIOARTEKO II. EKINTZA PLANA

2002an, Zahartzeari buruzko Nazio Batuen Munduko II. Biltzarra egin zuten Madrilen. Madrilgo Nazioarteko II. Ekintza Plana onartu ere egin zuten orduan.



Komeni da estatuburuak eta gobernuburuak Ekintza Plana osatzeko sinatu zuten adierazpen politikoko zenbait gogoeta nabarmentzea, diskriminazio egoera onartzen dutelako eta munduko agintari nagusiek zuzenean esku hartzeko konpromiso publikoa hartu zutelako adierazten dutelako:

– Estatuburuak eta gobernuburuak adin guztindako gizartea sustatzearen alde hartutako konpromisoa berretsi dugu.

– Diskriminazio mota guztiak (hala nola, adingatikoko diskriminazioa) desagerrarazteko konpromisoa hartu dugu.

– Zaharren duintasunaren onespina handitzea eta abandonu, abusu eta indarkeria mota guztiak desagerraraztea erabaki dugu.

– Zaharren independentziaren eta zaharrak gaitzearen alde gaude, eta zaharrek gizarteko alor guztietan erabat parte hartzearen alde.

– Jakin badakigu gobernuak garelako aurrea hartu eta Zahartzeari buruzko Nazioarteko II. Ekintza Plana aplikatzeko arduradun nagusiak.

– Funtsezkotzat dugu zahar erakundearen beren eta gizarte zibileko bertze sektore batzuen (profesional elkarteak, enpresen, langileen eta langile elkarteak, kooperatibak, ikerketa erakundeak, unibertsitateak, bertze hezkuntza eta erlijio erakunde batzuen eta komunikabideak) artean lankidetzara eraginkorra izatea.

Zahartzeari buruzko Madrilgo Nazioarteko II. Ekintza Planak hainbat gai nagusi proposatzen ditu helburu eta konpromiso horiek guztiak betetzeko, eta zenbait kontzeptu berritzaile eta esanguratsu argitu edo sortzen ditu:

– Zaharren artean pobrezia desagerrarazteko xedea berresten du, eta, horretarako, zahartzearen ondorioak herrialde barruko planen diseinuan eta gauzatzean barneratzen ditu, oinarrikoak diren aldetik planek irauteko.

– Zahartze aktiboan sakontzen du eta ikuskera zabalaren alde egiten du osasun politikari helduek; ahaleginak zaharren independentzia eta gaitasun funtzionala ahal bezainbat mantentzera bideratzen ditu, hartara.

– Laguntza eremuak sendotzen ditu, funtsezkoak direlako kohesio eta gizarteratze esparruan, eta belaunaldi arteko loturak eta harremanak indartu beharra, familiak gizartea egituratzen eta mendekotasun egoeran dauden senideak zaintzen lagundu beharra eta hiriak, adina gorabehera, guztion beharrei erantzuteko moduan antolatuta beharra nabarmentzen du.

– Zaharrek nork bere gizarteko bizitza ekonomikoan, politikoan eta sozialean guztiz eta modu eraginkorrean parte hartzearen alde egiten du argi eta garbi, baita soldatapeko edo borondatezko lanaren bidez ere.

– Aitortzen du zaharrek ez dutela osatzen multzo homogeneoa eta ezin zaiela aplikatu ekintza eredu bakarra.

– Zaharren eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak eta haien eskubide zibilak eta politikoak bermatzeko konpromisoa hartzen du, eta zaharren kontrako indarkeria eta diskriminazio mota guztiak desagerraraztekoa.

– Zaharrek gizarteari ekarpenak egiten ahal dizkiotela onartzen du, beren burua hobetzeko ez ezik, baita gizartea bera hobetzeko ere.

– Zahartzen ari den biztanleriaren gaitasunak etorkizuneko garapenaren oinarritzat erabiltzeko galdegiten du.

Nazioarteko II. Ekintza Plana hemezortzi gai nagusik osatzen dute, eta haiei buruzko 35 helburuk, eta, horiek guztiak lortzeko, hainbat neurri eta gomendio proposatzen ditu.

ZAHARRAK ETA GARAPENA

– 1. gaia: gizartean eta garapenean modu aktiboan parte hartzea

- 1. helburua: zaharrek gizarte, kultur, ekonomia eta politika arloan egiten duten ekarpena aitortzea.
- 2. helburua: zaharrek erabakitzeko prozesuetan parte hartzea, maila guztietan.

– 2. gaia: enplegua eta langileak zahartzea

- 1. helburua: lan egin nahi duten zahar guztiei lan egiteko aukera ematea.

– 3. gaia: landa eremuaren garapena, migrazioa eta urbanizatzea

- 1. helburua: landa eremuko bizi baldintzak eta azpiegiturak hobetzea.
- 2. helburua: landa eremuko zaharren bazterketa txikiagotzea.

- 3. helburua: etorkin zaharrak erkidego berrietan bertakotzea.

– 4. gaia: ezagutza, hezkuntza eta gaikuntza izatea

- 1. helburua: bizitza osoan aukera berak izatea hezkuntza iraunkorraren, gaikuntzaren eta trebakuntzaren alorrean, eta baita lanbide orientazioaren eta enplegu zerbitzuen alorrean ere.

- 2. helburua: adin guztietako pertsonen gaitasunak eta ezagutzak guztiz erabiltzea eta adindu ahala lortzen den esperientzia handiagoa eta onuragarria dela onartzea.

– 5. gaia: belaunaldien arteko elkartasuna

- 1. helburua: elkartasuna handitzea, belaunaldien arteko berdintasunaren eta elkarrekikotasunaren bidez.

– 6. gaia: pobrezia desagerraraztea

- 1. helburua: zaharren artean pobrezia murriztea.

– 7. gaia: diru-sarrerak ziurtatzea, gizarte babesa edo segurantzaren ematea eta pobrezia aurrea hartzea

- 1. helburua: programak sustatzea, langile guztiek oinarritzako gizarte babesa edo segurantzaren izateko eta, beharrezkoa bada, haren esparruan, pentsioa, ezgaitasun aseguruia eta osasun laguntza izateko.

- 2. helburua: zaharrek diru-sarrera egoki gutxienekoak izatea eta egoera sozial eta ekonomiko txarrean dauden taldeei aparteko arreta ematea.

– 8. gaia: larrialdiak

- 1. helburua: zaharrek elikagaiak, etxebizitza, osasun laguntza eta bertze zerbitzu batzuk erabiltzea izatea hondamendi naturalak eta larrialdi humanitarioko bertze egoera batzuk gertatzen direnean.

- 2. helburua: zaharrek ekarpen handiagoa egitea erkidegoak eta gizarte egitura larrialdi egoeren ondoren berrezarri eta birsortzeko.

ZAHARTZAROAN OSASUNA ETA ONGIZATEA SUSTATzea

– 1. gaia: bizitza osoan osasuna eta ongizatea sustatzea

- 1. helburua: gaixotasunen bat izateko eta, horrenbestez, zahartzaroan mendekotasun egoeran izateko arriskua handiagotzen duten faktoreen ondorioen metaketa murriztea.

- 2. helburua: zaharren artean osasun txarrari aurrea hartzeko politikak prestatzea.

- 3. helburua: zahar guztiak elikagai eta elikadura egokiak izatea.

– 2. gaia: osasun laguntzako zerbitzuak guztiek berdintasunean erabiltzea

- 1. helburua: adinagatiko, sexuagatiko edo berzte arrazoi batzuegatiko (hala nola, hizkuntzagatiko) desberdintasun sozialak eta ekonomikoak desagerraraztea, zaharrek osasun laguntza zuzen eta berdintasunean erabiltzea izan dezaten.

- 2. helburua: lehenengo mailako osasun laguntzako zerbitzuak garatu eta sendotzea, zaharren beharrei erantzuteko, eta prozesuan parte har dezaten bultzatzea.

- 3. helburua: osasun laguntza jarraitua ezartzea, zaharren beharrei erantzuteko.

- 4. helburua: zaharrek lehen mailako eta epe luzeko osasun laguntzako zerbitzuak garatzen eta sendotzen parte hartzea.

– 3. gaia: zaharrak eta GIBa/hiesa

- 1. helburua: GIBak eta hiesak zaharren osasunean (bai infekziodunen eta bai infekziodun senideak edo haien ondorioz babes gabe gelditu diren senideak zaintzen dituztenen osasunean) dituzten ondorioen ebaluazioa hobetzea.

- 2. helburua: GIBak edo hiesak infektatutako zaharrei eta haiek zaintzen dituztenei informazio zuzena eman, zaintzeko gaitu eta osasun eta gizarte laguntza ematea.

- 3. helburua: zaharrek, gaixotasun kronikoak (hala nola, GIBa eta hiesa) dituzten haurrak zaindu eta gurasoak ordeztzen dituztenean, garapenerako egiten duten ekarpena sendotu eta aitortzea.

– 4. gaia: osasun zerbitzuak ematen dituzten pertsonak eta osasun arloko profesionalak gaitzea

- 1. helburua: osasunaren eta gizarte zerbitzuen alorreko profesionalak zaharren beharrei buruz duten informazioa eta gaitzuntza hobetzea.

– 5. gaia: zaharren adimen osasunarekin lotutako beharrak

- 1. helburua: adimen osasunaren alorrean zerbitzu zabalak sortzea, zaharren adimen osasunaren arazoei aurrea hartzeko, goiz esku hartzeko, tratamendu zerbitzuak emateko eta arazok kudeatzeko.

– 6. gaia: zahar ezgaituak

- 1. helburua: zahar ezgaituek bizitza osoan ahalik eta gaitasun funtzional handiena mantentzea eta gizartearen guztiz parte har dezaten bultzatzea.

GIRO EGOKI ETA APROPOSA SORTZEA

– 1. gaia: etxebizitza eta bizi baldintzak

- 1. helburua: nor bizi izan den erkidegoan zahartzea bultzatzea, haren gogoia eta zaharrek ordain ditzaketan etxebizitzaren artean dauden aukerak kontuan izanik betiere.

- 2. helburua: ingurunearen eta etxebizitzaren diseinua hobetzea, zaharren independentzia sustatzeko, haien beharrak (batik bat, ezgaitasunen bat dutenenak) kontuan hartuz.

- 3. helburua: zaharrek erabili eta ordaindu egin ditzaketan garraiobideen eskaintza hobetzea.

– 2. gaia: laguntza ematen dutenei laguntzea

- 1. helburua: askotariko bideak erabiliz, zaharrei laguntza eta zerbitzu jarraituak ematea eta laguntza ematen dutenei babesa ematea.

- 2. helburua: zaharrek (bereziki, emakumezko zaharrek) egiten duten laguntza lana babestea.

– 3. gaia: abandonua, tratu txarrak eta indarkeria

- 1. helburua: zaharren kontrako abandonu, abusu eta indarkeria mota oro desagerraraztea.

- 2. helburua: zaharren kontrako abusuari eta tratu txarrei aurre egiteko laguntza zerbitzuak sortzea.

– 4. gaia: zahartzearen irudia

- 1. helburua: zaharren aginpidea, jakintza, emankortasuna eta bertze ekarpen garrantzitsu batzuk areago aitortzea jendaurrean.

III.11. OMEREN TXOSTENA ZAHARTZE AKTIBO ETA OSASUNTSUA SUSTATZEARI BURUZ: "ZAHARTZE AKTIBOA: ESPARRU POLITIKOA"

Osasunaren Munduko Erakundeak xede bat proposatu zion nazioarteari gizarteak bizkor azkartzeari jarrera onez aurre egiteko: zahartze aktibo eta osasuntsua sustatzea. Hain zuzen, zahartze aktibo eta osasuntsua "Zahartze aktiboa: esparru politikoa" dokumentuaren bitartez zehaztu zuen, Zahartzeari buruzko Munduko II. Biltzarraren esparruan.

Zahartze aktiboa “osasunaren, parte hartzearen eta segurtasunaren alorreko aukerak ahal bezainbat erabiltzea” da, “pertsonak adindu ahala, bizi kalitatea hobetzeko”

III.12. ZAHARREN AURKAKO TRATU TXARRI OSOTASUNEAN AURREA HARTZEKO TORONTOKO ADIERAZPENA

Zahartzeari buruzko Madrilgo Nazioarteko II. Ekintza Planak argi eta garbi onartu zuen zaharren aurkako tratu txarrak izan badirela. Ildo berean, Torontoko Adierazpenak munduaren kontzientzia nabarmen handiagotzen lagundu du.

Adierazpena ekiteko deia da, Osasunaren Munduko Erakundeak eta Zaharren kontrako Abusuei Aurrea Hartzeko Nazioarteko Sareak (INPE-AK) egindakoa, eta tratu txarrei aurrea hartu beharra nabarmentzen du.

Honako hauek dira Adierazpenaren puntu nagusiak:

- Zaharren aurkako tratu txarrak arazo unibertsala dira, bai herrialde garatuetan eta bai garapen bidean daudenetan gertatzen direlako.

- Tratu txar gehienak familian bertan edo zaharrak zaintzen dituzten unitateetan gertatzen dira.

- Ez dago legezko bitarteko egokirik tratu txarrei aurre egiteko.

- Zaharren kontrako tratu txarrei aurrea hartzeko, gizarteko sektore askok parte hartu behar dute.

- Lehen mailako osasun laguntzako zerbitzuetako langileen eginkizuna bereziki garrantzitsua da, egunero aurre egiten dietelako zaharren aurkako tratu txarrei, nahiz eta sarritan ez dituzten diagnostikatzen tratu txar gisa.

- Hezkuntza eta informazioa ematea funtsezkoa da, eta zahartzaroari buruzko estigmei aurre egin, tabuei heldu eta estereotipo negatiboak desagerrarazten laguntzea.

- Tratu txarrei modu eraginkorrean aurrea hartzeko, belaunaldien arteko elkartasuna sustatzen duen eta indarkeriari uko egiten dion kultura sortu behar da.

- Ez da nahikoa zaharren aurkako tratu txarren kasuak identifikatzea; aitzitik, herrialde guztiek egiturak sortu behar dituzte, arazoari behar bezala aurre egin eta, azkenean, hura konpontzeko.

III.13. NAZIOARTEKO BERTZE GERTAKARI INTERESGARRI BATZUK

2002an, hainbat jardunaldi antolatu zituzten, oso interesgarriak argi eta garbi: bertzeak bertze, GKEen Munduko Biltzarra, Valentziako Foro Zientifikoa eta Zahartzeari buruzko Berlingo Biltzarra.

GKEen Munduko Biltzarrean egindako gomendioak “Garapena eta zaharren eskubideak” dokumentuan bildu zituzten, Munduko Biltzarraren aurrean aurkezteko. Bertzeak bertze, honako hauek galdegiten ditu txostenak: erretiroa hartzeko eskubidea, bizimodu seguru eta duina izateko behar adinako diru-sarrerak izanik; autonomia pertsonala eta bizi kalitatea ziurtatzen duten osasun eta gizarte eta osasun laguntza izatea; eta benetako gizarteratzea.

Bestalde, nabarmentzen du zer gairi eman beharko geniekeen aparteko arreta: zahartzearen eta pobrezia-artearen arteko harremanari –pobrezia nork bere eskubideak erabiltzea galarazten du–; generoaren eta zahartzearen arteko harremanari –emakume zaharrek gabezia handiagoak dituzte alor askotan–; gizarte ongizateari –biztanleria zahartzea erronka handia da gizarte ongizateko politika eta sistema publikoentzat, zaharrek gizar-tean ahal bezain luzaroen parte har dezaten eta zerbitzu merke eta egokiak eta beren beharretara egokituak izan ditzaten bideratu behar dutelako–; osasunari –zahartzeak ez du zertan osasuna galtzea ekarri–; parte hartzeari –landa eta hiri eremuan, zaharrek parte hartzea bultzatzen duten ekimen irudimentsuak sustatu behar dira–; segurtasunari, kontsumoari eta inguruneari –zahartze aktibo eta osasuntsua izateko, zaharrek segurtasuna behar dute eguneroko bizitzan–; legezko babesari (mendekotasun fisiko edo psikikoko egoeran eta, ondorioz, legez ezgaitzeko arriskuan dauden zaharrak babesteari); abusuen, indarkeriaren eta tratu txarren aurkako babesari; gutxiengo etnikoei eta migrazio mugimenduei –gutxiengo etnikoen eta etorkinen oinarritzko eskubideak bereziki urratzen dira, eta are gehiago zaharrak badira–; eta ingurumenari –hiriak, ingurumenaren osasunak eta kontsumoak zuzeneko eragina dute zaharren bizitzan–.

Berlingo Biltzarrari dagokionez, berriz, Europa-ko Ekonomia Batzordeak egin zuen, eta honako ideia hauek nabarmendu zituen, Zahartzeari buruzko Madrilgo Nazioarteko II. Ekintza Plana aplikatzeko eskualdeetako estrategia abian jartzeko:

- “Konpromisoa hartu dugu zaharrek beren eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak eta eskubide zibilak eta politikoak erabat erabil ditzan-

ten ziurtatzeko eta zaharren aurkako indarkeria, abusu, abandonu eta diskriminazio mota oro desagerrarazteko”

– “Aparteko lehentasuna ematen diogu zaharrek gizartean gehiago parte hartzeari eta gizarteratzea eta independentzia sustatzeari; hazkunde ekonomiko zuzen eta iraunkorra sustatzeari, biztanleria zahartzearen ondorioei helduz; gizarte babes egoki eta iraunkorra sendotzeari, egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat; lan merkatua

zahartzeari aurre egin eta zaharren gaitasunak erabiltzera bultzatzeari; heziketa iraunkorra sustatzeari; osasun fisikoa eta psikikoa eta ongizatea bizitza osoan hobetzeari; osasun eta gizarte laguntza kalitatekoa erabiltzeko aukera berdintasunari; zahartzeari buruzko politika guztien esparruan generoari buruzko zeharkako ikuspegia barneratzeari; bertze zaintzen duten zaharrak, haien familiak eta erkidegoak laguntzeari; eta belaunaldien arteko elkartasuna sustatzeari”

IV. KAPITULUA. ZAHARREN ESKUBIDEAK ESPAINIAN

Nazioartean berriki hasi dira zaharren eskubideak babestu eta sustatzeko bitartekoak sortzen; Espainian, berdin, baina are berrikiago.

Nolanahi ere, arauzko aurrekari orokor esanguratsua dituzte herritarren eskubideak babesteko, eta batzuek zaharrak berariaz aipatzen dituzte, edo zuzeneko ondorioak dituzte haiengan.

ESPAINIAKO MUGARRI NAGUSIAK ZAHARREN ESKUBIDEEN ALORREAN

1978. Espainiako Konstituzioa.

1986. Osasunari buruzko Lege Orokorra.

1990. 26/1990 Legea eta Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu berritua onartzen duen 1/1994 Legegintza Dekretua.

1992. Espainiako Gerontologia Plana (1992-1997).

1995. Toledoko Ituna.

1998. Zaharren Espainiako Kontseiluaren Biltzarra: "Zaharrak XXI. mendean".

2001. Zaharren Espainiako Kontseiluaren Biltzarra: "Adin guztiendako gizartea".

2003. Zaharrendako Ekintza Plana (2003-2007).

2006. "Mendekotasunari buruzko Legea" delakoa.

Jarraian, labur-labur, bakoitza azalduko dugu.

IV.1. ESPAINIAKO KONSTITUZIOA

Espainiako Konstituzioa 1978. urtean onartu zuten, eta herritar guztien eskubideak xedatzen ditu, haien adina gorabehera. Gainera, zehatz-mehatz, gizarteratze eta diskriminaziorik eza ezartzen ditu printzipio gisa, herritar guztien eskubideen artean benetako berdintasuna lortze aldera.

Konstituzioak herritar guztiei eta, hortaz, zaharrei ere aitortu beharreko oinarritzko eskubideak ezartzen ditu: pertsonaren duintasuna (10.1. art.), berdintasunerako eskubidea (14. art.), bizitzarako eta segurtasun fisikorako eskubidea (15. art.), askatasunerako eskubidea (16. art.), ohorerako eta intimitaterako eskubidea (18. art.), biltzeko askatasuna (21. art.), elkartzeko askatasuna (22. art.)...

Zehatz-mehatz, zera xedatzen du 14. artikulua:

"Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguru-

bar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta."

Areago, Konstituzioak ez ditu eskubideok onartu bakarrik egiten. Aitzitik, askatasuna eta berdintasuna sustatzeko politika aktiboak egin beharra ere ezartzen du. Ildo horretan, 9.2. artikulua honako hau xedatzen du, zehatz-mehatz:

"Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere."

Era berean, muga edo ezgaitasunen bat duten zaharrei dagokienez, Konstituzioko 49. artikulua politika aktiboak egin beharra agintzen du berariaz, ezgaitasun edo mugaren bat duten pertsonen eskubideak babeste aldera:

"Botere publikoek aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egingo dute elbarri fisikoentzat, zentzumen-elbarrientzat eta elbarri psikikoentzat; horiei, eurek behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko."

Ikusten denez, Konstituzioak jotzen du, askatasuna eta berdintasuna lortzeko, politika aktiboa jarri behar dela abian mugaren bat duten pertsonak gizarteratzeko eta haien eskubideak bertzerenekin berdintzeko, litekeena da-eta mugaren bat duten herritarrek (hala nola, zaharrak) ezin gartztea eta gizartearen eguneroko bizitzan ezin parte hartzea.

Konstituzioko hirugarren kapituluak politika soziala eta ekonomikoa gobernatu behar duten printzipioak biltzen ditu. Artikuluek politikak abian jartzera behartzen dituzte agintari publikoak, herritarren eskubideak bermatzeko.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da 50. artikuluko xedapena, zaharrek diru-sarrera nahikoak eta gizarte laguntza egokia izan ditzaten ziurtatzeko:

"Botere publikoek, aldizka eguneratutako pensio egokien bidez, gutxieneko kaudimena bertutuko die herritarrei zahartzaroan. Modu berean, eta familiaren betebeharratetik kanpo, haien ongizatea bultzatuko dute gizarte-zerbitzuen bidez, beraien arazo bereziei kasu eginez, osasunari, etxebizitzari, kulturari eta aisialdiari dagokienez."

IV.2. OSASUNARI BURUZKO LEGE OROKORRA

Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrak osasuna babesteko eskubidearen erabilera arautu zuen; osasuna babesteko eskubidea Espainiako Konstituzioko 43. artikulua eta harekin bat datozenek aitortzen dute.

Mugarria izan zen laguntza orokortzeko, eta, kotizatzen dutenengana ez ezik, "Espainiako herritar guztiengana" heltzen den osasun sistema eratzeari bide eman zion; hartara, zaharrendako laguntza ere bermatu zuen.

Herritar guztiak osasun administrazio publikoekiko harremanetan zer eskubide dituzten zehaztu zuen Legeak; osasun zerbitzuak erabiltzeko aukera berdintasuna eta laguntza osoa izateko eta baliabideak koordinatzeko eskubidea ezarri zituen; adimen osasuna (psikogeriatria barne) osasun sistema orokorrean sartu zuen; eta, berteak berte, gaixoen informazioa izateko eskubidea dutela ezarri zuen.

IV.3. ZAHARREN ESPAINIAKO KONTSEILUAK ANTOLATUTAKO ESPAINIAKO BILTZARRAK

Lehen 1998an antolatu zuen, eta leloa "Zaharrek XXI. mendean: bizi kalitate handiagoaren bila" izan zen; bigarrena 2001ean antolatu zuen, eta leloa "Adin guztiendako gizartea" izan zen. Lehen aldiz, halako jardunaldietan kontuan hartu zituzten nazioarteko joera, ekimen eta esperientzia berriak, eta mugari izan ziren zaharrek eurek kontzientzia hartzeko, honako hauek egiten hasi baitziren:

Zahartze pozgarri eta aktiboaren alde lan egiten.

Gizarteari zaharrekiko konpromisoa eskatzen, pentsioei, gizarteratzeari eta abarri dagokienez.

Gizarteari mendekotasun egoeran dauden zaharrekiko konpromisoa eskatzen, mendekotasun egoeran babesteari, gizarte eta osasun arloko koordinazioari, zaintzen dituzten familiei... dagokienez.

Zaharrek gizarteari egiten dioten ekarpenaren alde egiten, zaharrek konpromisoa hartu eta beren burua gauzatzearen eta gizarteari ekarpenak egitearen alde egiten.

IV.4. GIZARTE SEGURANTZARI BURUZKO LEGEAK

Kontribuziozkoak ez diren Gizarte Segurantzako laguntzak ezartzen dituen abenduaren 20ko 26/1990 Legearen helburu nagusia kontribuziozkoak ez diren Gizarte Segurantzako sistemako

laguntza ekonomikoak ezarri eta arautzea da, Espainiako Konstituzioko printzipio gidari bat gartzeko; hain zuzen ere, Konstituzioak agintzen die agintari publikoei Gizarte Segurantzako araubide publikoa mantentzeko herritar guztiengana.

Legeko lehenengo azken xedapenak baimena eman zion Gobernuari, testu berritua egin eta, behar bezala araututa, argituta eta bateratuta, Gizarte Segurantzari buruzko legezko testu espezifikoa bat egiteko; horregatik, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu berritua onartzeko ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretua eman zuten.

Testuak Gizarte Segurantzako sistemaren babes lana zehazten du, eta, berteak berte, erretiroaldiko laguntza ekonomikoak (kontribuziozkoak eta ez-kontribuziozkoak), ezgaituak berriz hezi eta errehabilitatzeko eta zaharrek laguntzeko gizarte zerbitzu bidezko laguntzak eta gizarte laguntzaren onurak xedatzen ditu; zehazki, erretiroaldiko laguntza ekonomikoak II. Tituluak arautzen ditu.

IV.5. TOLEDOKO ITUNA

1995eko apirilaren 6an, Diputatuen Kongresuko osoko bilkurak Aurrekontu Batzordeak onartutako testua onetsi zuen, aldaketarik egin gabe. Aurrekontu Batzordeak bere baitan eraturako taldeak egindako txostena erabili zuen oinarri, Gizarte Segurantzako sistemaren egiturazko arazoak eta egin beharreko erreforma nagusiak aztertzeko. Txostenari "Toledoko Ituna" deritza jendartean, eta adostasun handiaren adierazgarri izan zen, Gizarte Segurantzaren egungo ereduaren (kontribuziozko eta publikoaren) finantzazioa bermatzeko. Horretarako, guztiak ados izan ziren gastuaren hazkunde ekonomia hazkundearekin bat etortzeko eta etekinak arrazionaltasun handiagoaz eta kontribuzioaren arabera banatzeko.

Toledoko Itunaren ondorioz, Gizarte Segurantzako sistema sendotu eta arrazionalizatzeko uztailaren 15eko 24/1997 Legea sortu zen. 24/1997 Legeak aldaketa handiak eragin zituen erretiro pentsioa arautzeko oinarrian.

IV.6. ESPAINIAKO GERONTOLOGIA PLANA (1992-1997)

Espainiako Gerontologia Planaren helburua zaharrei buruzko gizarte politika harmonikoki gartzeko esparrua sortzea izan zen, eta bost ataletan banatu zen: 1) pentsioak, 2) osasuna eta osasun laguntza, 3) gizarte zerbitzuak, 4) kultura eta aisia eta 5) parte hartzea.

Nabarmentzekoa da, 1998an, Plana amaitu ondoren, Zaharren eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak (IMSERSOK) berak ebaluatu egin zuela:

– Lehenik, pentsioei dagokienez, helburu nagusien zati handi bat bete egin zen: kontribuziozkoak ez diren erretiroaldiko pentsioen plana osatuta dago, baliabide nahikoak ez dituzten eta beren ardurapean ezkontidea duten 65 urtetik gorako kontribuziozko gutxieneko pentsioak parekatuta daude eta pentsioen balioa automatikoki handitzen da. Alabaina, bertze arazo batzuk konpontzeke daude oraindik: pentsiorik txikienen zenbatekoa handitzea eta, batez ere, egungo aldaketa demografikoek epe laburrean arazoak ekarriko dituztela eta, pentsioen egonkortasuna bermatzea.

– Bigarrenik, osasunari eta osasun laguntzari dagokienez, zaharrendako lehen mailako laguntza-
ren eta laguntza espezializatuaren maila aski ona da, osasun zerbitzuak berrantolatu egin zituztelako eta botikak doakoak direlako; dena dela, doakotasuna auzitan jarri dute azken hilabeteotan. Errehabilitazio laguntzen alorrean, ordea, bada gabeziarik, zaharrez ari garela, askoz ere handiagoak izan behar dutelako eta garestiagoak direlako.

– Hirugarrenik, gizarte zerbitzuei dagokienez, arazo gehiago daude alor jakin batzuetan. Gomen-
dioak zioen 100 zaharreko 3,5 toki izan behar direla zahar etxeetan, baina oraindik ez dira heldu batez bertzeko horretara: autonomia erkidego guztietako batez bertzekoa 2,83 tokikoa da, eta zenbait erkidegori asko falta zaie finkatutako helburua lortzeko; erraterako, Galiziako, Murtziako eta Madrilgo batez bertzekoak 1,52, 1,96 eta 2,27 tokikoak dira, hurrenez hurren. Bestalde, zahar etxeen, klubien eta antzeko erakundeen kopurua nabarmen handitu da, baina ez daude ondo banatuta hiriak ez diren udalerrien edo ertainak diren artean.

– Laugarrenik, parte hartzeari dagokionez, argi eta garbi dago azken urteotan nabarmen ugartu direla zahar elkarteak, eta 1994an Zaharren Espainiako Kontseilua sortu zen, baina oraindik halako joera dago, zaharren eskubideak modu aktibo batean babesteko baino gehiago, zerbitzuen mende egoteko.

– Azkenik, kulturari eta aisialdiari dagokienez, egoera gatazkatsua da. Kultur eta hezkuntza ekimenak gora egiten ari dira, lehen baino gehiago, baina, Espainiako Gerontologia Plana ebaluatzeko txostenak berak dioenez, “zaharren aisia ez da bideratzen halako jardueretan parte hartzera, agian, egungo zaharrek aukera gutxi izan zituztelako gaztaroan hezkuntza eta kultur aldetik aberasteko”. Are gehiago, aisiaren alorreko arazo

nagusiak turismoarekin lotuta daude neurri handi batean, eta azken urteotan termalismo programa batu zaie.

IV.7. ZAHARRENDAKO EKINTZA PLANA (2003-2007)

2003ko abuztuaren 29an, Ministro Kontseiluak Zaharrendako Ekintza Plana (2003-2007) onartu zuen. Horretarako, nazioarteko printzipio, plan eta programa nagusik eta zahar elkarteen, Zaharren Espainiako Kontseiluaren, autonomia erkidegoen, Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkartearen, Udalen eta Probintzien Espainiako Federazioaren, GKEen eta abarren iradokizunak hartu zituen kon-
tuan.

Planaren egitura lau atalek, hamar helburuk eta 38 estrategiak osatzen dute, eta 138 neurri proposatzen ditu guztira.

Honako hau da Planaren egitura eskematikoa:

I. ATALA. AUKERA BERDINTASUNA

– 1. helburua: zaharren autonomia eta zaharrek erkidegoan guztiz parte har dezaten bultzatzea, zahartze aktiboaren printzipioetan oinarrituz.

– 2. helburua: mendekotasun egoeran dauden zaharrak babesteko politiketan aurrera egitea.

II. ATALA. LANKIDETZA

– 1. helburua: administrazioen artean lankidetzaren mekanismo edo bitarteko egonkor eta iraunkorrrak sortu eta egungoak hobetzea, elkarlanean lortu beharrekoak diren helburuak lortzeko.

– 2. helburua: gizarte zibilarekin elkarlanean aritzeko eta parte hartzeko mekanismoak sortzea.

– 3. helburua: nazioartean lankidetzan aritzeko mekanismo eraginkorrak sortzea zaharren alde.

III. ATALA. PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA

– 1. helburua: profesionalen prestakuntza eta gaikuntza sustatzea.

– 2. helburua: prestakuntza programak egitea, zaintzaile ez-formalak hobeto gaitzeko.

IV. ATALA. INFORMAZIOA ETA IKERKUNTZA

– 1. helburua: gizarteko sektore guztiek zaharrei buruzko informazio egokia biltzea izan dezaten ziurtatzea, ikuspegi bateratu batetik.

– 2. helburua: Zaharren Behatokiaren bidez, interesa duten erakunde publiko eta pribatu guztiei zahartzearen inguruko hainbat alorri buruzko informazio nahikoa, baliozkoa eta konparatzeko modukoa bermatzea.

– 3. helburua: gerontologiari buruzko diziplinar-teko ikerkuntza eta, Espainian eta nazioartean, alor honetako esperientziak ezagutarazi egin daitezzen bultzatzea.

Ilido orokor bakoitza hainbat helbururen eta neurriren bidez gauzatu behar da, eta Planak zer erakundek gauzatu behar dituzten zehazten du.

IV.8. 39/2006 LEGEA, ABENDUAREN 14koa, MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ETA HAIEN SENIDEEN AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATU ETA HAIK LAGUNTZEARI BURUZKOA

Mendekotasun egoeran dauden pertsonen eta haien senideen autonomia pertsonala sustatu eta haiek laguntzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ("Mendekotasunari buruzko Legea" delakoak) Autonomia Sustatzeko eta Mendekotasunari Aurre Egiteko Sistemaren oinarriak finkatzen ditu.

Legeak hiru mendekotasun mota bereizten ditu:

– I. mailakoa, txikia. Pertsonak, egunean behin gutxienez, laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarriko zenbait gauza egiteko.

– II. mailakoa, handia. Pertsonak egunean bitan edo hirutan behar du laguntza eguneroko bizitzako oinarriko zenbait gauza egiteko, baina ez da beharrezkoa zaintzailea etengabe egotea.

– III. mailakoa, larria: Pertsonak egunean hainbatetan behar du laguntza eguneroko bizitzako oinarriko zenbait gauza egiteko, eta, autonomia psikikoa edo fisikoa erabat galdu duela-eta, zaintzailea etengabe egotea halabarrezkoa da.

Era berean, mendekotasun maila bakoitzaren barruan bertze bi maila daude, pertsonak zenbaterainoko autonomia duen eta zenbaterainoko laguntza behar duen. Autonomia erkidego bakoitzak izendatzen duen ebaluazio organoak egin behar du pertsona bakoitzaren mendekotasun mailari buruzko irizpena, eta zer laguntza behar duen ere zehaztu behar du. Ebaluazioaren arabera hasiko dira mendekotasun egoeran dauden pertsonak Legearen onuradun izaten. Izan ere, Legea pixkana-pixkana sartuko da indarrean:

– 2007an III. mailako mendekotasun egoeraren 1. eta 2. mailan dauden pertsonak izanen dira onuradun.

– 2008an eta 2009an II. mailako mendekotasun egoeraren 2. mailan dauden pertsonak ere izanen dira onuradun.

– 2010ean eta 2011n, II. mailako mendekotasun egoeraren 1. mailan dauden pertsonak.

– 2012an eta 2013an, I. mailako mendekotasun egoeraren 2. mailan daudenak.

– 2014an eta 2015ean, I. mailako mendekotasun egoeraren 1. mailan daudenak.

Eskariari aurre egiteko, Autonomia Sustatzeko eta Mendekotasunari Aurre Egiteko Sistema eta Autonomia Sustatzeko eta Mendekotasunari Aurre Egiteko Sistemaren Lurraldeko Kontseilua sortzea pentsatu dute. Lurraldeko Kontseilua Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak eta autonomia erkidegoak osatzen dute, eta mendekotasun egoerak ebaluatzeko irizpide objektiboak (mendekotasun baremoa) prestatzeaz arduratzen da.

Legeko "Zioen Azalpenak" atalak dioenez, Autonomia Sustatzeko eta Mendekotasunari Aurre Egiteko Sistemak ongizate estatuko laugarren habea eraikitzen lagunduko du –bertze hirurak osasun sistema nazionala, hezkuntza sistema eta pentsio sistema dira–, eta honako laguntza hauek osatuko dute:

– Mendekotasun egoerei aurrea hartzeko zerbitzua.

– Urrutiko laguntza zerbitzua.

– Etxeko laguntza zerbitzua.

– Eguneko eta gaueko zentro zerbitzua.

– Zahar etxeko laguntza zerbitzua.

Onartu zutenean, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak erran zuen, Legeari esker, espero zuela 2015ean 300.000 bat lanpostu sortzea, abian jartzen diren zerbitzu berrietan aritzeko, eta Barne Produktu Gordinak % 0,28 gora egitea.

Gizarte Gaietako Departamentuak berak, ordea, erran zuen mendekotasunari aurre egiteko sistema gizarte ongizateko estatuaren laugarren habetzat hartzea okerra dela neurri batean. Izan ere, bai Erkidegoko arauak eta bai gizarte zerbitzuetan adituak bat datoz laugarren habea gizarte zerbitzuek osatzen dutela eta mendekotasunari aurre egiteko sistema haien zati bat baino ez dela; alegia, ikuskera zabalagoa dute.

Bestalde, izan da arazorik jada Legea aplikatzeko: ez daude profesional nahikoak Legeak helburu dituen zerbitzuetan aritzeko. Espainiako administrazioa eta autonomia erkidegoak sistemak etorkizunean zer espezialista beharko dituen iragartzen ari dira, baina profesionalen eskasia bereziki larria da erizaintzaren eta gizarte laguntzaren alorrean, eta medikuekin gauza bera gertatuko dela espero dute.

V. KAPITULUA. ZAHARREN ESKUBIDEAK NAFARROAN

Zaharren eskubideak babestu eta sustatzeko bitartekoen bilakaera, oro har, aurreko ataletan azaldutakoaren antzekoa izan da Nafarroan. Hala ere, zehatzagoa izan da gizarte laguntza jakin batzuen alorrean, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen handiak dituelako gizarte zerbitzuen alorrean, eta erabili egin dituelako.

Azken bi hamarkadotan, Nafarroako Foru Komunitateak arau esparru zabala osatu du, gizarte laguntzen eta eskubideen zerrenda zehazteko, eta Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea onartu bitartean izan da indarrean. 15/2006 Foru Legea oso garrantzitsua izan da eta, oro har, honako laguntza eta zerbitzu espezifiko eta ez-espezifiko hauek xedatzen ditu zaharrentzat:

A) Oinarrizko gizarte zerbitzuak, udal barrutikoak, zaharrak gizarteratzeko eta zaharrek gizartean parte hartzeko, beren betiko ingurunean jarrai dezaten eta baztertuta egon ez daitezen bideratuz. Oinarrizko gizarte zerbitzuen bidez, honako zerbitzu orokor hauek ematen dira:

- Informazioa, ebaluazioa, orientazioa eta aholkularitza.
- Etxeko laguntza zerbitzua.
- Telefono bidezko larrialdietako zerbitzua.
- Gizarte lankidetzak.

B) Gizarte zerbitzu espezializatuak. Zaharrendik hurbilen dauden alorretan antolatzen dira, zaharrak ez deserrotzeko. Bertzeak bertze, honako hauek dira:

– Eguneko zentroak, bizikidetzak, gizarteratzea, parte hartzea, elkartasuna eta ingurunearekiko harremana sustatzeko. Honako zerbitzu hauek eman behar dituzte:

- Jantokia.
- Jarduera jarraituak goizez eta arratsaldez.
- Egunez egoteko unitateak, mendekotasun fisikoko edo psikikoko egoeran dauden zaharrei laguntza osoa emateko egunaren zati batean eta haiek zaintzen dituzten senideak eta zaintzaileak laguntzeko.

– Tutoretzapeko apartamentuak eta gizarte etxebizitzak. Autonomia pertsonal nahikoa duten zaharrek ostatu hartu eta elkarrekin bizitzeko unitate txikiak dira, eta etxebizitza arruntan erakinetan eta eremuetan daude.

– Zahar etxeak. Zaharrek, aldi baterako edo behin betiko, ostatu hartu eta elkarrekin bizitzeko zentroak dira, beren etheen ordezkioak, eta laguntza osoa ematen diete han.

– Familian hartzea. Helburua zaharrek senideen ohiko laguntza izatea da, kasuan-kasuan behar dutena, beren bizi kalitatea hobetzeko eta betiko giroan bizimodu independentea izateko, inguruko-engandik deserrotu gabe. Edonola ere, administrazio publikoak babestu egin behar ditu.

– Urrutiko laguntza zerbitzua (telefono bidezko larrialdietako zerbitzua).

– Diru-laguntzak eta laguntzak, baldintza jakin batzuk betetzen dituzten zaharren aldeko programak, neurriak eta tratamenduak finantzatzeko. Honako hauetarako eska daitezke:

- Protesiak eta ortesiak erosteko eta berritzeko.
- Bertze zahar etxe batzuetan (itundu gabeko zahar etxe pribatuetan) egonaldia ordaintzeko.
- Etxebizitza funtzionaltasun aldetik egokitzeko.
- Zaharren autonomia pertsonalari on egiten dioten bertze laguntza tekniko batzuk izateko.
- Erakundeek irabazi asmorik gabeko erakunde publikoei eta pribatuei laguntzak emateko, zaharrendako programak eta jarduerak egin ditzaten. Helburua zaharrak betiko ingurunean gelditzea da, sustapen eta gizarteratze neurrien bidez, bertze ostatu batzuen bidez, elkartasuna sustatuz, elkar laguntzeko taldeen bidez eta, oro har, zaharren bizi kalitatea hobetzeko jardueren bidez.

– Mendekotasun egoeran dauden pertsonen etxe laguntza zerbitzua izateko eta haiek zaintzen dituzten senideendako laguntzak.

Araudiaren bilakaera xehatu ezean, labur-labur bada ere, aurrekaririk esanguratsuenak azalduko ditugu:

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO MUGARRI NAGUSIAK ZAHARREN ESKUBIDEEN ALORREAN

1983. Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legea (gaur egun, indargabetua).

1990. 10/1990 Foru Legea, azaroaren 23koa, Osasunari buruzkoa.

1997. Gerontologia Plana (1997-2000).

1997. Nafarroako Adinekoen Kontseiluaren sorrera.

1998. 2/1998 Foru Legea, martxoaren 27koa, Boluntario lanari buruzkoa.

2000. 17/2000 Foru Legea, abenduaren 29koa, Zahar etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duena.

2001. Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioaren sorrera.

2002. 34/2002 Foru Legea, abenduaren 10ekoa, pertsona zaharrak familian hartzeari buruzkoa.

2003. 11/2003 Foru Legea, martxoaren 7koa, alar-gun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa.

2006. 15/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, Gizarte zerbitzuei buruzkoa.

V.1. GIZARTE ZERBITZUEI BURUZKO FORU LEGEA, 1983koa

Orduko arauak bezala, orokorra bazen ere, Gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legea berritzailea izan zen, eta, hari esker, Foru Komunitateko gizarte politikak nabarmen egin zuten aurrera. Gizarte politika askoren onuradunak zaharrak ziren.

Bertze autonomia erkidego batzuetako orduko arauak bezala, arau hau ere aukerakoa zen neurri handi batean, eta, hori dela-eta, xedatzen zituen laguntzak ez ziren hartzen herritarren benetako eskubide subjektibotzat.

Foru Legea aurrerapen handia izan zen hainbat laguntza onartzeko, eta, bertzeak bertze, honako hauek ezarri zituen:

a) Bizitzeko baliabiderik ez zutenendako banakako laguntza ekonomikoak.

b) Zahar ezgaituendako zahar etxeak.

c) Beren kasa moldatzen zirenendako zahar etxeak, bestelako ostatuak eta familiendako laguntza.

d) Etxeko laguntza zerbitzua eta beren ardura-pean zaharrak zituzten familiendako laguntza zerbitzua. Zahar etxeak eta klubak.

e) Erkidegoarentzat lan egiten ahal zuten zaha-rrendako egitekoak.

f) Aisialdi eta entretenimendu programak.

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea ematearen ondorioz, 1983ko legea indargabe gelditu zen; dena dela, aurrerago ariko gara 15/2006 Foru Legeaz.

V.2. OSASUNARI BURUZKO FORU LEGEA

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak ez ditu zuzenean aipatzen zaharrak, baina osasun laguntza orokortu beharra ezarri zuen, eta osasun laguntza Nafarroako herritar guztiei bermatu beharra, inongo diskriminaziorik gabe: osasun laguntza Nafarroako edozein udalerrian bizi diren herritar guztiei helarazi beharra.

Foru Legeak Osasunari buruzko Lege Orokorreko edukiak osatu, garatu eta Nafarroako egoerara egokitu zituen, herritarrek osasun zerbitzuekiko harremanetan dituzten eskubideei dagokienez, eta osasun sistemaren jardun osoa oinarritzen duten printzipioak ezarri zituen: osasunaren ikuspegi osoa, eraginkortasuna, zuzentasuna, deszentralizazioa, laguntzaren kalitatea eta giza alderdia, parte hartzea, askatasuna eta baliabideen plangintza eta erabilera.

V.3. NAFARROAKO GERONTOLOGIA PLANA (1997-2000)

1997an, Nafarroako Gobernuak Nafarroako I. Gerontologia Plana (1997-2000) onartu zuen. Honako hauek izan ziren Planaren printzipioak, oinarri juridikoak eta ereduak:

Printzipioak

– Gizarteak onartu behar du adin guztietako kideek osatzen dutela.

– Norberaren beharrak eta nork behar duen zaintza aldatu egin daitezke adinaren arabera, baina erkidegoak erantzun behar die betiere.

– Gizartetik bakartuta egonez gero, inboluzio prozesuak eta autonomiaren galera azkarragoak dira.

– Baliabideak mugatuta daude ezinbestean, eta, hori dela-eta, beren kabuz eskuratzeko zailtasun, pertsonal, sozial edo ekonomiko gehien dituztenei helarazteak izan behar du lehentasuna.

– Baliabideak mugatuta daudela-eta, kudeaketak zaila eta malgua izan behar du, erabiltzaileen gaitasun aldakorretara egokitzeko gai.

Oinarri juridikoak

– Erantzukizun publikoa.

– Subsidiarioritasuna.

– Parte hartzea.

– Plangintza.

– Koordinazioa.

– Berdintasuna.

Eredua

– Gizarteratzea

- Klubetan eta elkarteetan belaunaldi arteko jarduerak sustatzea.
- Erretiroaldirako prestatzeko ikastaroak eta nork bere burua laguntzeko jarduerak antolatzeta.
- Errenta mailarik txikienekoek turismo sozialeko eta termalismoa programetan parte hartzea izan dezaten ziurtatzea.
- Zaharrendako laguntza teknologikoei buruzko ikerkuntza proiektuak sustatzea NUPen.
- Belaunaldi arteko ekipamenduak (gizarte etxeak) finantzatzea lehentasunez.
- Inguruko erakunde publikoek eta sozialek ekipamenduon % 50 baino gehiago finantza dezaten galdegitea.
- Administrazioak honako irizpide hauek erabiltzea finantzatzeko:
 - =>Baliabide mota (gizarte etxea, zahar etxea edo zahar kluba)
 - =>Inguruko biztanleen kopurua.
- Administrazioak eremu atzeratueta ekipamenduak finantzatzea lehentasunez.

– Etxean jarraitzea

- Etxebizitzaren egokitzea.
- Independentzia ekonomikoa.
- Etxeko laguntza.
- Familiarendako laguntza.
- Belaunaldi arteko bizikidetzeta.

– Erakundeen eguneko zerbitzuak.

– Norberaren etxebizitza ez den bertze ostatu bat.

– Babes juridikoa.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua hasia da jada II. Gerontologia Plana prestatzen. 2007. urtearen amaierarako iragarri du, eta egin du dagoeneko horretarako analisisia eta oinarritzko diagnostikoa. 2005ean eta 2006aren hasieran, "Azterketa diagnostikoa eta eskariaren azterketa" egin zuen, Plana prestatzeko, eta azterketaren emaitza jendaurrean aurkeztu zuen Gizarte Ongizate Departamentuak, 2007ko otsailan. Aurkezpenean zehaztu zuenez, urte bereko azaroa da Plana egiten amaitzeko epearen muga.

V.4. NAFARROAKO ADINEKOEN KONTSEILUA

Nafarroako Adinekoen Kontseilua sortzeko azaroaren 24ko 344/1997 Foru Dekretuaren helburua zaharrek Nafarroako bizitza politikoan, sozialean, ekonomikoan eta kulturean parte har dezaten bultzatzea da, zaharrek elkarteak era ditzaten bultzatuz. Honako eginkizun hauek ditu Nafarroako Adinekoen Kontseiluak:

- Zaharrek 65 urtetik gorakoentzat ongizatea lortzeko plangintzen eta neurrien plangintzan, gauzatzean eta jarraipenean parte hartzea.

- Zahar elkarteen, erakundeen, zentroen eta zerbitzuen eta zaharren euren artean diru-laguntzak eta laguntzak banatzeko urteroko deialdiak arautzen dituen foru araudia zein den jakitea eta hura jakinaraztea.

- Nafarroako Gerontologia Planaren aplikazioa ikuskatu eta ebaluatzea eta, baldin badagokio, beharrezko zuzenketak proposatzea, zuzenean edo Planaren Jarraipena Egiteko Batzordeko ordezkarien bidez.

- Zaharren alorrean esku hartzeko proposamenak egitea eta, baldin badagokio, Nafarroako administrazio publikoei eta gizarte esparru honetan aritzen diren organismo, erakunde eta elkarte publikoei eta pribatuei helaraztea.

- Belaunaldi arteko harremanak, elkarteak eratzea, parte hartzea, elkartasuna eta, oro har, zaharren bizi kalitatea sustatzen dituzten neurriak, kanpainak, azterketak eta ikerlanak bultzatzea.

Nafarroako Adinekoen Kontseilua aldatu egin da, maiatzaren 7ko 39/2007 Foru Dekretuaren ondorioz: egun, zaharren parte hartzea lehengoa halako bi da. Horri esker, zaharrek gehiago parte hartzen dute Kontseiluan eta zaharrei buruzko politiketan.

V.5. BOLUNTARIO LANARI BURUZKO FORU LEGEA

Boluntario lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legeari esker, Nafarroako administrazio publikoek konpromisoa har dezakete gizarte zibilean boluntario lana eta elkartasuna sustatzeko, informazio ekintzen eta boluntario lana ezagutarazi eta aitortzeko kanpainen bidez, herritarren parte hartze pertsonala eta laguntza ekonomikoa eta soziala sustatuz, boluntarioak lan hobea egiteko prestatuz eta boluntario elkarteek programa jakinak egiteko laguntza teknikoa emanez; laguntza teknikoa emateko, baliabide materialak erabili ditzake, baina baita administrazioa langileak ere,

aldi baterako, lanaldi partzialean edo osoan, haien beharra behar bezala arrazoituz gero.

2/1998 Foru Legeari esker, Bolondres Lanera-ko Departamentuarterko Batzordea eta Nafarroako Bolondres Lanerako Kontseilua sortu ziren, eta erregistratzeko eta bestelako baldintzak ezarri zitzaizkien boluntarioei eta boluntario elkartei.

V.6. ZAHAR ETXEETAKO EGONALDIAK FINANTZATZEKO ERABILTZAILEEK ORDAINDU BEHARREKOA ARAUTZEN DUEN FORU LEGEA

Zahar etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duen abenduaren 29ko 17/2000 Foru Legeak honako hauek ezartzen ditu:

– Zahar etxeetako erabiltzaileek ordaindu beharrekoa.

– Administrazioak bereak ez diren zahar etxeetako erabiltzaileei haiek ordaintzeko ematen dizkien laguntzak.

– Egonaldien gehieneko prezioak, zahar etxearen arabera.

Foru Legearen ezaugarririk berritzaileena, eta polemika gehien piztu zuena, izan zen Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak bereak ez diren zahar etxeetako erabiltzaileei haietan ematen dizkieten zerbitzuak ordaintzeko ematen dizkien laguntzen zenbatekoa itzuli beharra; horretarako, erabiltzaileek berme pertsonalak edo erreala-ekin egin behar dituzte beren ondasunen gainean. Dena dela, erabiltzaileek frogatzen badute ezin dutela bermerik egin, administrazioak inola ere ez dio uko egiten zerbitzua emateari.

Bestalde, bermea etxebizitzaren gainekoa bada eta administrazioak erabili egin behar badu zorra kobratzeko, zorra bertan behera gelditzen da, etxebizitza beharrezkoa den bitartean zaharra bera zahar etxetik joaten denean bizitzeko edo ezkontidearen, bertze familia bat osatzen ez duten seme-alaben edo Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zinez behar duela jotzen duen bertze pertsona baten etxebizitza bakarra bada.

Azkenik, ezarritako prezioak ematen dituzten zerbitzuen kostu erreala baino txikiagoak dira, eta ezin dira izan Foru Legeak dioena baino handiagoak; hartara, erabiltzaileek inoiz ere dute ordaintzen Foru Legeak ezarritakoa baino prezio handiagoa egonaldiaren trukean, edo sortzen duten zorra ez da Foru Legeak ezarritakoa baino handiagoa.

V.7. NAFARROAKO PERTSONA HELDUAK TUTELATZEKO FUNDAZIOA

Irailaren 24ko 269/2001 Foru Dekretuari esker, Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatze-ko Fundazioaren estatutuak onartu zituzten. Fundazioaren helburua, legez ezgaituak direla-eta, Nafarroako Foru Komunitatearen esku utzitako zaharren zaintzari, kuradoretzari eta babes judizialari erantzutea da, eta honako eginkizun hauek ditu:

– Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren eta epaileek, legez ezgaituak direla-eta, Nafarroako Foru Komunitatearen esku utzi dituzten zaharrak lagundu eta zaintzea.

– Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren eta legez ezgaitzeko prozesuan dauden zaharrak epaileen aurrean babestu eta epaileek ezartzen dituzten eginkizunak egitea, babesgabe dauden ustezko ezgaituak eta haien ondasunak behin-behinean zaindu eta babesteko.

– Zaintzapeko pertsonaren ondasunak administrazioa, epaileek xedatzen dutenari jarraiki, haren mesedetan, zuhurtzia, kontserbazioa eta hobekuntza izanik printzipiotzat.

V.8. PERTSONA ZAHARRAK FAMILIAN HARTZEARI BURUZKO FORU LEGEA

Pertsona helduak familian hartzeari buruzko abenduaren 10eko 34/2002 Foru Legeak familia eratu ez baina, ohiko etxebizitza berean bizi diren zaharren arteko bizikidetzara arautzen du. Zehatz-mehatz, pertsona edo bikote batek zahar bati elkarrekin bizitzea eskaintzen diotenean sortzen diren egoerak arautzen ditu, aurrekoen eta ondoko-koen arteko harremanen antzekoak, hartzen dituzten zaharren ongizate orokorra hobetzeko, arazo ekonomikoak eta sozialak konpontzeko eta zahar etxe batean sartu behar ez izateko aukera bat emateko.

Arauk zaharra aldi baterako eta betirako hartzea arautzen du, eta zaharrak hartzeko ituna egiteko, eta desegiteko, modua lantzen du, arrazoiak eta ondorioak kontuan hartuz.

V.9. ALARGUN PENTSIOTARAKO LAGUNTZA BEREZIEI BURUZKO FORU LEGEA

Alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko martxoaren 7ko 11/2003 Foru Legeak Gizarte Segurantzako laguntza osatuko duen laguntza bat emateko baldintzak arautzen ditu; bertze laguntza Gizarte Segurantzakoak ez diren funtsak erabiliz ematen denez gero, ez du Gizarte Segurantzako kutxa bakar- ra hautsarazten eta ez du inolako zerikusirik araubide ekonomiko harekin.

Hau da, helburua ez da Gizarte Segurantzaren esparrua handitu edo osatzea, ezaugarri jakin eta bakar batzuk dituzten pertsonen egoerara egokitzea baizik.

Laguntza osagarriaren zenbatekoa alargun pentsioen onuradunen baliabide ekonomikoak osatu eta pentsioen balioa lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100 izateko beharrezko zenbatekoa da, eta emanen zaie gizarte babeseko sistema publikoko gutxieneko osagarria hartzeko eskubidea izateko baldintzak betetzen dituztenei, sistema horretan urtero ezartzen diren kapital zein lan errenten mugen barnean. Pentsioaren zenbatekoa gutxieneko alargun pentsioaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoen artekoa bada, laguntza osagarriaren zenbatekoa bi zenbateko horien arteko aldea izanen da, kapital zein lan errenten bidez lortutako bestelako diru-sarrereren mugak kontuan hartuz betiere.

Laguntza osagarriaren onuradun bakoitzari eman beharreko zenbatekoa urtero-urtero arautzen da.

Osagarria eman beharra 2007ko urtarriletik dago indarrean.

V.10. GIZARTE ZERBITZUEI BURUZKO FORU LEGE BERRIA, 2006koa

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen helburu nagusiak gizarte-ko talde guztietan lortzekoak dira, baina, ikusiko dugunez, zaharrei buruzko politiken esparrua eratzeko egokiak dira bereziki. Hain zuzen ere, honako hauek dira:

- Bizi kalitatea hobetu eta pertsona guztien normalizazioa, parte hartzea eta integrazioa sustatzea politika, ekonomia, lan, kultur eta hezkuntza arloan.

- Pertsonen, familien eta taldeen autonomia sustatzea.

- Pertsonen eta taldeen arteko bizikidetzaren bideratzea.

- Gizarte kohesioa eta elkartasuna sustatzea.

- Pertsonak eta taldeak bazter gelditzen diren egoerei aurrea hartu eta erantzutea.

- Mendekotasunaren eta oinarriko baliabideen gabeziaren ondoriozko beharrei erantzutea.

- Erkidegoak gizartearen eta, bereziki, talderik ahulenak ordezkatzen dituzten erakundeen beharrei erantzuten parte har dezan bultzatzea.

- Gizonezkoen eta emakumezkoen gizarte ongizatearen artean dauden ezberdintasunak

desagerraraztea eta, horretarako, genero ikuspegi erabiltzea planak eta programak diseinatu eta gauzatzeko.

- Gizarte zerbitzuetan esku hartzen duten lanbideetako kode etikoek gizarte laguntzari buruz xedatzen dituzten printzipio etikoak errespetatu egin daitezen begiratzea.

15/2006 Foru Legeak ekarri duen aurrerapen nagusia izan da aitortzea pertsonak eskubide subjektiboa dutela, ezartzen diren baldintzetan, gizarte zerbitzu orokorren edo tokiko gizarte zerbitzuen zorroetako gizarte zerbitzuak eman diezazkieten.

Gizarte zerbitzuen sistema gobernatzen duten printzipioak ere oso aproposak dira: guztiendako izatea, erantzukizun publikoa, berdintasuna, elkartasuna, hurbiltasuna eta deszentralizazioa, herritarren parte hartzea, norberaren beharretara egokitutako laguntza osoa, aurrea hartzea, normalizazioa, autonomia pertsonala sustatzea, plangintza eta ebaluazioa, administrazioen arteko koordinazioa eta lankidetzaren kalitatea eta boluntario lana sustatzea.

Foru Lege berriak herritarrek parte hartzearen alde egiten du, uste baitu gizarte eragileek, zerbitzuen erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek helarazten ahal dituztela hobekien gizartearen beharrak.

Foru Legearen berrikuntza nagusietako bat gizarte zerbitzuen zorroa da, eta laguntza bermatuek eta ez-bermatuek osatzen dituzte.

Laguntza bermatuak eskubide subjektibotzat galdegin ahal dira, zorroa arautzen duen arauak dioen baldintzetan, eta, administrazioak laguntzarik ematen ez badu, administrazioarekiko auzien jurisdikziora joko ahalko da.

Aitzitik, laguntza ez-bermatuak eskuratzeko, zorroa arautzen duen arauak ezarritakoari jarraitu behar zaio, aurrekontuetan dagoen diruaren araberako betiere.

Zaharrei dagokienez, gizarte zerbitzuen zorro orokorretan honako laguntza bermatu hauek sartu behar dira, gutxienez:

- Espainiako legediak mendekotasun arloan gutxienezko zatitza jotzen dituen laguntzak.

- Mendekotasuna, familiarteko gatazka larria edo familiarteko euskarri ezegokia dela-eta beren etxean jarraitu ezin duten pertsonak zahar etxe batean bizi ahal izatea, aldi baterako edo betiko.

- Nahitaez ezarri beharreko oinarriko gizarte zerbitzuetako programak, harrera, orientazio, aholkularitza, ebaluazio eta egoera sozialaren edo

gizarte eta hezkuntza arloko egoeraren diagnostiko zerbitzu teknikoak barne.

– Harrera eta orientabide sozialerako programa

=>Gizarte zerbitzuen sistemako laguntza teknikoek eta ekonomikoek eta babes sozialeko gainerako sistemetako laguntzez baliatu ahal izatea.

– Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta haiek laguntzeko programa

=>Etxeko laguntza zerbitzua, udal esparrukoa.

– Lehen mailako laguntzako gizarteratze programa

=>Tokian-tokian gizarteratzen laguntzea, gizarteratze akordioen bidez, aldean arteko konpromisoaren adierazgarri diren aldetik.

– Oinarrizko errenta ematea.

– Larrialdi sozialeko laguntzak, oinarrizko premiei erantzun egin dakien ziurtatzeko laguntza ekonomiko bereziak diren aldetik.

Gainera, 15/2006 Foru Legeak gizarte zerbitzuen kalitatearen aldeko apustu handia egin zuen. Horretarako, kalitate planak egiten ditu lau urtean behin, diru-laguntzak emanen dizkie gizarte zerbitzuetako erakundeei zerbitzuak etengabe hobetu ditzaten bultzatzeko eta zerbitzuak baimendu eta homologatzeko sistemak sortuko ditu, kalitate irizpide objektiboetan oinarrituz.

Foru Legearen helburua da parte hartzea oinarritzkoa izatea gizartean esku hartzeko politikak egiten dituztenean, eta organoetako parte hartzea, arauak egiteko parte hartzea eta zerbitzuetako parte hartzea sendotzea.

Azkenik, nabarmendu beharra dago Foru Legeak plangintzaren alde egiten duela; zehazki, plan sektorialak ez ezik, gizarte zerbitzuei buruzko plan estrategikoak egitearen alde eta Nafarroako aurrekontu orokorren kontura azpiegiturretan egiten diren inbertsio guztiak plangintzari lotzearen alde.

V.11. BERTZE ARAU INTERESGARRI BATZUK

Honako hauek zaharren eskubideei eta zaha-
rendako laguntzei buruzko arau bereziki interesgarriak dira:

a) 209/1991 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa, azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duena. Zahar etxe eta zerbitzu motak definitzen ditu, eta baimena lortzeko betebeharrak eta baldintzak. Dena dela, garrantzitsuena da erabiltzaile-

en eskubideak ezartzen dituela eta haiek, parte-hartze kontseiluen bitartez, zahar etxeetan parte hartzeko modua arautzen duela.

Hain zuzen ere, honako eskubide hauek onartzen ditu:

– Laguntzak eskuratzeko eskubidea, jaiotzan, arrazan, sexuan, erlijioan, iritzian edo bestelako ezaugarri edo gorabehera pertsonaletan edo sozialean oinarritutako diskriminaziorik gabe.

– Laguntzez baliatzeko eskubidea, pertsonen duintasuna urratu gabe.

– Erabiltzailearen gorabeheren eta ezaugarrien araberrako laguntza izateko eskubidea.

– Txostenetan ageri diren datu pertsonalak isilpekoak izateko eskubidea.

– Informazio eskubidea, Foru Legeak ezartzen dituen mugen barnean.

– Kexatzeko eskubidea, erabiltzaileen esku jarritako erreklamazio orrien bidez.

– Parte hartzeko eskubidea, Foru Dekretuak ezartzen duen moduan.

Gainera, bereziki garrantzitsu da zahar etxe diren zentroetan honako eskubide hauek errespetatzea:

– Higiene eta osasun arloan laguntza egokia izateko eskubidea.

– Nor bizi den zahar etxea norberaren etxetat hartzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren arabera hortik ondorioztatzen diren berme guztiak barne.

– Intimitate eskubidea.

– Kanpokoekin zuzenean eta bakarka komunikatzeko eskubidea.

b) 168/1990 Foru Dekretua, ekainaren 28koa, gizarte zerbitzuen alorrean banakoendako eta familiendako laguntzak arautzen dituena. Foru Dekretuaren xedea banakoendako eta familiendako laguntza ekonomikoen araubidea eguneratu eta bateratzea da, eta ahalik eta onuradun gehien baliatzea haietaz.

c) 126/1998 Foru Dekretua, apirilaren 6koa, hirugarren adinekoen laguntza premia neurtzeko metodo ofiziala onesten duena. Bitarteko komuna sortu zuen, gizarte zerbitzuen erabiltzaileak beren kasa zenbateraino molda daitezkeen edo bertzeren beharrik duten ebaluatzeko.

d) 120/1999 Foru Dekretua, apirilaren 19koa, oinarrizko errenta arautzen duena.

e) 11/2002 Foru Legea, maiatzaren 6koa, gaitxoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituena.

f) 140/2003 Foru Dekretua, ekainaren 16koa, aurretiazko borondateen erregistroa arautzen duena.

g) 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, dirulaguntzei buruzkoa. Erabilgarritasun publikoko edo interes sozialeko jarduerak sustatzeko, Nafarroako aurrekontu orokorren kontura ematen diren dirulaguntzei aplikatu beharreko araubide juridiko orokorra ezarri zuen.

VI. KAPITULUA. ZAHARREN ESKUBIDEEN ETA BETEBEHARREN GUTUNAK

VI.1. AITZINSOLASA

Nazioarteko Federazioak Zaharren Eskubideei eta Ardurei buruzko Adierazpena kaleratu zuen 1992an, baina Espainian 2002an hasi ziren zaharren eskubideak berriaz eta esplizituki aitortu beharraz hitz egiten, Madrilen Zahartzeari buruzko Nazio Batuen Munduko II. Biltzarra egin zutenean.

Hain zuzen, 2002an jazo ziren lehenengo ekimenak: hainbat erakundek dekalogoak sustatu zituzten, hala nola, Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkarteak eta Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak.

Eskubideen eta betebeharren lehenengo gutuna urtebete geroago osatu zuten, eta Kataluniako Generalitateko Ongizate eta Familia Departamentuak sustatu zuen: “Carta de Drets i Deures de la Gent Gran de Catalunya” izena du.

Espainiako Zahar Elkarten Konfederazioak ere egin du proposamenik, 2005ean: “Zaharren Eskubideen eta Betebeharren Gutunaren oinarriak”. Diputatuen Kongresuko alderdi politiko guztiak eta Espainiako Gobernuari helarazi die, eta oihartzun handia izan du.

Labur-labur, esperientzia horiek guztiak berri-kusiko ditugu.

VI.2. ZAHARREN ESKUBIDEEN DEKALOGOIA. ESPAINIAKO GERIATRIA ETA GERONTOLOGIA ELKARTEA

Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkarteak 2002ko irailean prestatu zuen dekalogoia oso berritzailea izan zen, Osasunaren Munduko Erakundearen espiritua bere egin eta gizarte zahartzeari baikortasunez aurre egiten baitio.

Nabarmen, zahartze aktibo eta osasuntsua sustatzearen alde egiten du, gaur egun zaharrak gutxietsi eta diskriminatzea eragiten duten estereotipo sozialak zalantzan jartzen ditu eta gaurko zaharrek ezaugarri berriak dituztela adierazten du.

Honako hau da dekalogoia:

1. Espainiako biztanleria hain zaharra izatea mugargi historikoa da.

2. Zahar orok zahartzarora osasuntsu iritsi izanaz harro egon behar du.

3. Zahartzaroa aldi ona izan daiteke bizitzan, bertze edozein adina.

4. Ez da bidezkoa zaharren beldur izan gaitzen bultzatzea.

5. Adina dela medio diskriminatzeko modu guztiak desagerrarazi egin behar dira.

6. Mendekotasuna ez da adinaren ondorio.

7. Litekeena da mendekotasunaren maiztasuna eta larritasuna txikiagotzea.

8. Laguntza geriatrikoa oinarritzko eskubidea da.

9. Mendekotasunari buruzko lege bat behar da, bidezkoa izanen dena eta familiak laguntzeko balioko duena.

10. Ez dago zertan zahartzaroa amaierarekin lotu.

VI.3. ZAHARREN ESKUBIDEEN DEKALOGOIA. GIZARTE ONGIZATEKO EUSKAL KONTSEILUA

Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak zaharren eskubideen dekalogoia egin zuen, 2002an, Zaharren Batzorde Sektorialaren bitartez, eta Batzordea administrazioaren, gizarte erakundeen, elkargo profesionalen eta sindikatuen ordezkariak eratu zuten.

Dekalogoia Zaharren Giza Eskubideen Aldarrikapenak ezarri printzipioei jarraitzen zaie –Aldarrikapena Nazio Batuen Biltzar Nagusiak onartu zuen, 1991n–, eta Estatutuko eta Espainiako Konstituzioko aginduak ere hartzen ditu kontuan.

Honako hau da dekalogoia:

1. Zaharrek eskubidea dute beren bizimodua askatasunez aukeratu eta bizimodu independentea izateko, betiko giroan, nahi eta ahal duten bitartean.

2. Zaharrek eskubidea dute familiek lagundu ditzaten eta familiarekin eta erkidegoarekin harremanetan jarraitzeko.

3. Zaharrek eskubidea dute duintasunez trata ditzaten, adinean, sexuan, erlijioan, arrazan edo jatorri etnikoan, ezgaitasunen batean edo bertze gorabehera pertsonal batean oinarrituta bereizi gabe, eta egiten duten ekarpen ekonomikoari begiratu gabe balioets ditzaten.

4. Zaharrek eskubidea dute bizitza publikoan, sozialean eta kulturean parte hartzeko eta haien ongizatean eragina duten politikak formulatu eta aplikatzen parte hartzeko, bai banaka eta bai zahar elkarten bidez.

5. Zaharrek eskubidea dute diru-sarrera nahikoak izateko, aldian-aldian eguneratzen diren pensio egokien bitartez.

6. Zaharrek eskubidea dute agintari publikoek osasunaren, gizarte ongizatearen, etxebizitzaren, kulturaren eta osasunaren alorreko haien arazoei erantzun diezaieten, haien ongizatea sustatzeko.

7. Zaharrek eskubidea dute familiak eta erakundeek bitarteko egokien bitartez lagundu ditzaten, babesa eta errehabilitazio zerbitzuak eman diezazkieten eta gizarte arloan eta adimen aldetik bizkor ditzaten, giro atsegina eta seguruan betiere.

8. Zaharrek eskubidea dute beren oinarrizko giza eskubideak eta askatasunak erabiltzeko, zaindu edo tratatu egiten dituzten erakundeetan bizi direnean; haien duintasuna eta intimitatea erabat errespetatu ditzaten; eta erakundeko bizi baldintzak erabakitzen parte hartzeko.

9. Zaharrek eskubidea dute legediak bai beraien eta bai beren ondasunak babes ditzan, familiak lagundu edo erakunderen batek lagundu.

10. Zaharrek eskubidea dute erkidegoari zerbitzu egin eta boluntario lan egiteko, haien interesetara eta ahalmenetara egokitzen diren postuetan.

VI.4. ZAHARREN ESKUBIDEEN ETA BETEBEHARRAREN KATALUNIako GUTUNA

Zaharren Eskubideen eta Betebeharren Kataluniako Gutuna Kataluniako Generalitateko Ongizate eta Familia Departamentuak eta Zaharren Kataluniako Kontseiluak sustatu zuten, eta aitzindaria izan zen Espainian. Zaharren Giza Eskubideen Aldarrikapena eta Nazio Batuek zaharren eskubideei buruz zehaztutako printzipioak ditu oinarri, baita Oinarrizko Eskubideen Europar Batasuneko Gutuna ere, eta Zahartzeari buruzko Munduko II. Biltzarrak Plan Estrategikoaren harira finkatutako argibideei eta helburuei jarraitzen zaie.

Zahar elkarteek eta zaharrez osatutako batzorde aholku emaileek, elkargo profesionalak, unibertsitateek eta zaharren alorrean adituak diren pertsonak ere parte hartu zuten Zaharren Eskubideen eta Betebeharren Kataluniako Gutuna idazten.

Interes handikoa dela-eta, oso-osorik emanen dugu.



ZAHARREN ESKUBIDEEN ETA BETEBEHARRAREN KATALUNIako GUTUNA

DUINTASUNA

Hari esker, zaharrok duintasunez eta segurtasunez bizitzeko gauza izan behar dugu, eta inolaz ere ezin gaituzte esplotatu edo fisikoki edo psikikoki gaizki tratatu. Gainera, duintasunez tratatu behar gaituzte, eta ezin gaituzte bereizi adinean, sexuan, etnian, ezgaitasunen batean, egoera ekonomikoan edo bertze edozein gorabeheratan oinarrituta.

Eskubideak

Zaharrok honako eskubide hauek ditugu:

– Adinean, sexuan, etnian, ezgaitasunen batean, egoera ekonomikoan edo bertze edozein gorabeheratan oinarrituta bereiz ez gaitzaten; gure sineskerak, kultura eta hizkuntza errespetatu ditzaten;

eta diskriminatzailea ez den lege esparruak babes gaitzan.

– Gizarteak onartu egin gaitzan eta gure nortasuna, balioak eta erabakitzeko ahalmena errespetatu ditzan. Komunikabideek duintasunez, aniztasunez eta normaltasunez trata gaitzaten.

– Informazio nahikoa izatekoa, askatasunez erabakitzeko; legezko ordezkaria izendatzeko, ezgaitasunen bat badugu; aurretiazko borondateak errespetatu diezazkiguten; eta aurretiazko borondateak berrikusi eta baliogabetzeko.

– Gure gaitasunetara egokitutako oztopo fisiko eta zentzumenezkorik gabeko giroan bizitzeko; gure bizi baldintzen eta etxebizitzaren duintasuna ziurtatzeko; eta segurtasunari eta ongizate fisikoari, moralari eta espiritualari bide ematekoa, baita kalitateko laguntzari ere. Kaleratu egiten bagaituzte, duintasunez trata gaitzaten eta bizileku egoki bat izan dezagun.

– Nahikoa dugula eta duintasunez bizitzeko baliabide ekonomikoak eta sozialak izatekoa; bidezko pentsioak izatekoa, pobrezia edo genero arazoak ditugunok batez ere; tratu txarrak salatzea; eta herriaren hazkunde ekonomikoan parte hartzea.

– Premiazko egoerei erantzuteko, administrazioek baliabideak inbertitu eta neurriak har ditzaten eskatzekoa eta mendekotasunari, tratu txarrei, abusuei eta zabarkeriari aurre egiteko beharrezko laguntza, informazioa eta orientazioa izatekoa.

– Bizitza pribatua, familiarterkoa eta soziala izatekoa; non bizi garen, gure gogora egokitzea; gure irudia babestekoa; intimitatea; geure bereizgarriak babestekoa; duintasunez bizitzekoa; eta duintasunez hiltzekoa.

Betebeharrak

Zaharrok honako betebeharrak ditugu:

– Arrazoi bat ere ez dela-eta ez bereiztea; kulturekin, sineskerekin eta hizkuntzekin tolerantzia izatea; haiek onartzea; haiekin tratatzeko prest izatea; eta haiek errespetatzea.

– Norberaren bizi kalitatea eta etxebizitza zaintzea, ahal badugu betiere, eta dagozkigun arazoei buruz erabakitzen parte hartzea.

– Zaharrak (batik bat, emakumezkoak) duin-tzen esku hartzea.

– Tratu txarrak salatzea, bai gure eta bai bertze-ren aurkakoak.

– Egungo belaunaldiak etorkizuneko mundu duin eta bakezkoa uzteko konpromisoari eustea, garapen ekonomiko bidezko eta jasangarriari bide emateko.

INDEPENDENTZIA

Independentzia elikagai, ur, etxebizitza, janzki eta osasun laguntza egokiak izateko eskubidea da, soldatapeko lana egitekoa eta gaitu eta heztekoa.

Eskubideak

Zaharrok honako eskubideak ditugu:

– Bizilekua aukeratzekoa eta elikagai, etxebizitza, janzki eta osasun laguntza egoki eta kalitatekoak izatekoa.

– Diskriminaziorik gabe lan egin eta diru-sarrerak lortzekoa; lanean erabakitzea; gure gaitasunen, ezagutzaren eta esperientziaren arabera erretiro malgua hartzekoa; eta aurrez erretiratzea.

– Gizarte eta kultur arloko aukera berdintasunean oinarrituz, gizarte zibilak parte hartzeko aukera eman diezagun, geure borondatez, pentsamendu, iritzi eta adierazpen askatasuna eta askatasunez aukeratzeko eskubidea erabiltzeko.

– Mendekotasunari, tratu txarrei eta bertze egoera arriskutsu batzuei aurre hartzeko eta pertsona, familia eta gizartearen hezteko neurriak hartzea eskatzekoa, haien ondorioei aurre egiteko.

– Eguneroko bizitzan autonomiari eusteko, administrazioei, eremu fisikoaren egoera hobetuz eta egokituz, mugitzea bide emanaz eta oztipoak (fisikoak, entzutekoak, ikustekoak eta komunikatzekoak) kenduz, mendekotasunari aurre hartzeko programak gauzatzeko beharrezko baliabideak bidera ditzaten eskatzekoa.

– Oztipoen buruzko araudiak eta guztiondako diseinuaren printzipioak aplikatu egin daitezkeen, gure beharrak kontuan izanik betiere.

Betebeharrak

Zaharrok honako betebeharrak ditugu:

– Askatasunez hartzen ditugun erabakien gaineko erantzukizuna onartzea eta bertze pentsaera batzuk errespetatzea.

– Gure esperientzia ikaskuntzan barneratzea, gazteak lan munduan errazago sartzeko.

– Gure independentziari eusten laguntzeko helburua duen hezkuntza eta kultur eskaintzarekin irekiak izatea.

– Ingurumena eta natura errespetatzea eta arduraz eta errespetuz kontsumitzea.

NORBERAREN BURUA GAUZATZEA

Norberaren burua gauzatzeko oinarriak izan behar du zaharrok geure gaitasunak eta aukerak guztiz erabiltzea izatea, gizartearen hezkuntza, kultur, aisia eta aisialdi aldetik eta alde espiritualetik dituen baliabideak erabiltzea izanik.

Eskubideak

Zaharrok honako eskubideak ditugu:

– Gizartean gure gaitasun guztiak garatzekoa, bizitza osoan hezi eta hazteko prozesuari eutsiz, eta aisialdia emateko, parte hartzeko eta boluntario aritzeko geure proiektuak gauzatzekoa.

– Komunikatzeko askatasuna izatekoa; geure burua kudeatzeko ahalmena errespetatzea; gure nahiak adierazteko; eta, geure borondatez eta askatasunez, bizitza sozialean, ekonomikoan eta kulturean parte hartzea erabakitzea, bai landa eremuan eta bai hiri eremuan.

– Nork nahi duen pertsonarekin bizitzekoa, inolako diskriminaziorik gabe, eta intimitatezko harremanak izatekoa.

– Inguruan oztoporik izan ez dadin, gure burua gauzatzeko, eta informazioa eta teknologia berriak erabiltzeko mekanismoez baliatzekoa, gure burua garatzen laguntzeko.

Betebeharrak

Zaharrok honako betebeharrak ditugu:

– Gizarteko partaide aktibo izaten jarraitzea, gure gaitasunei eustea eta gizartearen eta erkidegoaren garapenari bide ematea, familian, herrian eta erakundeetan. Pertsonen ongizateari bide ematen dioten eginkizunei eustea eta gizartea gizalegean oinarrituta eraikitzea.

– Alor guztietan (elikadura, laguntza, etxebizitza, ekonomia, legedi, kultura, aisialdi... arloan) gure bizi kalitatea hobetzea helburu duten informazio eta prestakuntza prozesuetan aktibo izatea eta adin guztiendako gizarteari bide ematen dioten politikak eta neurriak diseinatzen esku hartzea.

– Bertzeren intimitatea errespetatzea.

LAGUNTZA

Zaharrok familiek zaindu behar gaituzte; gizarte, osasun eta laguntza zerbitzuak erabiltzea izan behar dugu; eta oinarrizko giza eskubideak eta askatasunak erabili behar ditugu, bai etxean eta bai zahar etxeetan eta erakundeetan.

Eskubideak

Zaharrok honako eskubideak ditugu:

– Kalitateko zerbitzuak eman ditzaten, ongizate ekonomikoa, soziala, psikologikoa, osasun eta laguntza arlokoa, juridikoa, kulturala eta prestakuntza eta aisialdi arlokoa ziurtatzeko.

– Administrazioek beren ardurapean zaharrek dituzten familiak laguntzeko neurriak eta programak abian jar ditzaten, diruz behar bezala hornituta, zaharrek familiarean bizitzen jarraitzeko eta familiek benetan laguntzeko, oinarritzat askatasuna, etika eta kalitatea izanik betiere.

– Diru-sarrera nahikoak izatekoa; pentsioak egokiak eta aldian-aldian eguneratuak izan daitezzen; norberaren behararen arabera, Gizarte Segurantzaren laguntzak izatekoa; eta kreditu eta aurrezki programez baliatzekoa.

– Osasunaren alorreko gure eskubideen eta betebeharren berri izatekoa, prebentzio eta ikerkuntza programen eta norberaren egoerara egokitutako oinarrizko elikadura eta higie programen onurak aprobetxatzekoa eta itxaron zerrendetan

eta errehabilitazio prozesuetan adina dela-eta bereiz ez gaitzaten.

– Laguntza programak erabiltzekoa eta autonomiari eutsi eta mendekotasun fisikoko, psikikoko edo/eta ekonomikoko egoeretan gure beharrei erantzuteko beharrezko laguntza izatekoa, baita tratu txarrak gertatzen direnean edo fase terminalean gaudenean ere, egoera sistematikoki ebaluatu ondoren betiere.

– Gizarte zerbitzuek eta gizarte eta osasun arloko zerbitzuek laguntza nahikoa, etikoa, koordinatua, kalitatekoa eta norberaren beharren arabera eman diezaguten; behar adina profesional gaituk lagun gaitzaten; eta gure zaintza erabaki eta diseinatzen parte hartzekoa.

– Laguntza juridikoa eta aholkularitza izatekoa; prozesu judizialean ordezkatu, aholkatu eta babestu egin gaitzaten; gatasketan bitartekariak izatekoa eta gatazkak konpontzeko aukera izatekoa; epaileek zinez babes gaitzaten; eta, ezgaitasunen bat badugu, izatezko tutore edo zaintzailea izenda diezaguten, gu geu eta gure ondasunak zaintzeko. Ezgaitasunak aldian-aldian berrikusteko eta baliogabetu egin ahal izan daitezten.

Betebeharrak

Zaharrok honako betebeharrak ditugu:

– Erkidegoaren baliabideak elkartasunez eta arduraz erabiltzea eta zerga betebeharrak betezea, sistema jasangarria eta zuzena izan dadin.

– Norberaren gaitasunaren arabera, nork bere burua hobetzeko eta norberaren autonomia handitzeko prozesuetan parte hartzea.

– Berdintasunik ezaren adierazgarri diren egoerak salatzea, laguntza printzipioak urratzen badituzte, eta aurre egin eta desagerraraztea.

PARTE HARTZEA

Guztiondako gizartearen esparruan, zaharrok modu aktibo batean parte hartu behar dugu gure ongizatean zuzeneko eragina duten politikak egiten, bertze belaunaldiekiko elkartasunean oinarrituta, eta printzipio hau elkartzeko askatasunaren ikuspegitik hartu behar da.

Eskubideak

Zaharrok honako eskubideak ditugu:

– Gure parte hartzea onartu egin dadin, gizarteko partaide garen eta bertze edozein herritarrek dituen eskubide eta betebeharrak berberak ditugun aldetik.

– Administrazioek laguntza ekonomikoa eman diezaguten, erkidegoan modu aktiboan parte har-

tzeko eta belaunaldi arteko jarduerak susta ditzaten, adin guztiendako gizartearen esparruan.

– *Etengabeko informazioa, orientazioa eta prestakuntza izatekoa, etengabe aldatzen ari den munduan parte hartzeko, eta kultur, lan, gizarte eta politika arloko bizitzan eta, egoki jotzen diren organoen bidez, erabakietan nabarmen parte hartzekoa.*

– *Kataluniako Autonomia Estatutuak, Espainiako Konstituzioak eta Oinarrizko Eskubideen Europar Batasuneko Gutunak onartzen dituzten eskubide politiko guztiak: bildu, manifestatu, auzi publikoetan parte hartu, hauteskundeetan parte hartu, politika eta sindikatu arloko bizitzan parte hartu, hautatuak izan, greba egin, banaka edo taldeka eskaerak egin eta elkartzeko eskubideak.*

– *Esperientzia eta ezagutza kontuan hartu eta gizartean areago parte har dezagun bultzatzeko neurriak abian jar daitezzen eskatzekoa eta erkidegoari zerbitzu egitekoa, boluntario lanaren, elkartasunaren eta gizalegearen bidez.*

VI.5. ZAHARREN ESKUBIDEEN ETA BETEBEHARREN GUTUNAREN OINARRIAK. ESPAINIAKO ZAHAR ELKARTEEN KONFEDERAZIOAREN PROPOSAMENA

2005ean, Espainiako Zahar Elkartearen Konfederazioak Espainiako VII. Biltzarra egin zuen, Madril, eta adinean oinarritutako diskriminazioari

ZAHARREN ESKUBIDEEN ETA BETEBEHARREN GUTUNA. ESPAINIAKO ZAHAR ELKARTEEN KONFEDERAZIOA

DUINTASUNA

Hari esker, zaharrok duintasunez eta segurtasunez bizitzeko gauza izan behar dugu, eta inolaz ere ezin gaituzte esplotatu edo fisikoki edo psikikoki gaizki tratatu. Gainera, duintasunez tratatu behar gaituzte, eta ezin gaituzte bereizi adinean, sexuan, etnían, ezgaitasunen batean, egoera ekonomikoan edo bertze edozein gorabeheratan oinarrituta. Azkenik, familiarrean bizitzeko eskubidea dugu, familiar lagundu eta eusteko, gizartearen habe bat den aldetik.

Eskubideak

- *Bereiz ez gaitzaten.*
- *Gizarteak onartu egin gaitzan.*
- *Erabakitzeke gure eskubidea errespetatu dezaten.*

Betebeharrak

Zaharrok honako betebeharrak ditugu:

– *Belaunaldi gazteagoei gure ezagutza eta esperientzia helaraztea. Lanaren, elkartearen eta boluntario lanaren bitartez, adin guztiendako gizartearen aldeko konpromisoari eustea.*

– *Gizarte osoari zaharren behar, eskari eta jarduerara espezifikoko jakinaraztea eta belaunaldi arteko harremanak sustatzea, konpromisoa hartuz gizartearekin eta nork bere buruarekin.*

– *Gizartea etengabe bilakatzearen ondoriozko erronka eta egoera berriei aurre egiteko prestakuntza.*

– *Auzi publikoetan modu demokratiko batean parte hartzea.*

– *Herritartasuna sustatzea, pertsona guztien eskubideak babestuz.*

buruz soilik aritu ziren. Orduan, “Zaharren Eskubideen eta Betebeharren Gutunaren oinarriak” aurkeztu zituzten, legezko araudia sustatzeko atariko gisa; horretarako, aurreko atalean aipatutako testuaren oinarritu ziren.

Honako hau da Zaharren Eskubideen eta Betebeharren Gutunaren testu osoa.

– *Komunikabideek tratatu duin, anitz eta normalizatua eman diezaguten.*

– *Informazioa izatekoa, erabakitzeke.*

– *Gure gaitasunetara egokitutako oztoporik gabeko inguruneetan bizitzeko eta bizi baldintza eta etxebizitza duina izatekoa.*

– *Nahikoa dugula eta duintasunez bizitzeko beharrezko baliabide ekonomikoak eta sozialak izatekoa.*

– *Bidezko pentsioak izatekoa.*

– *Pobreziari, bazterketari eta tratatu txarrei aurre egin dakien.*

– *Bizitza pribatua, familiarrekoa eta soziala.*

– *Intimitatea.*

– *Duintasunez bizi eta hiltzekoa.*

Betebeharrak

– *Ez diskriminatzea.*

– Gure bizi kalitatearen eta etxebizitzaren arduraren gure gain hartzea.

– Zaharrak (batik bat, emakumezkoak) duin-tzen esku hartzea.

– Bertzeren intimitatea errespetatzea.

– Egungo belaunaldiak etorkizuneko mundu duin eta bakezkoa uzteko konpromisoari eustea, garapen ekonomiko bidezko eta jasangarriari bide emateko.

– Familiarteko bizitza sendotzea, gizartea egituratzeko ardatza den aldetik.

INDEPENDENTZIA

Independentzia elikagai, ur, etxebizitza, janzki eta osasun laguntza egokiak izateko eskubidea da, soldatapeko lana egitekoa eta gaitu eta heztekoa.

Eskubideak

– Bizilekua aukeratzeko eta elikagaiak, etxebizitza, janzkiak eta osasun laguntza izatekoa.

– Diskriminaziorik gabe lan egin eta diru-sarrerak lortzekoa.

– Gizarte eta kultur arloan aukera berdina izatekoa, pentsamendu, iritzi eta adierazpen askatasuna eta askatasunez aukeratzeko eskubidea erabiltzeko.

– Mendekotasunari, tratu txarrei eta bertze egoera arriskutsu batzuei aurrea hartzekoa.

Betebeharrak

– Askatasunez hartzen ditugun erabakien gaineko erantzukizuna onartzea eta bertze pentsaera batzuk errespetatzea.

– Gure esperientzia lanerako ikaskuntzan barneratzea.

– Zahartzaroan ikaskuntza prozesuetan parte hartzea.

– Ingurumena eta natura errespetatzea eta arduraz eta errespetuz kontsumitzea.

NORBERAREN BURUA GAUZATZEA

Norberaren burua gauzatzeko eskubidea da zaharrok geure gaitasunak eta aukerak guztiz erabiltzea izatea; gizarteak hezkuntza, kultur, aisia eta aisialdi aldetik eta alde espiritualek dituen baliabideak erabiltzea izatea; eta entzun egin gaitzaten, horretarako ezartzen diren bideen bitartez.

Eskubideak

– Bizitza osoan hezi eta garatzeko.

– Aisialdia emateko, parte hartzeko eta boluntario aritzeko geure proiektuak gauzatzeko.

– Komunikatzeko askatasuna izatekoa; geure burua kudeatzeko ahalmena errespetatzea; eta bizitza sozialean, ekonomikoan eta kulturean parte hartzeko, bai landa eremuan eta bai hiri eremuan.

– Nork nahi duen pertsonarekin bizitzeko.

– Inguruan oztoporik izan ez dadin, gure burua gauzatzeko errazago izateko.

– Informazioa eta teknologia berriak erabiltzea izatekoa.

Betebeharrak

– Norberaren gaitasunaren arabera, gizarteko partaide aktibo izatea, pertsonen ongizateari eta gizartea gizalegean oinarrituta eraikitzeari bide emanez.

– Prozesuetan aktibo izatea eta adin guztien dako gizarteari bide ematen dioten politikak eta neurriak diseinatzen esku hartzea.

LAGUNTZA

Zaharrok familiek zaindu behar gaituzte; gizarte, osasun eta laguntza zerbitzuak erabiltzea izan behar dugu; eta oinarrizko giza eskubideak eta askatasunak erabili behar ditugu, bai etxean eta bai zahar etxeetan eta erakundeetan.

Eskubideak

– Kalitateko gizarte zerbitzuak eman ditzaten, ekonomia aldetik aski izateko.

– Osasunaren alorreko gure eskubideen eta betebeharren berri izatekoa.

– Itxaron zerrendetan eta errehabilitazio prozesuetan adina dela-eta bereiz ez gaitzaten.

– Laguntza programak erabiltzeko eta autonomiari eusteko beharrezko laguntza izatekoa gizarte eta osasun arloan.

– Laguntza juridikoa izatekoa.

– Legezko ezgaitasunen bat badugu, egiaz eta txeraz zain gaitzaten.

Betebeharrak

– Baliabideak elkartasunez eta arduraz erabiltzea.

– Nork bere burua hobetzeko eta norberaren autonomia handitzeko prozesuetan parte hartzea. Berdintasunik ezaren adierazgarri diren egoerak

PARTE HARTZEA

Guztiok barne hartzen gaituen, guztiondako gizartearen esparruan, zaharrok modu aktibo batean, talde gisa parte hartu behar dugu gure ongizatean zuzeneko eragina duten politikak eta jardunbideak ezartzen, bertze belaunaldiekiko elkartasunean oinarrituta, eta printzipio hau elkarrezeko askatasunaren ikuspegitik hartu behar da.

Eskubideak

– Gure parte hartzea onartu egin dadin, gizarteko partaide garen eta bertze edozein herritarrek dituen eskubide eta betebeharrak berberak ditugun aldetik.

– Administrazioek laguntza ekonomikoa eta teknikoa eman diezaguten, gizartearen aldeko proiektuetan parte hartzeko.

– Espainiako Konstituzioak, estatutuek, Oinarrizko Eskubideen Europar Batasuneko Gutunak eta Eskubideak Babesteko Europako Gutunak onartzen dituzten eskubide politiko eta sozial guztiak.

– Esperientzia eta ezagutza kontuan hartu eta gizarteko mugimendu orokorretan areago parte har dezagun bultzatzeko neurriak abian jar daitez

zen, hala nola, Enpresen Erantzukizun Sozial Korporatiboa.

Betebeharrak

– Bertze belaunaldi batzuei gure ezagutza eta esperientzia helaraztea.

– Gizarte osoari zaharren behar, eskari eta jarduera espezifikokoak jakinaraztea eta belaunaldi arteko harremanak sustatzea, konpromisoa hartuz gizartearekin eta nork bere buruarekin.

– Auzi publikoetan modu demokratiko batean parte hartzea.

– Herritartasuna sustatzea, pertsona guztien eskubideak babestuz.

– Munduko zahar guztien artean berdintasun handiagoa izan dadin lortzeko konpromisoa hartzea.

Espainiako Zahar Elkarteen Konfederazioak Gobernuari helarazi zizkion oinarriok, eta adierazi zuen zaharren eskubideak sustatzeko politika orok giza eskubideen behatokia, zaharrak ez diskriminatzeke bulegoa eta, arartekoaren erakundearen barnean, zaharren arartekoa izan beharko lituzkeela oinarri.

VII. KAPITULUA. HURBILKETA ZAHARREN EGOERARA GIZARTEAN. LEKUKOTASUNAK

Aurreko ataletan azaldu dugun esparruak agerian uzten du agintari eta instantzia nagusiek onartu egiten dutela zaharrak diskriminatzeko edo haien kontrako abusuak gertatzeko arriskua dagoela; halaber, zaharrek askotariko beharrak eta eskakizunak dituztela ageri du.

Dena dela, nahiko ikuspegi berria da: gehienez ere, duela hamarkada bat edo bi sortu zen, eta oraindik esperientzia gutxi izan dira Espainian eta Nafarroan zaharren eskubideen sustapenean.

Diskriminazioa gainditzeko borrokatzen diren gizarte mugimendu ororen baitan bezala, hainbat hamarkada igaro beharko dira aldaketa nabarmenak antzematen ditugun arte, eta hainbat fase gainditu beharko ditugu (adituek eta gizarteko talderik aurreratuenek arazoa zein den zehaztea, herritarrek pixkana-pixkana kontzientzia hartzea, etab.) zaharren eskubideak formalki onartu eta egiaz erabiltzen dituzten arte.

Ahalegin horretan, zaharrek erakundeen eta konpromisorik handieneko gizarteko taldeen laguntza behar dute, baina, zalantzarik gabe, zaharrek beraiek izan behar dute lehenak beren eskubideen kontzientzia hartzen, eta gizartearen bizitzan gero eta gehiago parte hartu behar dute.

Hain zuzen, Nafarroako zaharrek zahartzaroa nola bizi duten jakiteko asmoz, nola sentitzen diren eta haien eskubideak zenbateraino errespetatzen dituzten uste duten jakiteko, metodologiari buruzko atalean (II. kapitulu) aipatutako eztabaida taldeak osatu genituen.

Azalpena aberastu eta, alde batetik, nazioarteko eta Espainiako adierazpenen eta legeen eta, bertze alde batetik, zaharren iritziaren arteko aldea erakusteko, bi ikuspegiok batera landuko ditugu. Hartara, arazoaren laburpen tekniko txiki bat egiten dugu, eta, ondoren, zaharrek zuzenean emandako lekukotasunak, hitzez hitz, benetakoak transkribatuko ditugu.

Lekukotasunok emateko, egoki iritzi diogu aurreko ataletan azalduko printzipioei eta eskubideei jarraiki egituratzeari, errespetatu egin beharko genukeen eskubide bakoitza adituek edo zaharrek antzematen duten egoerarekin alderatzeko.

Ondoko orrialdeotan ikusiko dugunez, bada oinarrizko ondorio bat, inoiz ere ahaztu ezin duguna: zaharrek ez dute talde homogenea osatzen; ezin ditugu estereotipo baten barnean bildu. Aitzitik, haien tipologiak, ezaugarriak, izaerak, ideologiak, sineskerak, osasun egoerak, egoera ekonomi-

koak... hain askotarikoak dira, egiten dugun gogoeta orokor oro erredukzionista da ezinbestean. Dena dela, lehenago ere argitu dugu ez dugula txostena xehe-xehea izateko asmoa, ezta dogmatikoa ere; aitzitik, informazioa zabaldu eta kontzientzia harrarazi egin nahi dugu, bertzerik ez.

Hori dela-eta, nabarmendu beharra dago lekukotasun hauek guztiek ez dutela balio estatistiko edo zientifikorik eta ez dutela inor ordezkaten; ezin direla estrapolatu Nafarroan ditugun 100.000tik gora zaharren egoeraren berri emateko. Kontzientzia harrarazteko asmoz, zaharren sektorearen zati batek zer pentsatzen duen adierazi bertzerik ez dute egiten, haien hitzak txostenaren balizko hartzaileei heldu eta haien argitasunak eta umiltasunak zaharren kezkei buruz datuak eta ideiak emanen dizkietelakoan. Jakina, txostenean diogunak ezin ditu islatu gizartearen egiazko egoeraren alderdi guztiak, baina hura hurbildu eta txostenaren irakurleak errandakoari buruz hausnartzera bultzatu ditzake. Horixe da helburua, bertzerik gabe. Bestela, zehaztasun zientifiko handiagoa beharko genuke.

Nolanahi ere, zenbait iruzkin haztatu eta orekatzearren, zenbait datu estatistiko erantsi ditugu, zaharren baieztapenak moldatu, argitu edo osatzeko; datuok erakunde ofizialek eta, noiz edo noiz, guk geuk egindako inkestetatik ondorioztatu ditugu.

Gizarte Gaietako Departamentuaren azalpenak ere erantsi ditugu, zaharren egoera sozialaren gaineko ikuspegi hurbilagoa helaraztearen.

VII.1. DUINTASUNA ETA ERRESPETUA

Nazio Batuek Zaharren Giza Eskubideei buruzko Aldarrikapena kaleratu zuten, eta haren oinarritzko bost printzipioetako bat duintasuna da. Hari esker, zaharrek duintasunez eta segurtasunez bizitzeko gauza izan behar dute, eta inolaz ere ezin dituzte esplotatu edo fisikoki edo psikikoki gaizki tratatu, adina, sexua, arraza, jatorri etnikoa, ezgaitasunen bat, egoera ekonomikoa edo bertze edozein ezaugarri gorabehera; gainera, egiten duten ekarpen ekonomikoari begiratu gabe balioetsi behar ditugu.

Ildo horretan, Zahartzeari buruzko Madrilgo Nazioarteko II. Ekintza Planak hiru helburu edo gai estrategiko nagusi finkatzen ditu:

– Gizarteak zahartzaroari buruz duen ikuspegi hobetu beharra, zaharren aginpidea, jakintza, emankortasuna eta bertze ekarpen garrantzitsu batzuk areago aitortuz jendaurrean.

– Gizarteak oro har zahartzarora hautematen duen modua hobetu beharra.

– Zaharren kontrako abusu eta indarkeria mota oro desagerrarazi beharra.

– Pobreziaren aurkako gizarte babesa, pobrezari aurrea hartu eta hura desagerrarazi beharra, zahar guztiak gutxieneko diru-sarrerak izan ditzaten.

Ildo berean, Zaharrendako Espainiako Ekintza Planak (2003-2007) hainbat estrategia finkatu zituen:

– Gizarteak zahartzaroari eta zahartzeari buruz duen ikuspegia hobetu eta zahartzearen gaineko ikuspegi berri eta positiboa sustatu beharra, zahartzarora norberaren burua gauzatzeko eta nor gizartean gauzatzeko aukeraz betetako bizitzako aldia dela nabarmenduz.

– Zaharrei familian, erakundeetan eta gizartean ematen dizkieten tratu txarrak detektatu, ebaluatu eta desagerrarazteko programak abian jarri beharra.

– Zuzenbidearen eta bioetikaren alorreko eskakizunetan sakondu beharra, zaharren duintasuna ahal bezainbat babesteko.

– Zaharren egoera ekonomikoa hobetu eta kontribuziozkoak ez diren pentsioen zenbatekoa handiagotu beharra, legediak ezartzen dituen gutxienekoaren parekoak eta onuradunen oinarriko beharrei erantzuteko nahikoak izan daitezten.

A) Ikusgaitasuna eta gizartearen irudia

Jendea erretiratu egiten denean, bi gauza gertatzen dira: alde batetik, zaharrek gizartean nor izateari uzten diote, nortasuna lanak ematen zien aldetik, eta, bertze alde batetik, lan mundutik eta bizitza zibiletik "at" dagoen talde batean sartzen dira eta familiaren eta Estatuaren mende daude nolabait, gizarte laguntza eta laguntza ekonomikoa haiek ematen baitiete.

Alabaina, ez da beti hori gertatu. Lehen, zaharrek prestigio handia zuten, eta garrantzi handiagoa zuten gizartean.

Egia erran, neurri batean, fenomeno hori amaitu egiten ari da, eta zahar izatea gero eta gutxiago hartzen da pasibo izatetzat; gero eta gehiago, zahar izatea eta pertsona aktiboa eta parte hartzailea izatea bateragarria dela jotzen dugu.

Izan ere, ez dago zertan zahartzarora jarduerarik gabeko eta mendekotasunezko egoeratzat hartu. Estereotipo negatibo batzuek diote zahar izatea eta gaixo egotea baliokideak direla eta aurreiritziek diote zahartzaroak zahartasuna, inte-

resik eza eta ezgaitasuna dakartzala, baina, azterlan epidemiologikorik zehatzenek berretsi dutenez, 70 urtetik gorako % 80 aktiboa da eta bere burua nahiko du egunerokoan.

Estereotipoak aldatzea, ordea, ez da erraza, eta, oraindik, oharkabean bada ere, zaharrak ikusizintasunak ezaugarritzen duen gizartearen esparru batean daude.

Komunikabideek, bereziki, gazteengan jartzen dute arreta, eta azterketa ugari egiten dira haien jarreraren, balioen, beharren, nahien, arazoena... berri izateko. Komunikabideek tarte eta elkarrizketa ugari ematen dituzte emakumez aritzeko, haien kezkez eta bizipenez aritzeko, eta emakumeek gizarte eta lan arloan gero eta eragin handiagoa dutela nabarmentzeko. Helduen aisiaz eta aisialdiaz hitz egiten dugu, geureganatu egin dugun balio esanguratsu bat bailitzan. Zaharrek, baina, biztanleriaren ia % 20 osatzen badute eta epe luzean biztanleriaren heren bat eginen badute ere, nekez dute oihartzun positiborik komunikabideetan.

Zaharrak ez dira interesgarriak komunikabideetan, eta, bileretan sumatu genuenez, zaharrek beraiek gero eta iritzi okerragoa dute horri buruz:

– “Zebra bideetan harrapatzen gaituztenean bakarrik aipatzen gaituzte”

– “Sobera gauden irudipena dugu”

– “Ez dira ausartzen zaharrez gaizki hitz egiten, baina ez dute egiten ahaleginik gu laguntzeko”

– “Badut gogoan esaera bat; honela dio gutxi gorabehera: ‘Haurrak hunkitu egiten du, eta zaharrek, higuina sortu’”

Sarri, zaharrak komunikabideetan azaltzen direnean, haien irudia txarra da:

– “Telebistako iragarki batzuetan, zahar bat eta haur txiki bat ageri dira, eta zaharra haurra zaintzen ari dela irudikatzen dute. Ikusi egiten da”

Bertze batzuetan, berriz, zaharrak idealizatu egiten dituzte eta haien irudi faltsua sortzen dute; betiko gazte direla irudikatzen dute, gezurra izan arren, saltzeko bertzerik ez:

– “Nire ustez, komunikabideek helarazten duten irudiak golfean jolasten den eta ezin hobeto dagoen amerikar bikotea ageri du, betikotasuna, edertasuna, dinamismoa eta indarra transmititzen dituelako balio gisa. Berez, zaharrok ez gara horrelakoak, eta, horregatik, uste dut izan badela zaharren irudi bat, zaharren irudi bat saldu egiten dutela, eta zahartzearen berezko ezaugarri guztiak kentzen dizkiotela”

Ohiz kanpokoa da komunikabideek zahartzaroren irudi ona transmititu edo zahartzearen dohaiak eta balioak gorestea:

– “Zahartzaroa ez dugu naturalizat, eta bazter-tzen saiatzeko gara, itsusia bailitzan”.

Asko jota, zaharren gaineko irudia paternalista da:

– “Komunikabideek zaharren inguruan duten irudia paternalista da. Batzuetan harrigarria da, eta bertze batzuetan, ez dut erran ere egin nahi”.

Komunikabideek berebiziko eragina dute haurrek eta gazteek zaharren inguruan duten irudian; izan ere, haurrek eta gazteek eta zaharrek gero eta harreman txikiagoa dute elkarren artean:

– “Aitona ez dago etxean ja; tamalez, askotan, ez da etxean bizi”.

B) Gizartearen eta familiaren errespetua

Zaharrei galdetuz gero ea uste duten gizarteak eta familiak begirunea dieten eta errespetuz eta duintasunez tratatzen dituzten, adostasun handia dago erantzunen artean: gaur egungo gizarteak okerrera egiten ari da alde horretatik.

Zaharrek ez dute uste gizarteak begirunea dieten, eta, askotan, traba egiten dutela ere sentitzen dute:

– “Gazteek ez dute errespeturik ja. Zera erraten digute: ‘Kendu, agure hori, zaharkituta zaude’”.

– “Zaharrok ezer ez dakigula pentsatzen dute, ez dakigula gauzak egiten edo jendearekin hitz egiten, ez dakigula erran nahi duguna adierazten. Badirudi alde batera uzten gaituztela pixka bat”.

Irudipen horrek min handia ematen die zaharrei:

– “Badirudi bozkatzeko bakarrik balio dugula”.

– “Hauteskunde garaian bakarrik balioesten gaituzte. Beharrezkoak gara orduan, zahar asko dago eta botoak oso garrantzitsuak dira eta”.

Aldaketa soziologiko handiak gertatu dira. Mintzakideek ere antzeman dituzte, eta honela laburbildu dituzte:

– “Lehen gehiago jasan eta errespetatzen gintuzten zaharrok”.

Gainera, gaur egun, zaharra ez dugu aditutzat, gizartetik kanpo gelditu den pertsonatzat baizik:

– “Hemen gauden asko eta asko aitona-amonekin bizi izan gara. Lehen, lehentasuna aitona edo amonak zuen, baina gaur egun ez da gerta-

tzen halakorik. Nolabait, baztertu egin gaituzte, bakartu”.

Alabaina, zaharren errespetuari dagokionez, solaskide askok hiriak eta herriak bereizi dituzte, eta herrietan gehiago errespetatzen dituztela adierazi dute. Honako lekukotasun hauek hori dioten solaskide askoren pentsaeraren laburpena dira, bederen:

– “Gurean, behintzat, zaharroi begirunea digute; oso begirune handia digute. Ezagutzen ditudan etxe guztietan, zaharrek itzal handia dute eta errespetatu egiten dituzte, eta erabakitzeke ahalmena dute”.

– “Ñabardura bat egin beharra dago. Hirigune txikiek ari gara, gurasoek eta seme-alabek elkar errespetatu eta, areago, elkar gurtu egiten duten herriez. Hirietan, ordea, oso bestelakoa da. Iruñekoa naiz ni, sei urte daramat hemen, eta hirian oso bestelakoa da”.

Zaharrak familiarean eta etxean errespetatzeari dagokionez, arazoak zaharrak pixkana-pixkana zahartu ahala sortzen dira. Zaharrak beren kasa moldatzen direnean eta, ilobak zainduz, erosketak eginez, azokara joanez, zuzemenak eginez..., seme-alaben familia lagun dezaketenean, ez da izaten arazorik, baina, gaitasunak galtzen hasten direnean, bertze fase bat hasten da eta litekeena da zaharrak gehiegizko zama izatea familiarean.

2006ko irailean, Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CISek) inkesta egin zuen zaharren bizi baldintzei buruz. Inkesta egin zutenen % 50,6k uste dute, oro har, seme-alabek aurreko belaunaldiek baino okerrago zaintzen dituztela guraso zaharrak; % 27,8k uste dute berdin zaintzen dituztela; eta % 7k baino ez dute uste hobeto zaintzen dituztela.

Hain zuzen ere, orduan, babes eta afektu gehien behar dutenean, zahar batzuek traba egiten dutela sentitzen dute:

– “Hemen esertzen banaiz, traba egiten dut. Alabak ez dit ezer erraten, baina nik badakit traba egiten dudala, eta pena handia ematen dit”.

Zaharrek traba egiten duten irudipena are handiagoa da semearekin edo alabarekin, errainarekin edo suhiarekin eta ilobekin bizi direnean; izan ere, etxebizitzak txikiak dira, eta, hazi egiten direnean, ilobek leku gehiago behar dute:

– “Etxeak gero eta txikiagoak dira, eta ez dago lekurik”.

Etapa hori amaitzeko, zahar askok etxez etxe ibili behar dute etengabe; “maletaren sindromea” delakoa da:

– “Nire ustez, tamalgarria da gurasoak seme edo alaba baten etxetik bertze batenera aldatu beharra hilero”.

– “Alde horretatik, pertsona batzuek ikaragarri gaizki pasatzen dute. Alabarekin egokitzen bazaie, ondo, suhiak paso egiten baitu nolabait, baina errainarekin egokitzen zaienean... Askotariko errainak daude, baina, edonola ere, penagarria da, oso penagarria”.

– “Objektuak gara. Alde batetik bertzera aldatzen gaituzte eta, baliagarri izateari uzten diogunean, pikutara bidali eta bazter uzten gaituzte”.

– “Inguruan bizi diren pertsona batzuek pena handia ematen didate. Hilabete hemen bizi dira, bertze hilabete bat bertze alaba batekin bizi dira, eta maletatxoa eskuan ibiltzen dira: maletatxoa desegiten bukatu ez eta bertze alaba batekin joan behar dute”.

Irudipen edo sindrome hori oso subjektiboa da: nahi ez duten zerbaiten beldurra da, norberaren egoera baino gehiago. Solaskideak bertzez ari dira, ez beraiez, eta teorikoki azaltzen dute. Ikerketa Soziologikoen Zentroaren (CISen) inkestaren arabera, bigarren galdera erantzun zutenen % 91 ez zen bertze seme-alaba batzuen edo bertze senide batzuen etxera aldatu azken hamabi hilabeteetan, baina % 7,1, ordea, bai.

C) Tratu txarren aurkako babesa

Berriki onartu dugu zaharren aurkako tratu txarrak arazo orokorra direla. Alde horretatik, Zaharren kontrako Abusuei Aurrea Hartzeko Nazioarteko Sareak (INPEAK) egindako lanak eta Munduko Erakundeak arazoa nabarmendu izanak munduko arazoaren kontzientzia har dezan bultzatu dute, neurri handi batean. Ildo horretan, “Entzuten ez ditugun ahotsak” txostena eta zaharren aurkako tratu txarrei aurrea hartzeko Torontoko Adierazpena erreferente bilakatu dira gai honi buruzko ikerkuntza eta ekintza prozesuak abian jartzeko.

Espainian, Zaharren eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak (IMSERSOK) eta Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkarteak tratu txarrei buruzko ikerketa kualitatiboak egin dituzte, eta emaitzak IMSERSOK argitaratu berri ditu: “Zahartzaroa, zabarkeria, abusua eta tratu txarrak. Zaharren eta profesionalen ikuspegia.” Era berean, Osasunaren Munduko Erakundeak koordinatuta, hamaika herrialde lanean hasi dira, bitarteko bat baliozkotu eta tratu txarrak izateko arriskua antzemateko, eta Espainiak eginkizun esanguratsua du prozesu horretan.

Gaizki tratatzen dituzten zaharrek batere errespeturik gabeko eta laidoz betetako bizitza dute,

baina, halere, halako egoerak gutxitan azaleratzen dira, profesionalak ez baitira ohartzen tratu txarren ehuneko handi batez.

“Zaharren aurkako tratu txarrak ikusezinak dira”.

Gai honi dagokionez, Torontoko Adierazpenak gogorarazten du, duela 20 edo 30 urtera arte, munduko gizarteek emakumeen aurkako indarkeria eta hurren aurkako tratu txarrak zeudenik ere ukatzen zutela; gaur egun, baina, ezin eztabaidatuzkoa da halako egoerak gertatu egiten direla.

Nazioarteko bibliografiak dioenez, oro har, familiarrean gaizki tratatzen dituztenen ehunekoa % 1 eta % 10 edo 12 artekoa da, eta, pertsonak zenbat eta zaharragoak izan eta haien mendekotasun maila zenbat eta handiagoa izan, okerrago tratatzen dituzte. Espainian, berriz, Espainiako Zahar Elkartearen Konfederazioarekin bat, zaharren % 6 bat tratatzen dituzte gaizki:

“Zaharren aurkako tratu txarrak dira konfiantzazkoa izan beharko lukeen edozein harremanetan behin edo behin eta berriz gertatzen diren ekintzak, zaharrari mina edo larritasuna eragiten badiote, edo aurkako erantzun zuzenik eza”.

Familian, seme-alabak dira tratu txarren % 50en edo % 60ren errudun nagusiak:

“Emakumeentzat zaila da senarrak gaizki tratatzen dituela salatzea, baina are latzagoa eta samnagoa izan behar du amentzat seme-alabak salatzea”.

Tratu txarrak askotarikoak dira. “Tratu txarrak” ematea, berez, eskubideak larriki urratzea da: tratu txar fisikoak ematea, tratu txar sexualak, erabateko abandonua, etab; hala ere, ez da batere ohikoa. Esate baterako, Nafarroan, urtean 75 bat salaketa aurkezten dizkiote fiskalari seme-alabek gurasoak gaizki tratatzeagatik, baina guztiak ez dira 65 urtetik gorako gurasoen aurkako tratu txarrei buruzkoak.

Saioetako parte hartzaileen arabera, ez dirudi indarkeria fisiko agerikoa (tratu txarrak eta jipoialdiak) ohikoa denik. Askok susmoa dute jazo egiten dela, baina ez dute adibide jakin baten berri. Uste dute indarkeria fisikoaren adierazgarriak larrienak gertatzen direla, oro har, seme-alabek buruko arazoak dituztenean edo drogazaleak direnean:

– “Poliziako kide izan naiz ni, eta gauza penagarriak ikusi ditut, zinez. Erraterako, semea drogazalea da, baita alkoholikoa ere, eta lapurtu, jo egiten du. Bertze pertsona batzuei ere gertatzen ahal zaie, baina, zaharrei gertatzen bazaie, larriagoa da, adina dela eta. Zoritxarrez, nahiko ohikoa da”.

Parte hartzaileek bertze tratu txar mota bat aipatu zuten: egunerokoan jazotzen da, zaharrak bertzeen erritmoari jarraiki ezin zaizkionean, helduaroko indar berbera ez dutela eta. Adibidez, kalte handia egiten die zaharrei autoan edo igogailuan sartzeko bultzatzeak, giltzak kentzeak, azkar ibilarazteak, eta abarrek:

– “Zaharrak etxera kolpeka (bultzaka) igotzen ikusi ditut senideak”

Badira tratu txar psikologikoak ere. Batzuk hautematen zailak dira eta, itxuraz, ez dute minik egiten, “bigarren mailakoak” dira itxuraz, baina, hainbat pertsonak aipatu dute indarkeria psikiko mota hori. Batzuetan, guraso zaharrek traba egiten dietelakoan, seme-alabek haiekikoak amaitu nahi omen dituzte proiektuak izateari uzten diotenean; izan ere, aisiak izugarritzko garrantzia du gizarte honetan, eta zaharrak oztupo dira irteteko, bidaia-zeko, oporretara joateko:

Tratu txarrak erdeinuaren bidez eman daitezke:

– “Oso baldarra zara eta”

– “Eman giltza, ez duzu-eta tutik ikusten”

– “Nik badut adibide baten berri. Etxetik botatzen dute. Ordu batean puntuan, etxera igo eta bazkaldu egiten du, eta, berriro, bota egiten dute. Errainak kalean ikusten badu, pasatu eta iraindu egiten du”

Bertze solaskide batek zera erantsi zuen:

– “Nik ere badut horren berri, eta salatu egin behar da, emakume hori oso-oso maltzurra delako eta semeari saria ordaintzen diotelako zaharra zaintzearen trukean”

Tratu txar psikikoak gertatzen dira familiak zaharra, batere begirunerik ez diola-eta, txukundu egiten ez duenean ere:

– “Badago zaharrak pentsioa dela-eta bakarrik zaintzen dituenik. Aitari 80.000 ordaintzen diote. Dirua neuretzat hartzen dut, eta aita, doala nahi duen bezala, diote. Eta litekeena da aita soka erabili beharra, gerrikorik ez duelako, eta agure gaixoa oinetako ziztrinekin ibili beharra”

Bestalde, pentsatzen duguna baino ohikoagoa da arduraduna, nahita edo nahigabe, zaharra zaintzen zabarra izatea, edo arduradunak zaharraren zaintza beharrak abandonatzea, zaharrak behar duen laguntza hasi, jarraitu edo osatzeari uko egiten diolako edo eginkizun horretan huts egiten duelako. Hala ere, halako egoeretan, arduraduna ez da zertan zaharrari tratu txarrak ematen dizkion norbait izan; aitzitik, hainbatetan, urte luzez jarraian laguntza egokia eman dion baina etsi egin duen zaintzaile nagusia izaten da.

Maletaren sindromea ere tratu txar psikikotzat dute zenbait solaskidek:

– “Tratu txar psikologikoa, horixe! Bere etxea duen pertsona hilero-hilero maleta egin eta batetik bertzeri ibili beharra, 80 edo 90 urte dituela, arazoa da, noski”

Indarkeriarik gabeko bertze tratu txar mota “fin” bat zaharra zahar etxera joatera behartzea dela jotzen dute solaskideek: traba egiten duten zaharrez arduratu ez eta zahar etxera eramatea. Hainbat pertsonak aipatu dute indarkeria psikiko mota hori. Batzuetan, guraso zaharrek traba egiten dietelakoan, seme-alabek haiekikoak amaitu nahi omen dituzte proiektuak izateari uzten diotenean; izan ere, aisiak izugarritzko garrantzia du gizarte honetan, eta zaharrak oztupo dira irteteko, bidaia-zeko, oporretara joateko:

– “Nire ustez, (tratu txar psikikoak) betidanik gertatu dira; ez dakit orain baino gehiago edo gutxiago, baina betidanik izan dira. Lehen, gurasoak etxean genituen eta, batzuetan, aitona-amonak gaizki zaintzen genituen; betidanik gertatu da hori. Horren ordez, gaur egun bertze zerbait egiten dugu: zahar etxera eramaten ditugu”

Tratu txar psikikoak emateko bertze era bat seme-alabek zaharrei diruz lagun diezaieten presio egitea da. Zaharrak kexu dira; izan ere, dena eman dute seme-alaben mesedetan, baina haiek are eskakizun gehiago ezarriz erantzuten diete, hainbatetan, gehiegi gastatzen dutelako, hala nola, etxebizitza garestia eta autoa erosten dituztelako aldi berean:

– “Seme-alabek autorik onenak dituzte. Ez zaie ezer falta”

– “Badu seme bat, baina lurren batzuk zituen, eta suhiari laga zizkion; semeari ez zion ezer laga. Orain, semeak ez du ezer jakin nahi harekin”

Bertze hainbatetan, berriz, seme-alabek ez dute lan egiten, baina asko gastatzen dute, eta guraso zaharrek izorratu eta presio handiari aurre egin behar diote, dirua eskatzen baitiete etengabe.

Bertze zenbaitek etxean lan egiteko gaitasuna esplotatzea ere dute tratu txartzat, deserrotzea, zaharren behar afektiboak ekonomikoki esplotatzea haien ondasunez jabetzeko... Dena dela, txostenaren bertze atal batzuetan ariko gara tratu txar mota horietaz.

Erakundeetako tratu txarrei buruz, azkenik, azterlan urriak ditugu, baina gertatu gertatzen direla diote; alabaina, ez diote zenbat zaharregan duten eragina.

CISek 2006ko irailean egindako inkestak, gainera, ez zekarren gai honi buruzko galderarik, eta pentsatzekoa da arrazoia dela CISek ez duela alor honetan, oro har behintzat, halakorik gertatzen den berri. Egiten dituen galderen erantzunetatik ere ezin da ondorioztatu halako tratu txarrak jazo egiten diren.

D) Diru-sarrera duinak ziurtatzea

Lehenago ere erran dugu zaharren egoera ekonomikoa hobetu beharra ekintza plan ororen esparruan finkatzen den helburuetako bat dela, Espainian eta baita nazioartean ere. Izan ere, bertzerenaren aldean, zaharren egoera ekonomikoa oso txarra da:

“Espainian, zaharren heren bat pobrezia atalasetik behera bizi dira.”

Espainia zortzigarrena da Europan pentsioen zenbatekoen zerrendan. 2006an, Espainiako pentsioen batez bertzeko zenbatekoa hileko 614,3 euro gordinekoa zen, urteko 14 sari kontuan hartuta: Europakoa baino 200 bat euro txikiagoa. Nafarroan, berriz, 719,2 eurokoa zen; hain zuzen ere, 2006ko uztaillean, Nafarroan eta bertze sei autonomia erkidegotan gainditu zuten Espainiako batez bertzekoa. Zehatz-mehatz, alargun pentsioak

476,9 eurokoak ziren batez bertze, eta kontribuziozkoak ez diren pentsioak eta laguntzakoak, are eskasagoak: 300 bat eurokoak.

Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak datu berriagoak eman zituen, 2007ko abuztuan, eta, haiekin bat, Nafarroa Espainiako laugarren autonomia erkidegoa da, Euskadiren, Asturiasen eta Madrilen atzetik, zenbatekorik handienen zerrendan: hileko 757,77 euroko pentsioak hartzen dituzte, batez bertze, nafarrek. Orduan, 2007ko abuztuan, batez bertzeko erretiro pentsioa 761 eurokoa zen Espainian. Abuztuaren 1ean, Euskadiko, Asturiasko eta Madrilgo pentsiodunek 845, 816 eta 800 euro kobratzen zituzten batez bertze, hurrenez hurren, baina Galiziakoek eta Extremadurakoek, Espainiako pentsiorik eskasena: 563 eta 573 euro baino apur bat gehiago.

Gizarteak normalizat jotzen du gure zaharrek askoz ere diru-sarrera gutxiago izatea.

Antolatu genituen bileretan, pentsioak izan ziren gehien aipatu zen gaia, eta gai horren inguruan dute kontzientzia gehien zaharrek ⁽¹⁾.

Jarraian, “Espainiako zaharrak 2006. urtean” IMSERSOren txostenean pentsioei buruz ageri diren datuak emanen ditugu.

(1) Kontuan izan beharra dago eztabaida taldeen bilerak antolatu genituela Nafarroako Gobernuak iragarri aurretik, 2007ko urtariletik aurrera, alargun pentsioen zenbatekoa lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa (gaur egun, hileko 540,90 euro, hamalau saritan) egin arte osatzeko asmoa zuela. Hartara, lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekotik beherako alargun pentsioak kobratzen dituzten pertsonen laguntza osagarria kobratuko dute, pentsioaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoak parekatzeko. Nafarroako Gobernuak kalkulatu duenez, 12.000 onuradun izanen dira, eta 160 bat euroko laguntza kobratuko dute, batez beste, hilean.

1. TAULA

Kontribuziozkoak diren Gizarte Segurantzako pentsioak. Pentsio indardunak eta hileko batez besteko pentsioa (eurotan), prestazio-motaren arabera 2006ko abuztuaren 1ean

	Erretiroa		Alarguntza		Bestelakoak		Mota guztietakoak.	
	Pentsio indardunak	Batez besteko pentsioa (eurotan)	Pentsio indardunak	Batez besteko pentsioa (eurotan)	Pentsio indardunak	Batez besteko pentsioa (eurotan)	Pentsio indardunak	Batez besteko pentsioa (eurotan)
NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA	68.799	804,1	28.049	504,5	14.332	740,5	111.180	720,3
ESPAINIA	4.817.020	724,4	2.200.772	477,2	1.166.944	621,6	8.184.736	643,33
Espainia osoarekiko ehunekoak	1,4	111	1,3	105,7	1,2	119,1	1,4	112

Iturria: INSS.Estadística, Pensiones y Pensionistas. (<http://www.seg-social.es>)

2. TAULA

Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko pentsioak. Pentsio indardunak eta hileko batez besteko pentsioa (eurotan). 2006ko abuztuaren 1ean

	Erretiroa		Alarguntza		Bestelakoak		Mota guztietakoak.	
	Pentsio indardunak	Batez besteko pentsioa	Pentsio indardunak	Batez besteko pentsioa	Pentsio indardunak	Batez besteko pentsioa	Pentsio indardunak	Batez besteko pentsioa
NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA	41.082	1.019,7	16.780	570,4	9.311	824,9	67.173	880,5
ESPAINIA	2.638.143	911,5	1.315.459	536,7	700.231	697,5	4.653.833	773,4

Iturria: INSS.Estadística, Pensiones y Pensionistas. (<http://www.seg-social.es>)

3. TAULA

Gizarte Segurantzako araubide berezietako kontribuziozko pentsioak. Pentsio indardunak eta hileko batez besteko pentsioa (eurotan). 2006ko abuztuaren 1ean

Araubideak	Pentsio-mota	NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA		ESPAINIA	
		Pentsio indardunak	Batez besteko pentsioa	Pentsio indardunak	Batez besteko pentsioa
Nekazaritzakoa, autonomia	Erretiroa	8.104	492,6	533.924	459,7
	Alarguntza	3.738	387,3	205.555	332,1
	Bestelakoak	887	367,0	56.587	360,0
	Pentsioak, guzitura	12.729	452,9	796.066	419,7
Nekazaritzakoa, besteren konturakoa	Erretiroa	2.173	524,3	355.362	484,8
	Alarguntza	2025	418,6	207.594	380,6
	Bestelakoak	368	388,9	93.775	380,7
	Pentsioak, guzitura	4.566	466,5	656.731	437,0
Langile autonomoak	Erretiroa	9.243	570,6	602.873	527,2
	Alarguntza	3.726	401,0	268.962	364,3
	Bestelakoak	1.683	487,1	128.828	442,0
	Pentsioak, guzitura	14.652	517,9	1.000.663	472,5
Etxeko langileak	Erretiroa	1.421	423,0	166.438	417,8
	Alarguntza	40	234,6	9.408	259,1
	Bestelakoak	127	416,6	17.056	391,1
	Pentsioak, guzitura	1.588	417,8	192.902	407,7
Itsasoko langileak	Erretiroa	40	1.219,9	70.305	906,1
	Alarguntza	29	449,1	44.962	475,1
	Bestelakoak	11	588,5	15.661	544,3
	Pentsioak, guzitura	80	853,7	130.928	714,8
Ikatz-meataritzakoa:	Erretiroa	13	1.118,8	39.429	1.517,6
	Alarguntza	16	489,3	23.812	608,8
	Bestelakoak	9	525,7	7.662	922,6
	Pentsioak, guzitura	38	713,3	70.903	1.148,1
Lan-istripuak eta gaixotasun profesionalak	Erretiroa	856	785,5	55.395	828,7
	Alarguntza	964	646,8	79.773	609,7
	Bestelakoak	1.076	886,5	111.747	810,6
	Pentsioak, guzitura	3.526	796,5	246.915	749,7

Iturria: INSS.Estadística, Pensiones y Pensionistas. (<http://www.seg-social.es>)

4. TAULA


Zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaetzko aseguruako pentsioak (SOVI).
Pentsio indardunak eta hileko batez besteko pentsioa (eurotan). 2006ko abuztuaren 1ean

	Ezintasuna		Erretiroa		Alarguntza		Pentsioak, guzitura	
	Pentsio indardunak	Batez besteko pentsioa	Pentsio indardunak	Batez besteko pentsioa	Pentsio indardunak	Batez besteko pentsioa	Pentsio indardunak	Batez besteko pentsioa
NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA	230	297,2	5.867	287,4	731	185,6	6.828	276,8
ESPAINIA	35.397	312,4	355.151	310,4	45.247	267,8	435.795	306,1

Iturria: INSS.Estadística, Pensiones y Pensionistas. (<http://www.seg-social.es>)

1. GRAFIKOA

Gizarte Segurantzako kontribuziozko pentsio indardunak, araubidearen arabera. 2006ko abuztuak 1.



5. TAULA

Klase pasiboen pentsioak. Klase pasiboen unitate bakoitzeko pentsioen eta pentsiodunen kopurua 2006ko maiatzaren 31n.

Klase Pasiboen Unitatea	Pentsiodunak	Pentsioak:
NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA	5.459	5.893
ESPAINIA	557.434	594.301
Espainia osoarekiko ehunekoak	1	1

Iturria: Langileria-kostuen eta pentsio publikoen Zuzendaritza Nagusia. (<http://www.clasespasivas.sggp.pap.meh.es/>)

6. TAULA

Kontribuziozkoak ez diren pentsioen hartzaileen ezaugarriak. 2005eko abenduan.

		Erretiroa		Ezintasuna		Guztira	
		Pentsiodunak	Ehunekoa	Pentsiodunak	Ehunekoa	Pentsiodunak	Ehunekoa
NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA	Emakumezkoak	1.954	84,6	451	55,4	2.405	77,0
	Gizonezkoak	355	15,4	363	44,6	718	23,0
	Bi sexuak	2.309	100,0	814	100,0	3.123	100,0

Iturria: IMSERSO. Estadística sobre pensiones no contributivas. (http://www.seg-social.es/imserso/estadistias/est_pncs.html)

Kexarik etengabeko eta orokorra da pentsioen zenbatekoa txikia dela. Hori dela-eta, parte hartzaile askok arartekoak esku hartzeko eskatu zuten, pentsioak hobetzeko:

– “Parlamentura joan gara, baina ez digute jaramon egin. Arartekoak gai hau landu beharko luke. Dena garestitzen da, baina pentsioen zenbatekoa ez da handitzen; ez dugu beherapenik telefonoa eta bertz zerbitzu batzuk ordaintzeko, eta, pentsioaren zenbatekoa igo egiten bada, beherapenak kentzen dizkigute.”

Alde horretatik, zehaztu beharra dago pentsioen zenbatekoa ezartzeko eskumena Estatuarena baino ez dela, ez Nafarroako Foru Komunitatearena. Egoki baderitzo, Foru Komunitateak kontribuziozkoak ez diren laguntza osagarriak sortu bakarrik egin dezake, hala nola, alargun pentsioak osatzeko.

Dena dela, alor honetako arazoa ere ez da homogeneousa.

Itxurazkotzat jo daitekeen pentsioa erretirodunen heren batek kobratzen du, gutxi gorabehera, baina, pentsioaren zenbatekoa pentsiodun bikotearen gastu arruntak ordaintzeko nahikoa izan arren, kontuan izan behar da erretirora eta, hortaz, diru-sarrerara gutxiago izatera ohitzeko denbora behar izaten dela:

– “Pertsona batzuk gauza dira beren benetako beharretara, beren pentsiora egokitzeko, jakina, pentsioaren zenbatekoa hutsaren hurrengoa ez bada betiere.”

– “Kontua da, tira... Arrazoizkoa da, ehun izan eta ehun izatera ohituz gero, ohitu egiten ez bazara baino pixka bat zorientsuago izatea, jakina. Izan ere, oso zaila da hori kontrolatu eta kalkulatzeko.”

Hala ere, parte hartzaileen lekukotasunek argi eta garbi adierazten dute pentsiodun gehienak pentsio txikikoen taldean daudela, pentsiodun guztien bi heren baitira. Hilabeteko sariarekin moldatzeko arazoak dituzte; bildutako lekukotasunen arabera, batez ere, hilabetean 300 euro (zahartzarorako eta ezgaitasunetarako nahitaezko laguntza) eta 500 euro artean kobratzen dutenek.

Diru-sarreraren ondorioz, pentsiodunek asko murriztu behar dituzte beren gastuak:

– “Hilabete bukaera iritsi eta ez da nahikoa. Aurrera egin egiten dugu, baina oso gaizki.”

– “Bada, pentsioak igo edo, noizbait, 400 euro eta koska kobratzen dugunok ezin izanen dugu jan ere egin. Argi dago. Jende askok kobratzen du hori.”

– “Ohitu egiten garela erran duzu. Bada, ez dago bertz erremediorik, nire pentsioa, nire erretiroa 460 eurokoa baita.”

– “Bada hilabetean 300 eta koska euro kobratzen duenik. Adibidez, amak hori kobratzen du zahartzarorako eta ezgaitasunetarako nahitaezko laguntzagatik.”

Nekazaritzako erregimenaren onuradunek diskriminatu egiten dituztela sentitzen dute:

– “Nire ustez, nekazaritzako pentsioen erregimenaren ondorioz, diskriminazio handia gertatzen ari da. Politikariek pentsioez hitz egiten dute programetan, baina nekazaritzako erregimena? Inor ez da gogoratzen.”

– “Nik nekazaritzako sistematik kobratzen dut, eta miseria da: 70.000 pezeta, gutxienekoa.”

Pentsioak “txikiak” izateko arrazoi bat pentsiodun gehienek lehengo lanbidea da: Gizarte Segurantzari zenbat ordaintzen zioten ikusirik, orain ez dagozkie pentsio handiak. Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CISek) zaharren bizi baldintzei buruz egin zuen inkestaren arabera, % 38 langile gaituak eta erdi gaituak ziren; % 18,6, autonomoak edo ostalaritza, merkataritza eta nekazaritza arloko profesionalak; % 10,7, zerbitzuetako langileak; eta % 10,3, nekazaritzako langileak eta nekazaritzatik kanpoko gaitu gabeko langileak. % 5,5 soilik ziren profesionalak, teknikariak edo antzekoak, eta % 1,4 baino ez, enpresa pribatuko edo administrazio publikoko goi kargudunak.

Alargun pentsioei dagokienez, bestalde, ezauzgarri nagusia zenbatekoa txikia izatea da.

Ekonomia Aplikatuari buruzko Ikasketen Fundazioak lan dokumentu bat prestatu zuen Europar Batasuneko Etxebizitzen Paneleko datuak erabiliz, eta Europako hamahiru herrialdeetako alargunen errenten artean alde handiak daudela eta sexuen artean berdintasunik eza handia dagoela nabarmendu zuen. Azterlanaren arabera, erretirodunek (bai gizonezkoek eta bai emakumezkoek) Austrian kobratzen dituzte pentsiorik handienak, eta Grezian eta Portugalen, berriz, txikiak; hain zuzen ere, greziarrek eta portugaldarrek austriarren diru-sarreraren erdia dute. Zerrenda horretan, Espainia azkenetakoa da.

Fundazioaren arabera, ezkontidea galtzearen ondorioz sentitzen duten saminaz gain, alargunek arazo larriak dituzte, egoera ekonomikoa bat-batean aldatzen dela eta. Gainera, emakumezkoen bizi itxaropena handiagoa dela-eta, haien alarguntasunak eta zailtasun ekonomikoek gizonezkoen baino gehiago irauten dute.

Emakumezko alargunen ehuneko handi bat etxetik kanpo lan egin ez zuten belaunaldietakoa da. Horregatik, ez dute erretiro pentsiorik, eta, askotan, gutxieneko pentsioa bakarrik dute.

Alargun pentsioa erretiro pentsioa baino askoz txikiagoa da, eta, hori dela-eta, emakumezkoek galtzen dute gehien ekonomia aldetik ezkontidea hiltzen denean. Espainian, emakumezko alargunen % 26k bakarrik kobratzen dituzte diru-sarrera gehiago erretiro pentsioari esker; gizonezkoen artean, ordea, % 88k. Ordainetan, Espainian, eta Europar Batasuneko Mediterraneoko bertze herrialdeetan eta Irlandan, nahiko ohikoa da alargunak seme-alabekin edo bertze senideren batekin bizitzea. Dena dela, senitartekoekin bizitzeko arazoak dira alargunek erosteko ahalmen txikia izatea eta Mediterraneoko herrialdeetako eta herrialde katolikoetako familien egitura, bertzeak bertze.

Kontribuziozko pentsioa kobratzen zuen ezkontidea hil egiten denean, bertze ezkontidearen alargun pentsioa erdiratu baino gehiago egiten da, bertze ezkontide hura aita edo ama izan edo, berterik gabe, zaharra izan:

– “Nire ustez, emakumezko alargunek ez dute zertan gizonezkoek baino dezente gutxiago kobratu, neguan berdin-berdin piztu behar baita berogailua etxean bakarrik egon ala bi egon. Etxeko gastuak berdinak dira bakarrik egon edo bikotekidearekin egon. Zer dela-eta izan behar du ezberdintasunak hain handia?”

– “% 52 kendu edo % 52 ematen diete. Hau da, senarraren pentsioa txikia bazen, asko kentzen diete, baina telefonoak, argiak, urak-eta berdin-berdin segitzen dute.”

– “Gizonezkoek ere alargun gelditzen gara. Zoritxarrez, ni alargun nago, baina % 100 uzten digute. Emakumezkoak alargun gelditzen badira, ordea, % 52 uzten diete.”

– “Batez ere, emakumezko alargunen kontua onartezina da, eta ezin da halakorik gertatu.”

Pentsiodunen erranetan antzematen da erretiro pentsioa eta alargun pentsioa nahasi egiten dituztela eta, oker bada ere, ondorioztatzen dutela ez dagoela inolako arazoirik gizonezko alargunak lehengo pentsio bera (erretiro pentsioa) kobratzen jarraitzeko baina emakumezkoak lehengo pentsioaren erdia (alargun pentsioa) kobratzeko:

– “Emaztea hiltzen bada, soldata osoa kobratuko dut, baina, ni hiltzen banaiz, erdia bertzerik ez zaio geldituko. Tamalgarria da halako diskriminazioa.”

– “Senarrok alarguntzen bagara, % 100 gelditzen zaigu.”

– “Zer dela-eta kendu behar didate hainbeste senarra hiltzen denean eta miseria hori utzi? Zergatik utzi diote andre horri halako dirutza eta niri 300 kendu?”

Zahartzarorako eta ezgaitasunetarako nahitaezko laguntza desagertu egin da dagoeneko, baina oraindik ere hartatik kobratzen duten pentsiodunen egoera ekonomikoa oso-oso larria da.

Gizarte Segurantzako egungo sistemak indarrean utzi zituen aurreko araubideen esparruan kotizatutakotik sortutako laguntzak, interesdunek egungo sistemaren kontura pentsiorik kobratzeko eskubidea ez bazuten betiere (ikus Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorreko behin-behineko zazpigarren xedapena).

Hau da, zahartzarorako eta ezgaitasunetarako nahitaezko laguntzak aurreko sistemaren hondarrak dira, ez dute Gizarte Segurantzako egungo sistema eratzen (ikus Auzitegi Gorenaren 1996ko maiatzaren 29ko epaia). Haien eginkizuna babes-tea da eta, ildo horretan, zahartzarolari, ezgaitasunen bati eta alarguntasunari aurre egiteko laguntzak dira. 1967ko urtarrilaren 1a baino lehenago kotizatutakoari dagozkio, eta bateraezintasun araubidea oso zorrotza da, nolabait, Zahartzarorako eta ezgaitasunetarako nahitaezko laguntzak sistemako alargun pentsioekin bateratzeko ekainaren 6ko 9/2005 Legeak malguago bihurtu arren.

2007ko ekitaldian, pentsioen zenbatekoa hileko 338,84 eurokoa (urteko 4.743,76 eurokoa) da. Bistan denez, Gizarte Segurantzako sistemak (2007ko ekitaldirako Gizarte Segurantzako sistemako pentsioen eta bertze gizarte laguntza publiko batzuen balioa berriro ezartzeko abenduaren 22ko 1578/2006 Errege Dekretuak) antzeko beharrei erantzuteko ezarri dituen kontribuziozko pentsio gutxienekoak baino nabarmen txikiagoak dira, eta ondorio askotarako errentaren adierazgarri publikoa eta lanbide arteko gutxieneko soldata baino askoz ere txikiagoak. Nolanahi ere, eskasegiak dira, are eskasagoak Nafarroako bizi maila eta KPI kontuan hartuz gero.

Ekainaren 6ko 9/2005 Legeko “Zioen Azalpenak” atalak zioenez, zahartzarorako eta ezgaitasunetarako nahitaezko laguntzak gizarte babeseko kontribuziozko sistemako txikiak dira, eta pobrezia egoerak ondorioztatzen dira haietatik; pobrezia zaharrei egiten die kalte nagusiki.

Berdintasunik eza nabarmen horren ondorioz, berriki (2007ko irailean), Nafarroako Gobernuak Gizarte Gaietako Departamentura jo zuen Nafarro-

ako arartekoak eta, Nafarroako Foru Komunitateari finantza eta gizarte laguntza aldetik zer eskumen dagozkion aztertu ondoren, eskatu zion aipatu egoera kontuan hartzeko eta, Nafarroako Gobernuaren bidez, beharrezko neurriak sustatzeko Nafarroako Foru Komunitateko antolamenduak zaharrendako laguntza ekonomikoren bat xedatzeko, nolana hikoia, haien diru-sarrerak oinarritzko gutxienekoa egin arte osatu eta haien bizi baldintzak duintzearren.

Sarritan, pentsio eskasek etengabeko laidoa eragiten dute, batez ere, pentsiodunak ekonomia aldetik independenteak baziren eta aurrerantzean seme-alabei laguntza eskatu behar badiete bizi-tzeko:

– “Bada hilabete bukaeran seme-alaben etxean bazkaltzen duen zaharrik, argia-eta ordaindu ondoren, ez duelako jatekorik ere.”

E) Familiarteko harremanei eta harreman afektiboiei eustea

Zaharrak oso kezkatuta daude nork bere betiko giroan jarraitzeari eta familiarteko harremanei eta harreman afektiboiei eusteari buruz.

Horren adierazgarri garbia da CISek 2006ko irailean egindako inkesta, zaharren bizi baldintzei buruzkoa. Inkesta egin zuten gehien-gehienek erran zuten gehien-gehienek bizitzako hiru baliorik garrantzitsuenak osasuna, familia eta lagunak dira, hurrenkera horretan, erlijioa, dirua, aisialdia eta politika baino askoz ere garrantzitsuagoak; egia erran, politika ez da ia batere garrantzitsua.

Adindu ahala, ahulezia sentipena gero eta handiagoa da, eta, ondorioz, zahar asko gehiago kezkatzen dira segurtasunari buruz. Babesa sentitze-ko beharra dute, eta horretarako ez omen da familiaren babes afektiboa baino hobirik:

– “Nire ustez, zaharrok segurtasuna izaten jarraitzeko beharra dugu, eta segurtasuna inguru-koen afektua da, senideena eta norberarekin bizi izan direnena.”

% 56k familiarekin ematen dute denbora nagusi; % 7,5ek, lagunekin; eta % 35ek, bakarrik.

% 60,9k seme-alabekin du konfiantza gehien; % 55,6, senarrarekin edo emaztearekin; % 11k, anai-arrebekin; eta % 6k, lagunekin.

% 42,6k ingurukoak galtzea du kezka edo beldurrik handiena; % 24,4k, oroimena galtzea; eta % 11,4k, gaixotzea.

Afektibitateari dagokionez, zaharrei kalte gehien egiten dien gauzetako bat da ilobengandik banantzea, bikoteak bere baitan dituen arazoak

direla eta. Egoera are larriagoa da senar-emazteak banantzen direnean:

– “Bada aitona-amonek ilobak ikustea nahi ez duen familiarik. Ankerkeria da hau, desadostasunak izateagatik aitak edo amak ilobak ikusten ez uztea. Aitona-amona batzuek ikaragarri sufritzen dute ilobak ikusi ezin dituztelako.”

Erreferente afektiboak ez dira zahar etxera joatearen ondorioz soilik galtzen; aitzitik, zaharra alde batetik bertzerera ibiltzeraz behartzen dugunean ere galtzen dira:

– “Hemen bada Larragatik Mendigorriara eta alderantziz ibiltzen den bat. Bada, Larragara joan behar duenean, hamar egun lehenago, Arraioa, badator eguna esaka hasten da, Mendigorrian pozarren baitago: gizarte etxera joan eta bere giroan dabil. Bi hilabete ematen ditu leku bakoitzean, alaba batekin eta bertzearekin.”

VII.2. INDEPENDENTZIA EDO AUTONOMIA

Zaharren Giza Eskubideei buruzko Nazio Batuen Aldarrikapenak independentzia edo autonomia ezartzen du printzipio gisa, alegia, elikagai, ur, etxebizitza, janzki eta osasun laguntza egokiak izateko eskubidea, soldatapeko lana egitekoa eta gaitu eta heztekoa. Hedaturaz, printzipio honek autonomia pertsonalarekin eta zaharrak nola bizi nahi duen erabakitzea errespetatzearekin lotutako ezaugarri guztiak ere biltzen dituela diote zenbait autorek.

Kontuan hartu beharra dago nolakoa den Nazio Batuen Adierazpenaren nazioarteko testuingurua. Izan ere, herrialde azpigaratu askotan eta garapen bidean dauden herrialde askotan, oinarritzko zenbait eskubide (elikadura, osasuna, etab.) zaharren eskubide berezko eta autonomoak direla onartzea gizartearen lorpen handia da zalantzarik gabe. Hori da aukera bakarra zaharrek bizimodu autonomo eta independentea izateko aukera erre-alak izateko. Bestela, familiak eta gizarteak arautu gabeko laguntza ematearen mendean egonen dira beti.

Herrialde garatuetan, oinarritzko beharrei egokiro erantzuten diegu, oro har, eta, jakina, zaharrek gero eta askatasun eta autonomia handiagoa nahi dute nagusiki.

Printzipio honen ildoan, 2002an, Madrilgo Nazioarteko II. Ekintza Planak hainbat helburu edo gai estrategiko nagusi finkatu zituen. Ondoren, Zaharrei buruzko Espainiako I. Ekintza Planak (2003-2007) osatu egin zituen. Guztira, honako helburu hauek ezarri zituzten bien artean:

– Nor bizi izan den erkidegoan zahartu dadin bultzatzea, norberaren gogoa kontuan izanik betiere.

– Zaharren autonomiari bide ematea, oztopoak kentzeko plan osoen bidez eta laguntzak erabiliz.

– Ingurunearen eta etxebizitzaren diseinua hobetzea, zaharren independentzia sustatzeko, haien beharrak (batik bat, ezgaitasunen bat dutenenak) kontuan hartuz.

– Zaharrek erabili eta ordaindu egin ditzaketen garraio-bideen eskaintza hobetzea.

– Lan egin nahi duten zahar guztiei lan egiteko aukera ematea.

– Egungo lege esparruan, zaharrak ahal bezainbat babestea juridikoki, egin beharreko erformak eginez.

– Zaharrek informazio orokorra eta espezifikoa eskuratzeko bide hobek sortzea.

Zaharrek nahikoa esperientzia, ahalmen eta ezagutza dute nola bizi nahi duten askatasunez erabakitzeke eta haien baliabideak norberaren ezagutzaren eta iritziaren arabera kudeatzeko. Hala ere, ez da ohiz kanpoko eskura duten informazio urriak (eta, are gehiago, senideek edo zain-tzaileek egiten dieten presioak) haien askatasuna mugatzea.

Bestalde, beren burua aski izan dezaten eta autonomia izan dezaten ziurtatzeko, laguntza eman behar zaie, eta baita ingurunea egokitu ere, hura mugatu edo galarazten duten oztopoak kentzeko.

A) Nork nola bizi nahi duen aukeratzeko askatasuna eta autonomia

Kode Zibileko 199. artikulua dioenez, “norbait ezgaia dela adierazteko, nahitaezkoa da horretarako epaia ematea”.

Hau da, epaileak zaharra ezgaitua dela adierazten ez duen bitartean, erabateko gaitasuna du legez erabakitzeke, eta inork ez du zilegitasunik haren askatasuna mugatu edo haren borondatea faltsutzeko.

Ezgaitzea pertsonak babesteko bitarteko juridikoa da, eta inor ezgaitzea itxuraz ez dituen babesgarriez hornitzea da. Ezgaitasunen bat dutenak babesteko modu nagusiak zaintza eta kuradoretzak dira.

Kode Zibileko 229. artikulua xedatzen duenez, ahaideek eta ezgaituaren gaineko zaintza duen pertsonak tutoretza eratu behar dute, ezgaitasuna eragiten duen egoeraren berri dutenetik; hori egin

ezean, pertsona horiek erantzukizun solidarioa dute eragindako kalte-galeren ordainaren gainean.

Legezko esparrua oso garbia den arren, batzuetan ez dakigulako eta bertze batzuetan interes maltzurak existitzen direlako alor honetan, zaharrei presio egiten diete, haien borondatea mugatu edo faltsutu nahian, ondasunen kudeaketari dagokionez batik bat.

Bileretan gai hau proposatu genuen, eta gaia hainbat ikuspegitik aztertzeke: non (etxean edo zahar etxean) bizi, norberaren ondasunekin zer egin (testamentua), nola bizi, aisia nola erabili, norekin bizi (bertze bikotekide batekin harremana hasi ala ez)... erabakitzeke askatasunaren ikuspegitik.

Parte hartzaile guztiek diotenez, azken urteotan familiaren balioak guztiz aldatu dira. Lehen, gizarte tradizionalan, zaharrak aginpidea, esperientzia ziren, eta errespetatu egiten zituzten:

– “Lehen oso bestelakoa zen. Patriarkak agintzen zuen”.

– “Orain alderantziz gertatzen da: seme-alabek agintzen diete guraso zaharrei”.

B) Nork bere baliabideak kudeatzeko askatasuna eta babesa

Bileretan azaleratu zuten, parte hartzaileek sentitzen dute zaharrekiko harremanetan berekoieria dela nagusi eta, sarritan, zaharrak solidaritatek ezaren biktima direla.

Diotenez, seme-alabek hobeto bizi nahi dute, eta, aurrezkien edo ondasunen bidez, gurasoek etxebizitza erosten, autoa erosten, seme-alabak hezten... lagun diezaieten. Gurasoek halakorik egiten ez badute, urrundu eta, areago, banandu egiten dira:

– “Lehen baino arazo larriagoa da, eta diruak badu errurik, guztiek izan nahi baitute. Etxebizitza erosi nahi dute, autoz aldatu nahi dute eta, dirua dela-eta, gurasoei presio egiteko gai dira”.

– “Gurasoak, ez dakitela (dirua) eman ala ez eman. Ematen badute, onak dira; ez badute ematen, tirabirak dituzte, luzaroan gainera. Une batzuetan, hain zaila da, seme-alabek ez dute ezer jakin nahi gurasoekin”.

– “Zera erran nahi nuen nik: pena da hainbertze familia haustea, seme-alabek gurasoei ez hitz egitea. Min izugarria ematen dit”.

– “Pertsona batzuk zuhurrak izan dira betidanik eta orain ez dute harremanik seme-alabekin”.

Bertze batzuek, ordea, normaltzat dute seme-alabei laguntzen segitu beharra:

– “Emazteak eta senarrak soldata nahikoa ez badute, lagundu egin beharko.”

– “Seme-alabak direla-eta, kontua da seme-alabek laguntzeko prest gaudela, daukaguna emateko.”

Alabaina, kezkarriena honako irudipen hau da; parte hartzaile askok helarazi digute:

– “Seme-alaba askok uste dute gurasoek seme-alabak laguntzen jarraitzeko betebeharra dutela, bizitza osoan; haiek eta ilobak laguntzeko betebeharra.”

Hain zuzen, gurasoek seme-alabak lagundu behar dituztela sinestearen ondorioz gerta daitezke abusua.

Zenbaitetan, seme-alabaren bat zaharraren asmo onaz aprobeitza liteke, harekin bizi delako eta jabetza eta ondasunak zaindu egiten duen senidearen izenean jartzen dituelako. Orduan, arazoak sor litezke, eta, muturreko egoeretan, jabetza bereganatu duen senideak zaharra zaintzeari uko egiten dio, jabetza hark emandakoa izan arren.

Bertze zenbaitetan, presio egiten diote zaharrari, pixkana-pixkana, lurra eta funtsak sal ditzan. Seme-alabek erraten diote ez dituztela landuko, utzita daudela, saltzea guztientzat dela onena, eta zaharrak, lotura estua baitu bere lurrekin, ez du saldu nahi, baina, azkenean, amore eman behar du, eta bere saila betirako galdu duela onartu, saldu egin duela eta:

– “Jakin badakit askok eta askok funtsak utzi egiten dituztela, seme-alabek erraten dietelako: ‘Neuk ez dut jarraituko.’ Hori dela-eta, min handia ematen dien arren, berena zen lurra uzten dute, seme-alabei laguntzearren.”

Zaharrak seme-alabaren baten izenean jartzen duen jabetza etxebizitza bat bada, zaharra bere etxean arrotza bailitzan sentitzen hasten da; gastu orokorrak ordaintzen jarraitzen du, baina sentitzen du ez dela bere etxea:

– “Laurogeita koska urteko zaharrak ikustea, daukatenaren jabe ez direla ere dagoeneko eta seme-alabek baimena eman behar dietela nahi dutena egiteko...”

– “Etxebizitza seme-alaben izenean jartzen denean gertatzen da hori. Nor da jabea orduan? Bada, alaba.”

– “Argia ordaindu behar denean, auzoko gastuak ordaindu behar direnean, aurrealdea konpondu behar denean... nork ordaintzen du? Etxebizitzan

bizi den amonak. Non daude seme-alabak? Etxebizitza bereganatu, eta gero ez dute ordaintzen...”

Hona hemen bertze lekukotasun bat:

– “Misericordia zahar etxean dagoen andre bat ezagutzen dut. Ilobak hezi zituen, senarrak eta emazteak lan egiten zuten bitartean, baina kontua da, apaizak erran bazion ere etxebizitza ez emateko... Tira, kontua da, dena delakoagatik, Misericordiara eraman zutela.”

Horregatik guztiagatik, eztabaidetan parte hartu duten askoren ustez, zaharrak “zentsatu” egin dira, eta gero eta gutxiagok uzten diete etxebizitza seme-alabei:

– “Lehen, gurasoek etxebizitza seme-alabei uzten zietenean, abandonatu egiten zituzten.”

– “Orain, zaharrak ohartzen hasiak dira ezin dutela halakorik egin. Bestela, kalera botatzen dituzte, ez dutelako kalakaririk nahi etxean.”

Edonola ere, azaldu ditugun egoerak askotarikoak dira, eta zaharrek hainbat arrazoi direla medio erabakitzen dute ondasunak senideren bati utzi ala ez, bileretako parte hartzaileen lekukotasunaren arabera betiere:

a) Batzuetan, zaharraren eta senidearen arteko harremana bikaina da:

– “Bikotearen eta familiaren bizitzan izan den harremanaren arabera da neurri handi batean. Errespeturik izan bada, errespetua izaten jarraitzen dute, eta zaharraren iritzia kontuan hartzen dute.”

b) Bertze batzuetan, ekimena zaharrarena da, arreta eta maitasuna bermatu nahi baitu; maitasuna eta laguntza erosi nahi du. Hau da, interesagatik erabakitzen du etxebizitza seme-alabei uztea:

– “Bakarrik sentitzen da. Horixe gertatzen ari da gaur egun.”

– “Egungo ohitura da. Ni ez naiz oso zaharra, baina... Tira, adindu eta gauzak egiteko gaitasun txikiagoa dutela ohartzen direnean, ‘Ene, bakarrik geldituko naiz,’ erraten dute, ‘nola lortuko dut semeak alde batera ez uztea, ezkondata dago eta seme-alabak ditu-eta? Bultzatzen saiatuko naiz, etxebizitza utziko diot, eta, hartara, ez nau bazterrerera edo auskalo nora botako’”

c) Litekeena da senideek zaharrari presio egitea ere, ondasunak uzteko, askotariko argudioak erabiliz. Zaharren sentimenduak erabiltzen dituzte:

– “Zera erraten dute, ‘Non egonen zara etxean baino hobeto, eta hau, eta bertzea...’ Eta behin dena egin dutenean...”

d) Zaharrei presio egiteko bertze modu bat gauzak asko aldatu direla ikusaraztea da, ez dau dela egunean, hobe dela ondasunen (bai higiezin en eta bai inbertsio funtsen) kudeaketa bertzeren esku uztea, etab.:

– “Seme-alabek uste dute askoz gaituago dau dela gauzak egiteko, eta, askotan, zera erraten diete gurasoei: ‘Aizu, zuk ez dakizu hau eta ez dakizu bertzea.’ Orduan, gurasoek zera erraten dute: ‘Nola jakinen dut bada orain existitzen diren gauza askoren berri, ni gaztea nintzenean existitu ere egiten ez ziren eta? Ez atzera ez aurrera gelditu naiz ezagutzari dagokionez, eta hau ez dut lortu’. Baina, tira, gurasoak horrela tratatzen dituzten seme-alabek, askotan, abusatu egiten dute.”

– “Askotan, zera erraten digute: ‘Aizu, 2006. urtean gaude; ez 55ean, zu bezala’. Batzuetan, halako gauzek nahiko eragin handia dute gurasoengan.”

Bileretan parte hartu duten gehienek uste dute oso arriskutsua dela ondasunen jabetza seme-alabei uztea erabakitzea, zaharrek aukera galtzen dutelako inoiz behar izan lezaketen ondasun bati buruz erabakitzeke:

– “Hau egoera jakin bat da, baina izanen da antzekorik. Kontuz! Ez da bakarra. Inoiz, senar-emazteek semearen edo alabaren izenean jarri dute etxebizitza. Bat hil egiten bada eta bizirik gelditzen denak etxebizitzarekin zerbait egin nahi badu edo saldu egin nahi badu, semeak edo alabak baimenik ematen ez badio, ezin du saldu, hura baita jabea. Izugarria iruditzen zait.”

Zenbaitetan, etxebizitza bertzeren esku uztearen ondorioak oso larriak dira:

– “Guraso batzuek traba egiten diete seme-alabei. Bikote gazte bat ezagutu dut nik. Bi seme-alaba dituzte, eta ama etxean dute eta logelan uzten dute, su txikiarekin, errainak ez duelako egon nahi amaginarrebarekin. 80 urte ditu ia, eta penagarria da... Ama limosnatik bizi zen hor ia, baina etxebizitza berea zen, ordea; bera zen etxebizitzaren jabea.”

– “Izan da halako egoerarik. Udaletxean nengoenean, zinegotzia nintzen, gizarte ongizateaz arduratzen nintzen, eta izan nuen egoera sinesgaitz batzuen berri, seme-alabek lau sos hartu nahi eta...”

Horregatik guztiagatik, bada argi duenik zaharrek ez dituztela utzi behar beren ondasunak bizirik daudela:

– “Nire ustez, zaharrak egin behar duen azkeneko gauza seme-alabei hil aurretik ezer uztea da. Nire ustez.”

Nabarmendu beharra dago Kode Zibileko 271. artikulua xedatzen duela legezko tutoreak berak ere epailearen baimena behar duela tutoretzapeko pertsona adimen osasuneko etxean edo antzekoan sartzeko, ondasun higiezinak besterendu edo zergapetzeko, ondasunetan ohiz kanpoko gastuak egiteko... Dena dela, legezko esparrua hain asmo onekoa izan arren, aipatutako lekukotasunak ditugu aurrez aurre.

C) Bizikidetzak librea

Gero eta ohikoagoa da zaharrek, alargun edo ezkongabe badaude, bertze bikote harreman bati ekitea erabakitzea, bai zahar etxean edo bai herrian, beraiekin bizitzea nahi duten norbait ezagutzen dutenean.

Ulertzeko modukoa da halako egoerak eragin handia izatea bertzerengan, familiako kideen eginkizunak aldatu egiten baitira eta, onenean, ezkontide berria eta seme-alabak afektibitate aldetik elkar egokitzeke aldia baitakar. Egoera hori hala-beharrezkoa da, baina baliteke, inoiz, senideek zaharrari presio egitea, ez dezan askatasunez erabaki zer aukerari deritzon egokien bizitzeko.

Eztabaida taldeek apenas landu zuten gai hau, gero eta ohikoagoa den arren, gutxiengoaren egoera baita oraindik.

Erran zutenek, halako egoerak zahar etxeetan eta hiri handietan jazotzen dira, herrietan baino gehiago.

Lizarrako taldeak, zaharren artean bikote berriak ez eratzeko, gizarteak presio handia eginen lukeela aipatu zuen, gizarteak krudela izanen bailitzateke haiekin.

Badirudi gizarteak ezberdin neurtzen duela: begin onez ikusten ditu gazteen arteko harremanak, baina zorrotzagoa da zaharren arteko harremanei dagokienez.

– “Nire ustez, herrietako zaharrak pixka bat lotsatuta daude banandu edo dibortziatea erabakitzeari buruz erran dutena dela eta; hirian giro zabalagoa dago, eta badirudi ez dutela begi txarrez ikusten. Dibortzioa dela-eta, badirudi zaharrak dibortziatea begi txarrez ikusten dutela eta gazteek nahi dutena egin dezaketela; nahi dutenean dibortzia daitezke: ezkondu eta urtebetera edo ezkondu eta lau urtera.”

Nolanahi ere, batzuetan, semeek uko egiten diote guraso zaharrek bertze pertsona batekin bertze harreman bat hasteari, arrazoi estetikoak

edo moralak direla-eta baino gehiago, dirua dela eta. Ezkontide berriak jaraunsteko eskubidea kentzeko beldur dira:

– “Dena seme-alabei utzi badiete bai, bai, baina ez badiete utzi, ez, zera erraten dietelako seme-alabek: ”Nola ezkonduko zara bada zure adinean?””

– “Nik badut egoera jakin baten berri. Bi alar-gun, gizonezkoa eta emakumezkoa, zoriotsuak ziren ustez, baina gizonezkoaren seme-alabak, ezetz eta ezetz, seguru asko, dirutza baitzuen”

Zahar bikote berriengan aparteko kezka pizten duen bertze kontu bat da pentsioen zenbatekoa nabarmen murrizten dela, beren egoera formalizatu egiten badute. Ondorioz, zaharrek asko sufritzen dute, zalantza moral handia baitute: ezkondu ala ez ezkondu.

D) Informazioa, aholkularitza eta babesa

Atal hau lantzeko, batetik, informazio eta laguntza tekniko eta, bertzetik, aholkularitza bereiziko ditugu.

D.1. Informazio eta laguntza teknikoa

Zahar batzuek ez dute beren eskubideen eta gizarteak haien esku jartzen dituen aukera guztien berri, eta haiek erabiltzeko zuzemenak korapilatsuak eta, maiz, gehiegizkoak zaizkie. Hori dela-eta, informazio eta laguntza tekniko espezifiko behar dute.

Nagusiki, osasun etxeetako edo oinarrizko gizarte zerbitzuetako gizarte langileengana jotzen dute. Hala ere, elkartek, erretirodun klubek eta udalek gero eta gehiago ematen dituzte antzeko zerbitzuak, dohainik.

Halako mekanismoen bitartez, zaharrek eskubideei, zerbitzuei, administrazioaren laguntzei (esaterako, ohe artikulatuak erosteko laguntzei), diruz lagundutako bidaiei, bainuetxeei... buruzko informazioa eskuratzen dute, eta eskaria egiteko beharrezko zuzemenak egiten laguntzen diete.

Oro har, halako informazio eta laguntza sistemak nahiko ondo funtzionatzen dute, baina, zalan-tzarik gabe, hobetu egin daitezke, bai baitago haien berri ez duen zaharrik, edo gabeziaren bat baitute:

– “Zentro bat ez bada, behintzat, aholkatu eta lagundu egiten gaituen norbait, hau edo bertzea lortzeko. Aparta litzateke. Askok eta askok, herrietan batez ere, ez dakite nora jo, eta ez dakite zer egin behar duten”

– “Udaletxera egunero edo ia egunero joaten den gizarte langile bat”

– “Bai, bi gizarte langile daude, baina ez dituzte arazo guztiak konpontzen, eta ez dira nahikoak guztiontzat”

D.2. Erabakitzen laguntzeko aholkularitza

Askotan, zaharren erabakimen libreak arazo larriak eragiten ditu eta presio egiten diete, eta, horregatik, informazioa baino zerbait gehiago behar dute. Hori dela-eta, gogoeta egitera behartuta gaude, administrazio publikoek zer neurri hartu behar dituzten zaharrak hobeto babesteko eta zaharrek alor honetan dituzten eskubideak hobeto erabiltzeko.

Maiz, zaharrek aholkularitza behar dute arazo jakin batzuk konpontzeko eta haiei buruzko erabakiak hartzeko: testamentuari, bikote harremanei, seme-alabekiko harremanei, zuzemenak egiteari, ondasunei, funtsak saltzeari, zahar etxera joateari, bikote harreman berria hasteari... buruz.

Halakoetan, zaharrek ahalik eta zuhurtzia eta diskrezio handiena nahi dute, inork haien arazoak berri ez izateko. Izan ere, gogoan izan beharra dago, beren burua ahul ikusten dutela eta beren buruaz seguru ez daudela-eta, helduek oro har baino gehiago zaintzen dutela beren intimitatea.

Erabakiak hartzeko, lehenik eta behin, informazio egokia behar da. Ildo horretan, norengana jotzen dute zaharrek arazoak seme-alabekin beraiekin dituztenean?

Tradizioz, parrokoek konfiantza piztu izan dute zaharrengan, eta, neurri handi batean, haiek bete izan dute aholkulari eginkizuna. Salbuespen gisa, zenbait udalek eta erretirodun klubek mota honetako arazoak konpontzeko baliabideak eskaintzen dituzte, eta bada zerbitzua gizarte langile batek edo abokatu batek ematen duen herririk:

– “Murchartera, abokatu bat etortzen da astean bitan udaletxera, dohainik, aholkatzera”

Halere, ez dirudi ohitura hori oso hedatuta dagoenik:

– “Ñabardura bat: ez ditut klub eta elkarte guztiak ezagutzen, baina ez dut uste erretirodunen elkarteetan aholkularitza handia ematen dutenik. Ez dut uste”

Agerikoa dirudi, halakoetan, bestelako aholkularitza independentea behar dela, eta baita zahar gehienek behar adina diru-sarrera edo gaitasun ez dutela ere, abokatu partikularrarengana jotzeko.

Zaharrek ez dute dudarik halako zerbitzua beharrezkoa dela, baina ez datoz bat nork sustatu eta finantzatu behar duen.

Batzuek uste dute zerbitzu publiko espezifiko-
ren bat sortu beharko litzatekeela zaharrak ahol-
katzeko:

– “Oinarrizko gizarte zerbitzuak blokeatuta daude, izapide administratiboak direla eta. Hortaz, ez dira betetzen ari oinarrizko funtzio bat: aholkularitza, informazioa eskaintzea. Ez dira betetzen ari dena delakoagatik, baina, batez ere, administrazioaren blokeoagatik”

Zenbaitek zerbitzua behin eta berriz eskatu ere egiten dute, uste dutelako zaharrak diskriminatu egiten dituztela bertze talde batzuen aldean:

– “Leku batzuetan, etorkinak kontsultak egitera joan daitezke; leku batzuetan, etorkinek nafarrek baino eskubide gehiago dituzte. Gai hauek ez dira aipatu ere egiten, eta sutan jartzen naiz horregatik”

Bertze batzuek, aldiz, ez dute uste zaharrendako aholkularitza unitate espezifiko publikorik jarri behar denik abian. Izan ere, klubetan, sindikatuetan edo udaletxeetan bertan ematen diete aholkularitza:

– “Klubak, sindikatuetatik sortutako elkarteak eta bertze erakunde batzuk daude horretarako. Haiexek eman beharko lukete zerbitzu hau. Nik ez dut ikusten arrazoirik bulego publiko bat izateko, nahiko baitaude, zaharrak haien arazoak konponzen laguntzeko”

Azkenik, bada uste duenik klubak mantentzen dituzten erakundeek sortu beharko luketela zerbitzua:

– “Ez litzateke batere gaizki egonen zerbitzua sortzea, batez ere, merkataritza-erakunde batek (aurrezki-kutxek eta abarrek) nolabait babesten baditu. Merkataritza erakunde horiek izan litzakete”

E) Nork bere burua aski izatea eta nor bere kasa moldatzea

Batzuetan, asmo onez betiere, zaharrei gauzak egiten laguntzen diegu zailtasunen bat duten bezain pronto, baina ez ditugun beren kabuz egitera bultzatzen, beren kasa moldatzen ahal badira behintzat.

Geuk denborarik ez dugula-eta, “presatu egiten ditugu etengabe”, eta gauzak guk “normaltzat” dugun denboran egitea ezartzen diegu. Berehala galtzen dugu pazientzia.

Aitzitik, haien gaitasun fisikoei eusteko beharrezko ariketak egitera bultzatu behar ditugu, eta benetako aurrerabideak eman behar dizkiegu.

“Zaharrak Espainian 2006” txostenaren arabera, zaharrek etxean eta etxetik kanpo (batez ere, garraibide publikoetan) ibiltzeko, etxe lanak egiteko, ikusteko, nork bere burua zaintzeko eta entzuteko dituzte zailtasun gehien.

CISek zaharren bizi baldintzei buruz egindako inkestaren arabera, berriz, zaharren zailtasun nagusiak garraio publikoa erabiltzea, etxeko lan batzuk egitea, kalera irten eta kalean ibiltzea eta medikuarengana joatea dira, hurrenkera horretan, inolaz ere ezin baitute halakorik egin laguntza gabe.

Aitzitik, gehienak bere kasa moldatzen dira, ez dute laguntzarik behar jateko, etxean ibiltzeko, komunera joateko, jaiki eta oheratzeko, telefonoa erabiltzeko, jantzi eta erantzeko, garbitu eta txukuntzeko eta sendagaiak hartzeko.

Inkestatik ondorioztatzen denez, oro har, zahar gehienak beren kasa moldatzen dira, edo zailtasun txikiak dituzte garraio publikoa erabiltzeko eta kalera irteteko; adin jakin bat betetzen dutenean, zailtasunen bat dute; eta, 70 urte betetzen dituztenetik, nor bere kasa moldatzeko arazoak sortzen dira.

Ingurunea zaharren muga txikietara egokitu behar da, muga txikiok ez bihurtzeko bizitza aktibo eta autonomoa izaten jarraitzeko oztopo. Horretarako, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak eta Gizarte Ongizatearen Zuzendaritza Nagusiak (egun, Gizarte Gaietako Zuzendaritza Nagusiak) laguntza ekonomikoak banatzen dituzte, erretirodun klubak eta elkarteak instalazioak araudira egokitzeko eta behar dutenen etxebizitza egokitze-ko.

Oro har, etxebizitza, altzariak etxeko tresneria, etab. apur bat egokituz gero, zahar askok bizimodu autonomoa izaten jarraitzen ahal dute eta ez daude behartuta etengabe laguntza eskatzera.

Izan ere, sofak edo oheak hanka luzeagoak izatea itsusia da, baina, hari esker, zaharrak ez du behar laguntzarik jaikitze-ko.

Zahar askok behar baino zailtasun gehiago dituzte beren kasa moldatzeko, bertzeak bertze, gero eta zailagoa delako bilgarriak irekitzea, ekipamendu berrien argibideak gero eta konplexuagoak direlako, altzariak ez daudelako egokituta, sakelako telefonoko botoien tamaina desegokia delako, sendagaien erabilera orrietako letren tamaina txikia delako, etxeko tresneria desegokia delako... Inork ez du haiengan pentsatu, biztanleriaren % 20 osatzen duten arren.

Hala ere, zaharren erosteko ahalmena handitu dela-eta, egoera aldatu egiten ari da.

Oro har, Foru Komunitateko agintari publikoek laguntza ematen diete zaharrei, beren gaitasunei eta beren buruarekiko estimuari euts diezaieten. Hain zuzen ere, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak hainbat programa sustatzen ditu, zaharrei beren gaitasunei eusten laguntzeko. Bertzeak bertze, honako hauek ditugu:

- Mendekotasunari aurrea hartzeko eta zahar-tze aktiboaren aldeko programak, Caixa Fundazio-arekiko hitzarmenen bidez.

- Mendekotasunari aurrea hartzeko eta zahar-tze aktiboaren aldeko programak finantzatzea, gizarte zerbitzuen alorreko erakunde askorekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera.

- Urtero Nafarroako Gurutze Gorriarekin sinatzen duen hitzarmena, hainbat programa (mendekotasunari aurrea hartzeko zenbait barne) gauzatzeko.

- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen LARES federazioaren terapia okupazionalako programetan eta fisioterapia programetan parte hartzeko diru-laguntzak.

- Zahar etxe eta eguneko zentro publiko eta itundu guztietako errehabilitazio, terapia eta fisioterapia zerbitzuak.

F) Inolako oztoporik eza eta guztiondako diseinua

Oztoporik ez izatea oinarrizko faktorea da aukera berdintasuna zinezkoa izateko. Izan ere, oztopo fisikoek eta zentzumenezkoek norberaren autonomia mugatzen dute, eta baita nork aukeratzeko eta ingurukoekin elkar eragiteko eta bizitza sozialean parte hartzeko ahalmena ere; azken batean, oinarrizko askatasunak erabiltzeko oinarriak dira horietan.

Herritar guztiek eta, horrenbestez, mugaren bat duten zahar guztiek ere beren bizimodua askatasunez erabakitzeko eskubidea dute, haien nortasunaren garapena mugatzen duten kanpoko faktoreek askatasun hori murriztu gabe.

Alabaina, maiz, askotariko oztopoek egunerokoan bizimodu autonomo eta independentea izatea galarazten diete zahar askori, eta gizartean bakartu eta etengabe bertzeren mende egotera behartu egiten dituzte.

Tamalez, askotan ezinezkoa da zenbaiten muga funtzionalak hobetzea, baina bistan dago, ingurunea egokia bada, haien funtzionaltasuna askoz ere handiago dela.

Inolako oztoporik eza gauzatzeko, kultur aldaketa sakona gertatu behar da. Izan ere, honako hau da inolako oztoporik eza:

“Ingurune, prozesu, produktu eta zerbitzu guztiak, eta baita objektuak eta tresnak ere, herritar guztiek segurtasunez, erosotasunez eta ahalik eta autonomia eta naturaltasun handienaz ulertu eta erabiltzeko modukoak izatea”.

Ildo berean, guztiondako diseinua gauzatzeko, inguruneak, prozesuak, ondasunak, produktuak, zerbitzuak, objektuak, tresnak, gailuak eta lanabesak pertsona guztiek ahal bezainbat erabiltzeko moduan sortu eta diseinatu behar dira, hasieratik, ahal den guztietan.

Guztiondako diseinuaren oinarria gizadiaren aniztasuna da; hau da, gizakien artean askotariko ezberdintasunak daudela kontuan hartzen du, eta, guri dagokigunez, adinaren ondorioz desberdintasunak daudela. Inguruneak, produktuak eta zerbitzuak “normaltasun” antropometrikoari, adimenezkoari eta funtzionalari jarraiki diseinatu eta egituratzen baditugu, pertsona guztien beharrei, ahalmenei eta funtzionaltasunari eta haien arteko ezberdintasunei jarraiki diseinatu eta egituratu ordez, oztopoak sortzen dira:

- “Gazteek gazteentzat diseinatutako gizartean bizi gara”.

Ezinbestekoa da, osasun, hezkuntza eta gizarte zerbitzu publikoak diseinatu eta kudeatzean, lurraldea antolatzean, hirigintza plangintza egitean, etxebizitzak diseinatzean... adinaren arabera-ko ikuspegia aintzat hartzen hastea.

Izan ere, hiriak, etxebizitzak, etab. diseinatzera-koan, batzuetan, ez dugu kontuan hartzen ikuspegia, haien mugak eta beharrak.

Legediaren bidez, baina, eman dugu aurrerapausorik:

- Ezgaituen aukera berdintasunari eta diskriminaziorik ezari eta inolako oztoporik ezari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legea mesedegarria da zaharrentzat, eremu publikoei, garraioari eta jendaurreko zerbitzuei dagokienez.

- Lurzoruari buruzko maiatzaren 28ko 8/2007 Legeko 4.b) artikulua xedatzen du herritar guztiek dutela eskubidea, diskriminaziorik eta inolako oztoporik gabe, zerbitzu publikoak eta erabilera publikoko ekipamendu kolektiboak erabiltzeko.

G) Ingurune seguru eta gozoa

Oztoporik eza bezalaxe, segurtasuna faktore erabakigarria da zahar askoren ustez, bai baitakite

ahulak direla eta, beraz, segurtasuna ematen dieten erreferenteak behar baitituzte.

Hiri handietan, zahar asko ez dira ausartzen kalera ateratzen, kaleetako segurtasunik eza dela eta; ez dira seguru sentitzen, zirkulazioa kontrolik gabekoa eta oldarkorra dela eta; etab.

Hiri askoren egitura estresagarria dela-eta, zaharrek zailtasun handiak dituzte bizimodu autonomo eta gustukoa izateko, gizonezko exekutibo gazte eta osasuntsuaren ikuspegitik diseinatu baitituzte.

Zorionez, kontzientzia hartzen ari gara, eta, pixkana-pixkana, eremu gozoak, oinezkoendako bide seguruak, pasealekuak, parkeak eta lorategiak... sortzen ari gara.

Zaharrendako Espainiako Ekintza Planak (2003-2007) ere hartu du kontuan zaharren kezka kaleetako segurtasuna dela-eta, eta ekimen espezifikoa (hala nola, zaharrendako polizia) jarri ditu abian, baina metropoli eremu handietako kontua dirudi.

Nafarroan, eztabaida talde batek ere aipatu ez izanak adierazten duenez, kaleetako segurtasunik ezak ez dirudi oraindik lehentasunez konpondu beharreko arazoa denik.

Hiriak eta herriak gero eta hobeto diseinatzea, zaharrek beren burua aski izateko eta, seguru sentitzen direla, bizimodu aktibo eta autonomia izateko, erronka handia da, eta, batik bat, izanen da.

Alde horretatik, Nafarroako udalerrien eta Etxebizitza eta Lurralde Antolamendu Departamentuaren lana erabakigarria da eremu publikoak (kaleak, plazak, parkeak, lorategiak, eraikuntza publikoak...) diseinatzeko, haiek baitituzte, hurrenez hurren, hirigintza plangintza orokorra sustatu eta gauzatzeko eta hura onartzeko eskumenak. Horretatik, mugitzeko mugak dituzten zaharengan ere pentsatu eta hiri edo herri egokiak egin behar dituzte.

VII.3. NORK BERE BURUA GAUZATZEA

Nazio Batuek nork bere burua gauzatzeari buruz zehaztu duten printzipioa da zaharrek haien gaitasunak eta aukerak guztiz erabiltzea izateko eskubidea; gizarteak hezkuntza, kultur, aisia eta aisialdi aldetik eta alde espiritualetik dituen baliabideak erabiltzea izatekoa; eta entzun egin ditzaten, horretarako ezartzen diren bideen bitartez.

Ildo horretan, Zahartzeari buruzko Madrilgo Nazioarteko II. Ekintza Planak hainbat helburu edo gai estrategiko nagusi finkatzen ditu:

– Adin guztietako pertsonen gaitasunak eta ezagutzak guztiz erabiltzea eta adindu ahala lortzen den esperientzia handiagoa eta onuragarria dela onartzea.

– Bizitza osoan aukera berak izatea hezkuntza iraunkorraren, gaikuntzaren eta trebakuntzaren alorrean, eta baita lanbide orientazioaren eta enplegu zerbitzuen alorrean ere.

– Landa eremuko zaharren bazterketa txikiagotzea.

Helburu horiez gain, Zaharrendako Espainiako Ekintza Planak (2003-2007) hainbat estrategia finkatu zituen:

– Pixkanakako erretiro malgua aplika dadin bideratzea.

– Kulturaren sustapena eta zaharrek kultur ondasunak erabili, informazioaren gizartean parte hartu eta teknologia berriak menderatzeko heziketa ekintzak lantzea.

Betidanik, zaharrek esperientzia, irizmena, zuhurtzia... izan dute, baina, egun, zaharrek gero eta ezagutza handiagoa ere dute eta gehiago eusten diete beren interesei.

Alor honetan bertze edozeinetan baino gehiago sumatzen dira zaharren arteko ezberdintasunak. Esaterako, gizarte eta ekonomia arloko ezberdintasunak erabakigarriak dira kezka eta nahi batzuk edo bertzeak izateko, eta haiek gauzatzeko. Alde horretatik, erretiroa hartu arte beren enpresako goi kargu batean izan diren goi mailako tituludunek espero dutenak ez du batere zerikusirik muntaketa kate bateko ikasketarik gabeko langileek espero dutenarekin.

A) Zaharren ahalmenak eta ezagutza aprobetxatzea

Zenbaitetan, litekeena da gizarteak zaharrak baztertzea eta haien ahalmenak eta ezagutzea ez aprobetxatzea:

– “Badirudi zaharrek ez dutela inolako ekarpenik egiterik”

Neurri handi batean, zaharrek etxeko txikiene-kiko harremana galdu dute:

– “Ez dago harremanik belaunaldien artean”

– “Kontua ez da zaharrek ekarpenak egitea bakarrik, gizarteak haiek aprobetxatzea ere baizik. Bi gauza ezberdin dira inor dakiena emateko prest egotea, bere lana emateko prest egotea eta gizarteak inori halakorik eskatzea, bazter edo ezer egiteko ezgai ez dela ez sentiaraztea. Laguntzeko

aukerak, baina, seme-alabei ez ezik, baita gizarte-ari ere”.

Neurri egoki bat gizarte etxea da. Nafarroako Foru Komunitatean, oso hedatuta dago, eta honela definitzen du 317/1997 Foru Aginduak –317/1997 Foru Agindua Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak eman zuen, abuztuaren 26an, gizarte etxeak gizarte zerbitzuen eragin esparruaren barruan sailkatu eta Hirugarren Adinekoen Arloari atxikitzea xedatzeko–: “Gizarte etxea biltoki bat da, higiezin batean kokatua gehienetan, adineko jendeak gazteekin eta gizartearen bertze taldeekin dituzten gizarte harremanak mantendu, sustatu eta garatzeko helburua duena, belaunaldien arteko jardueren bidez eta hirugarren adinekoen kultura, aisia eta entretenimendurako dauden baliabide eta ekipamenduak batera erabiliz”.

Zaharrek, gazteek, gizarte taldeek eta, oro har, herriko edo eskualdeko herritarrek batera erabiltzen dituzte. Gizarte jarduerak eta aisialdikoak egiten dituzte, belaunaldien arteko harremanak sustatzeko eta guztiak barne hartzeko batik bat, eta aparteko arreta jartzen dute pertsonaren prestakuntzaren arloan eta giza elkartasuna, boluntario lana eta elkarteak osatzea sustatzeko jardueretan.

Zaharrek eta bertze adinetako pertsonak, baita gazteek, bat egiteko bilgunea da.

Gaur egun, 40 gizarte etxek dute Gizarte Gaie-tako Departamentuaren baimena. Bestalde, Nafarroako 42 erretirodun klubek belaunaldiak lotzeko jarduerak egiten dituzte; Nafarroako Gizarte Ongizateak finantzatzen ditu, halako klubei diru-laguntzak banatzeko egiten dituen deialdiei esker.

B) Erretiroa: eskubidea, ez betebeharra

Lehenago ere aipatu dugun txostenak dioenez, duela zenbait urte ez bezala, jende gehienak ez du zahartzaroarekin lotzen erretiroa; aitzitik, haien ustez, erretiroa lan egin ahal izateari uzten diogunean hartu behar da. Are gehiago, espainiar langileek uste dute jendea 75 urte betetzen dituenetik dela “zaharra,” eta erretirodunek, 78 urte betetzen dituenetik, estatubatuarren, kanadarren, frantzesen eta italiarren antzera.

Hala ere, Espainian, ez jardunean dauden langileak eta ez erretirodunak ez daude erretiroa hartzeko adina 64 edo 65 urte baino beranduago ezartzearen alde.

Batez bertze, Espainiako erretirodunek 62 urte dituztela uzten diote lan egiteari; lagineko zaharrena dira alor honetan. Dena dela, Espainia bigarrena da European erretiroa legezko adina bete baino lehen hartzen dutenen kopuruari dagokio-

nez –lehenbizikoa Alemania da–: hamarretik seik horixe egiten dute.

B.1. Erretiroaren gaineko irudia

Espainiarrek oso bestelako irudipenak dituzte erretiroari buruz. Batetik, erretiroa lasaitasunarekin eta atsedenarekin lotzen dute, nork bere buruarentzat denbora izatearekin, bizitzaz gozatzearekin... baina, bertzetik, erretiroak zahartzea, gaixotzea eta mendekotasuna gogorarazten die. Nolanahi ere, oro har, erretirodunek alde on gehiago igartzen dizkiote erretiroari, txarrak baino; alabaina, espainiarrak ezkorragoak dira gai honi buruz bertze herrialde askotako herritarrek baino.

CISek egindako inkestaren arabera, erretiroaldia nola bizi duten galdetu eta zera erantzun zuten:

Ez dut aparteko irudipenik izan, ez da izan berebiziko garrantzia izan duen mementoa nire bizitzan	% 41,2
Askapena izan da, denbora nahi dudana egiten emateko aukera	% 38,0
Tristeza izan da, hutsunea sentitu dut, nire bizitzak zentzua izateari utzi diolako, ez naizela-eta baliagarri sentitzen	% 12,3
Ez dakit, ez dut erantzunen	% 8,5

Lanbidean zer eginkizun betetzen duten, pertsonak hura erabiltzen dute gizartean beren burua eta prestigioa agertzeko, eta, erretiroa hartzen dutenean, gizartea parekatu egiten da: pertsonak jardunean ez dabiltzan erretirodunen multzoan sartzen dira, eta lanetik eta gizartean prestigioa ematen zieten harremanetatik urruntzen dira. Ondorioz, erretiroa hartzea gizartean atzera egiteko modu bat da haien ikuspegitik:

– “Lanean goi kargu batean egon eta erretiroa hartzen duten zaharrak, bat-batean, legez jardunean egoteari utzi eta erretirodun bihurtzen dira, eta, ordutik aurrera, jendeak bazter uzten ditu erabat, haiek eta haien esperientziak ezertarako balio ez dutelakoan.”

– “Gizarteak ezberdin tratatzen gaitu erretiroa hartu eta berehala, egun batetik bertzera.”

Zenbaitentzat, erretiroa prozesu iraingarria ere izan da:

– “Senarra Nafarroako ibar bateko praktikantea zen, eta, erretiroa hartu zuenean, gizon gazte batek zoriondu eta zera erran zion: ‘Zer sentitzen da nor izan eta dagoeneko ezer ez zarenean?’. Senarra zur eta lur gelditu zen”.

Etzekoandreen egoera bereiz landu beharko litzateke, baina hona hemen egoera horren adibide garbi bat, emakume batek emandakoa:

– “Nik ez dut inoiz lan egin. Tira, inoiz ez diot utzi lan egiteari, baina etzekoandre izan naiz. Lan honek ere min egiten du, eta astuna da. Senarrak lan egiteko lan egin dut, eta familia aurrera eramateko, baina ez dute ezer onartzen. Balio izanen zuen, baina ez dute ezer onartzen.”

B.2. Nahitaezko erretiroa

Espanian, galdetutakoen hiru laurdenek uste dute 65 urte dituztenak langile onak direla oraindik ere, eta langileek heren batek erantzun dute erretiroaldian soldatapeko lana egin nahiko luketela. Alabaina, erretirodunen % 11k bakarrik egiten dute bertze diru-iturritzat har daitekeen jardueraren bat.

Espaniako Konstituzioak dioenez, “Espainiar guztiek lan egiteko eginbeharra dute, eta lanerako eskubidea dute (...), inoiz sexu-arrazoiengatik bereizkeriarik gertatu gabe.” Ez dio ezer adinean oinarritutako diskriminazioari buruz, baina, egiaz, erretirodunei debekatu egiten diete lan egitea.

Eztabaida taldeei aurretiko erretiroari eta nahitaezko erretiroari buruz zer iritzi duten galdetu genienean, erretiroa eskubide edo betebehartzat duten eta ongi iruditzen zaien soldatapeko lana ezin egin izatea, erantzunak, berriro ere, askotari-koak izan ziren.

Solaskide askok poza adierazi zuten, lan nekeza eta metodikoa utzi zutelako; gainera, lanean zeudela-eta, aisialdi laburra zuten. Oro har, bertzeren mendeko eskulangile izandakoek (CISek galdetutako lagunen % 50 inguruk) gauza onak bakarrik antzematen dituzte nahitaezko erretiroan; gizartearen lorpenzat dute:

– “Niri oso ondo iruditzen zait. Erretiroa hartze-ko irrikaz nongoen. Gazteek bezainbateko indarra eta errendimendua ez nuela ikusten nuen. Urte askoan lan egin dut.”

– “Soldatapeko lanari buruz, zer erranen dut bada? Senarrak erretiroa hartu zuen eta pozarren gelditu zen.”

Solaskide batzuek nekazarien erretiroa aipatu zuten. Izan ere, batzuek erretiroa hartu eta lan bera egiten jarraitzen dute ia; bertze batzuek, berriz, lana pixkana-pixkana utzi eta seme-alaben esku uzten dute. Fenomenoa nabarmenagoa da Nafarroako mendialdeko eskualdeetan, baserrietan batez ere, neurri batean, tradizioari jarraiki, zaharrek segitzen baitute gobernatzen han.

Beren negozio edo enpresa txikia izan duten eta pixkana-pixkana utzi duten solaskideek haien antzeko iritzia zuten.

Bertze batzuen ustez, ordea, ez da arrazoirik pertsona batik lan egiteko eskubidea kentzeko:

– “Lan sektorearen arabera da. Batzuk lur jota daude, oso lan gogorra egin dutelako, eta, horien ikuspegitik, erretiroa primerakoa da. Bertze batzuek, berriz, lan eramangarriagoa egin dute, eta, 60 edo 65 urte dituztela, ezin hobeto daude. Horiek ederki izorratzen dituzte erretiroa hartzera behartzen dituztenean, eguna oso luzea delako eta, nahiz eta lanean izan diren bitartean egin ezin zituzten gauzak egiten ahal dituzten, kontua ez da pintatzea eta bidaiatzea bakarrik. Zahar batzuk oso baliozkoak dira lan egiten jarraitzeko.”

– “Lanean ari gara. 65 urte bete eta, minuturen buruan, automatikoki, dagoeneko ez dakigu lan egiten; ezin dugu ezer egin.”

Zenbaiten ustez, beharrezkoa da lan merkatua utzi eta bertze belaunaldi batzuei bide ematea, garbi baitute gazteek zailtasunak dituztela eta lekukoa hartu behar dutela.

C) Lanean adina dela-eta diskriminatzea

Adinean oinarritutako diskriminazioa erretiroa hartzeko adina bete baino askoz ere lehenago hasten da lanean. Horren lekuko argiak dira, bate-re lotsa gabe, gisa honetako baldintzak ezartzen dituzten lan eskaintzak: “45 urtetik gorakorik ez”, “Eskakizuna: 40 urtetik beherakoa izatea”, etab.

45 urte betetzen ditugunetik, diskriminazio prozesua gero eta handiagoa da. Pertsonak lan merkatuan baliagarri izateari uzten dio. Adin horretako langabeak (are gehiago emakumezkoak) luzaroko langabe bihurtzen dira. Enplegu murrizketek zaharrei egiten diete beti kalte. Lan egiten dutenei ere, adin jakin bat betetzen dutenetik, “zaharrak” direla helarazten diete, eta balioa galtzen ari direla gizar-tean:

– “Akatsak egiten dituztela erraten diete, ez dutela ematen etekinik, gauzak ahaztu egiten zaizkiela, ez dituztela ulertzen teknologiak. Haien iritzia ez du berdin balio.”

– “Lan arloko diskriminazioa ikusi egin dut.”

– “Inork burua argi badu, esperientziari esker, gazte bat baino askoz ere baliozkoagoa izan daiteke, gazteak esperientzia behar baitu. Nor baliozko izan daiteke proiektu bat aurrera eramateko, baina, alde horretatik, zaharrak diskriminatu egiten dituzte.”

– “Enpresak, 55 urte bete bezain laster, ez dira gogoratzen gutaz. ‘Ospa!’ Bazter uzten gaituzte”

D) Aisialdia emateko modu atsegingarriak

Egungo gizartean, aisia emateko modu asko daude. Zaharrek dutenez gero denbora gehien, pentsatzekoa da haiek direla aisia emateko antolatzen diren jardueren onuradun nagusiak, baina, Espainian egindako inkestek adierazten dutenez, kontraesan nabarmena dago nork erretiroa hartzen duenean eginen duela uste duenaren eta egin egiten duenaren artean ⁽²⁾.

Esaterako, jardunean daudenen % 53k erraten dute bidaiatzeko asmoa dutela erretiroa hartzen dutenean. Bertze kontu bat da, azkenean, halakorik egitea duten, askotariko arazoak direla medio: norbera, osasun egoera, dirua, familia...

Erretirodunen ehuneko handi bat paseatu egiten da, familia zaintzen du edo aisiaz bestela gozatzen du:

– “Gizonezkoei dagokienez, aisia, batez ere, dantza, musa eta jatea da, argi eta garbi”

– “Kartetan jokatzera da ohikoena”

CISek 2006ko irailean zaharren bizi baldintzei buruz egindako inkestaren arabera, honako hauek egiten dituzte gehien galdetutakoek, hurrenkera honetan: telebista ikusi, irratia entzun, parkera paseatzera joan, irakurri, erosketak egin, eskulana egin (josi, puntu egin, brikolatu...), tabernara edo kafetegira joan, baratze edo lorategi txikia zaindu eta bertze etxe batean bizi diren senideak bisitatu.

Inkesta beraren arabera, ordea, honako hauek egin nahi dituzte, edo honako hauei eman nahi diete denbora gehiago, hurrenkera honetan: ezer ez (% 38,1), parkera paseatzera joan (% 7,6), eskulana egin (% 7,1), bidaiatu (% 6,0), kirola edo gimnastika egin (% 5,0) eta irakurri (% 4).

Bestalde, erretirodun berriek kultur maila handiagoa dute, eta nahiago dute kultur jarduera normalizatueta parte hartzea.

D.1. Jarduerak

Erretirodun klub askok askotariko programak eta jarduerak antolatzen dituzte. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emandako datuen arabera, bederen, klubetako kultur jarduna zabala da: antolatutako jardueren % 26,4 kontzertuak dira; % 23,03, erakusketak; % 18,54, antzerkia; eta % 8,43, zinema. Bestalde, antolatutako hitzaldien %

65,17 osasun gaiei buruzkoak dira; % 57,3, gizarte gaiei buruzkoak; % 32,02, zuzenbide gaiei buruzkoak; eta gainerakoak, askotarikoak. Erretirodun klubek irtenaldiak (% 96,63k), bidaiak (% 51,69k) eta argitalpenak (% 52,25ek) ere antolatzen dituzte. Azkenik, erretirodun klubetan sortzen diren taldeen % 3,93 arte taldeak dira; % 20,79, abesbatzak; % 8,43, musika taldeak; eta % 6,18, kirol taldeak.

Elkarteetako zuzendaritza batzordeetako kide batzuen artean etsipena sumatzen da, erretirodunak bazkidetzen direlako abantaila jakin batzuk lortzeko bakarrik, hala nola, edari merkeagoak, leku erosoak, lagunekin bat egitea... Haien ustez, erretirodun horiek ez dute hitzaldietan eta bertze jarduera batzuetan parte hartzeko asmorik. Kultur jardueretan (hala nola, hitzaldietan eta solasaldietan) parte hartzen dute ekitaldiaren ondoren oturuntza txiki bat antolatzen dutenean bakarrik; zerbait gehiago eskainiz gero, jende gehiagok hartzen du parte:

– “Jardunaldiak, solasaldiak, hitzaldiak eta antzekoak egiten ditugunean, amaieran lancha ematen ez badugu, ez da inor joaten. Gainera, zozketa ere egin behar da, parte hartzea handiagoa izateko”

– “Zer nahi duten? Badakizu zer nahi duten? Dantzaldiak antolatzea, janaurrekoak prestatzea, jatea. Eta ez dute lana hartu nahi, ‘dena egina nahi dut nik’. Horrelakoak dira erretirodun gehienak”

– “Gai interesgarriak lantzen dituzten hizlariak ekartzen ditugu, baina kafea edo txokolatea ematen ez badugu, ez da inor etortzen. Lehen ere gertatu izan zaigu”

– “Egunen batean solasaldi bat badago eta zu (moderatzailea) bezalako norbait joaten bada, edaria ematen badugu, bete egiten da, baina, edaririk ez badago, hamar etortzen dira”

– “Gure esperientzia hau da. Jarduera bat egin genuen, zaharrek, eskulanez eta mus txapelketez gain, sasoi hobetzeko zerbait izateko. Bada, xendazaletasun kontu bat antolatu genuen. Lehen egunean zortzi pertsona azaldu ziren, eta emakume bakarra. 900 bat bazkide ditugu, baina zortzi pertsona azaldu ziren, zazpi gizon eta emakume bat. Emakumeak, ikusi zuenean, zera erran zuen: ‘Banoa etxera’”

– “Zaharrak, janaurrekoa prestatzen ez badiete edo xehetasunen bat ematen ez badiete, ez dituzte ikusi ere egiten”

(2) Erretiroari buruzko AXA Nazioarteko Azterketa.

– “Oroimenari buruzko ikastaro bat antolatu dugu, oroimenari buruzko lantegi bat, eta lauk eman dute izena.”

D.2. Bidaiak

Erran bezala, espainiarren % 53k uste dute erretiroa hartzen dutenean bidaiatu egingen dutela, baina, egia erran, % 14k bakarrik egiten dute.

Zahar gehienek atsegin dute bidaiatzea, irtenaldiak egitea, atsedean hartzeko hirietara eta leku-etara eta hondartzetara batez ere, baina arazo nagusia dirua da, pentsioak ez baitira nahiko:

– “Bidaiatzeko aukera edo dena delakoa dela-eta, galdera bat egin nahi dut nik: zer erabakiko du 70.000 pezetako pentsioa kobratzen duen nekazari batek? Erranen dit norbaitek nora joan daitekeen?”

– “Lehengo egunean Andaluziara joateko oso eskaintza on bat hartu genuen, baina zera galdeztzen diot neure buruari: zer dela-eta eskatzen diote alargun edo erretirodun bati, gu bezalako bati, 200 euro ordaintzeko, 300 eta koska kobratzen du eta?”

– “Bidaiak eta ostalaritza enpresen tratu txarrak erretirodun atzerritarren aldean.”

Bidaiatzea bultzatzeko gizarte programak, zalantzarik gabe, aurrerapen handia izan dira alor honetan, baina oraindik ere asko falta da ekonomia sendoagoko herrialde batzuetako egoera lortzeko. Alde horretatik, iparramerikarrek (% 31k) eta alemanek (% 28k) bidaiatzen dute gehien.

D.3. Kirola egitea eta paseatzea

Kirolari dagokionez, Espainiako erretirodunek egiten dute kirol gutxien Europako herrialdeetako erretirodunen artean, haien % 9k bakarrik ematen baitute denbora kirola egiten. Alemanek, ordea, kirola egitea dute gustukoaren, eta haien % 36k egiten dute. Britainiarrek, berriz, nahiago dute lorezaintza eta brikolajea, eta % 39 aritzen dira horretan; halaber, erretirodun britainiarrek dute interes gehien kultur jardueretan parte hartu eta irakurtzeko; hain zuzen ere, %22k dute gogoko.

Udalerrri askotan, udal gimnasioak daude, baina zaharrak gutxitan joaten dira.

Zaharren % 19k paseatu egin ohi dela dio, eta hori ona da osasunarentzat.

D.4. Baratzeak

Baratzea zaharren hobbyrik handienetakoa da, batez ere, aurrez nekazaritzan edo baratzezaintzan aritu izan direnena. Baratzeari esker, kirola egiten segitzen ahal dute, produktibo sentitzen eta

motibatuta egoten, eta onespina ere lortzen dute nolabait. Batez ere, herrietan gozatzen dute zaharrek baratze txikiak zaintzen:

– “Ezer egiten ahal dugun bitartean, baratzea da entretenigarrikerik onena.”

– “Herrikook zorionsuagoak gara eta gusturago gaude baratzean. Ni, behintzat, bai, eta bertze asko, ere.”

Ingelesen % 23k lorezaintzan ematen dute denboraren zati handi bat.

D.5. Erretirodun klubetan parte hartzea

Erretirodun elkarteetan eta klubetan parte hartzea bertzerekin harremanetan egoteko modu polita da, eta zaharrek aktibo eta pozik egoten jarrai dezaten eta mendekotasunari aurrea hartzen laguntzen du.

Nafarroan 3.088 biztanleko dago erretirodun elkarte edo klub bat. Espainiako batez bertzekoa 7.726 biztanleko elkarte edo klub batekoa da, eta Nafarroakoa da batez bertzeorik handiena autonomia erkidego guztietakoen artean. Gainera, elkarteen % 88,8 zaharrek beraiek kudeatzen dituzte.

1969 eta 2003 artean, 180 elkarte sortu ziren guztira Nafarroan. % 52,8 300 bazkidek baino gutxiagok osatzen dituzte, eta % 35,9, 300-900 bazkidek. % 5, berriz, 1.500 bazkidek baino gehiagok osatzen dituzte.

Bertzeak bertze, ikastaroak, hitzaldiak, irtenaldiak eta bidaiak, aisia emateko jarduerak eta boluntario lanak antolatzen dituzte erretirodun klubek.

D.6. Etxean, ezer egin gabe

Zaharren % 19k diotenez, ezer egin gabe ematen dute denbora gehiena, eta parte hartzaile batzuek erran zuten, senarrak erretiroa hartzen duela-eta, emakumeen egoera zailtxoa dela.

D.7. Bertze hobby batzuk

% 14k hobby edo interes bereziren bat omen dute.

E) Gizarte lanetan parte hartzea

Espainian, erretirodunen % 2 bakarrik aritzen dira boluntario lanetan; aitzitik, Kanadan eta Australian, % 26 eta % 19, hurrenez hurren.

Nafarroako egoera, baina, ez dator bat Espainiako batez bertzeoarekin. Izan ere, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emandako datuen arabera, erretirodun klubek % 37,08k boluntario lanak egiten dituzte. Gogoan hartzeko moduko

datua da, kontuan izanik zenbat eta zenbat klub ditugun Nafarroako Foru Komunitatean. Boluntario programa horiek Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak finantzatzen ditu.

Zaharrek, erretiroa hartu eta ondorengo urteetan (60 eta 75 urte dituzten bitartean) batez ere, boluntario lan asko egin ditzakete, GKEren batean parte hartuz, erakundeentzat lan baliagarriak eginez, hala nola, erretirodun klubentzat, ezinduak lagunduz, etab.:

– “Lagun egitea, hitz egitea, medikuarengana eramatea eta kontu handiz tratatzea, maitasunez tratatzea betiere. Jendea ezagutzen dugu, eta lau-agoa da.”

– “Alargun batzuk boluntarioak dira eta etxeetara joaten dira, gaixoak bisitatzen, ez daitezen egon bakarrik. Boluntario lan handia egiten dute. Ni zahar etxe batera joaten naiz, bakarrik daudenak, familiarik ez dutenak zaintzen.”

– “Gure elkartekook boluntarioak eskatu ditugu zahar etxera joateko, han daudenekin hitz egitera, haiek paseatzera ateratzera edo kalea gurutzatzen laguntzera, elkartera etortzeko, baina oraindik ere zain gaude.”

– “Nik aurre egin nahi diot horri (boluntario lanari), baina ez naiz ausartzen. Herrian bada oso jende zaharra, urte osoan ateratzen ez dena, bakarrik dagoena... Egin liteke boluntario lanen bat, edo karitatezko egintzaren bat, baina jendeak ez du parte hartzen.”

– “Begira non dagoen San Jeronimo: kalea gurutzatu bakarrik egin behar dute elkartetik. Bada, boluntarioak eskatzea alferrikakoa da, entzungor egiten baitute. Baten batek ere galdetu izan du: ‘Aizu, zenbat ordaintzen dute orduko?’. Ez da posible. Batzordekook joan behar dugu haiek elkartera ekartzera.”

Azken urteotan, badirudi kontzientzia handitu egin dela, eta, ondorioz, parte hartzaile batzuk antolatutako gabeko boluntario lanetan hasi dira:

– “Bizilagunen, antolatutako gabeko talde bateko kide ez diren adiskideen kontuak dira. Zoragarria da, eta, horri esker, sarri, pertsona batzuen etxeak babesgabatasun egoera dezente arindu daitezke, hobetu.”

– “Nire ustez, zuek guztiok halako gauzaren bat egiten ari zarete, baina baita ni ere, baina, tira, ahal dudanean.”

Hainbat eta hainbat ez daude ados boluntario lan batzuekin, administrazioaren gabeziak “betezen” dituztelakoan:

– “Boluntario lanak ez du zertan ordezkatu esparru publikoei edo pribatuei dagokien zerbitzu. Hori da akatsa.”

Zenbait klubek boluntario lanak sustatu dituzte, berteak bertze, gaixoak zaintzea eta laguntzea, baina ez dira ekimen konkretu bihurtu, balizko bezeroek ez dutelako eskatu haiek proposatu dieten zerbitzua:

– “Uste genuen Leitizan bazela beharra, eta hamabi aurkeztu ginen, baina ez gintuen inork deitu.”

Antza, familiek ez dute batere atsegin herriko inork etxean nola bizi diren jakin dezan. Zahar asko beren intimitatea galtzeko uzkur dira. Beldur dira isilean informazioa jakinaraziko ez ote duten eta bertze beren ondasunen ordenaz, garbitasunaz, kalitateaz... ariko ez ote den:

– “Zahar askok ez dute nahi inork etxera joaterik, ez boluntarioa eta ez ordainpekoa, haien gauzak ikus ez ditzan edo mesederik ez eskatu behar ez izateko.”

– “Hemen inork ez du izan nahi boluntario, guztiek elkar ezagutzen dutelako: ‘Aizu, zer egiten du urliak sandiaren etxean?’”

Batez ere, Nafarroako iparraldean sumatzen da fenomenoak:

“Elkarteen estatutuek badakarte atal bat gai honi buruz, baina inoiz ez digu inork deitu.”

F) Bilobak zaintzea: laguntza, ez betebeharrak

% 18k diotenez, senideak, ezkontidea, etab. zaintzen ematen dute denbora gehiena, baina, batez ere, bilobak zaintzen.

Kultura tradizionalaren arabera, zaharren, gurasoen eta biloben arteko harremanak, funtsean, “betebehar moralak” ziren, eta elikatu beharra baino garrantzitsuagoak eta lehentasun handiagoak ziren. Hartara, familia hedatua, gurasoek seme-alabak zaindu beharra beren gain hartzen zuten, zuten adina zutela, eta seme-alabek, gurasoak zaindu beharra. Lehen mailako senitartekoak ziren familiako kide guztien euskarria.

Gizartean izandako aldaketa soziologikoen, familia nuklearrak, emakumeak lan merkatuan sartu izanak, lana eta familia bateratzeko zailtasunek... ordea, esparru berria eta, ondorioz, aukera berriak sortu dituzte, baina baita zailtasun berriak ere. Haurrak zaintzea arazoa da, eta zailtasunok, neurri handi batean, zaharren lanaren eta ahalegiaren bidez konpontzen dira.

Gaur egun, gauzak bestela planteatzen ditugu. Parte hartzaileek “betebeharra” aipatu dute, eta nabarmendu beharreko askotariko ñabardura esanguratsuak egin dituzte.

Zaharrek etengabe egon nahi dute bilobekin eta askok beren gain hartzen dute beren “betebehar morala”, baina konturatzen ari dira “betebehar moral” hori “lan betebehar” bihurtzen ari dela ia, eta askatasuna murrizten diela hein handi batean.

Zahar askok ulertu eta onartu egiten dute:

– “Bizitzaren legea da! Bilobak zaindu behar ditugu, alabak lan egiten duelako”.

– “Hori da. Bilobak zaindu behar ditugu. Ezin gara etxean bakarrik egon eta bilobak kalean gora eta behera utzi. Herrietan horrela izan da betidanik”.

Hala ere, ohartu egiten dira betebehar horrek askatasuna mugatzen diela:

– “Ez gara oso aske, laguntzea pentsatzen dugulako, bilobak zaintzea. ‘Nahiko nuke bidaia hori egin, baina...’, erraten dugu. Bilobak ditugu, eta seme-alabak pixka bat lagundu behar ditugu”.

– “Aske gara, baina seme-alabak laguntzeaz arduratu behar dugu”.

– “Esaten dugu geuk erabakitzen dugula noiz zaintzen ahal ditugun bilobak, baina, egia erran, inork ez dugu erabakitzen. Biloba ekarri eta ‘hona hemen’ erraten digutenean, bazkaritara bagoaz edo irteteko asmoa badugu, bada, bertzerik gabe, ez dugu egiten”.

Onartu egiten dute, nahiz eta askotan ez dieten ematen merezi duten esker ona:

– “Zaharrak garela, bilobak zaintzeko begira gaude, alabak lan egin dezan. Sakrifikatu egiten gara, alabak lan egin dezan, baina, gero, gainera, garrasi egiten digute”.

Bertze batzuek, ordea, sentitzen dute seme-alabentzat dohainik lan egiten duten langileak direla. Horixe erran zuten gehien, bederen, talde guztietan. Seme-alabek guraso zaharrak erabili egiten dituzte, haurrak zaintzeko, eta zaharrek zaintzen dituzte haur txikiak, haiek eramaten dituzte haurtzaindegira eta handik hartzen, haiek zaintzen dituzte gurasoak ez dauden bitartean.

Seme-alabek uste dute zaharrek zerbitzu hau ematea normala dela, eta batzuek eskakizuntzat ere hartzen dute:

– “Alabekin arazoren bat izan nahi badugu, nahiko da erratea egun horretan bilobarekin gelditu nahi ez dugula, arazo larria sortzen baita orduan”.

– “Hasieran erran dudanez, seme-alabek ez digute ezartzen bilobak zaindu beharra, baina, gure baitan, amore ematen dugu eta eskatzen digutena egiten dugu, bestela zer gertatuko ote den beldur”.

– “Seme-alabak badituzte, ezin dute erabaki. Kontua da, erretiroa hartzen dutenean, askotan, bilobak zaindu behar dituztela eta ezin direla izan aske. Mendean daude, seme-alaben mendean daude berriz; hau da, ezin dute. Ez dut erran egoera orokorra denik, baina gehienek ezin dute, ez dute erabakitzen, ez dira aske”.

Berez, zahar guztiek atsegin dute bilobengandik hurbil egotea eta haiek zaintzea, baina zenbait uste dute seme-alabek behar afektibo hori haiek baldintzatzeko erabil dezaketela:

– “Xantaia emozionala gertatzen da: ‘Ez bazara joaten bilobaren bila, neuk erraten dizudanean ikusiko duzu, ez zuk nahi duzunean”.

– “Xantaia afektiboa da. Zaharrak sentitzen duen bakardadea erabiltzen dute neurri batean”.

– “Batzuetan, bilobak zaintzea bakardadea ekiditeko modua “erostea” da”.

Oro har, zaharrek kontra egiten dute bilobak zaintzea etengabeko morrontza eta betebehar bihurtzen denean. Arazoa zaharrek urte asko edo aje larriak dituztenean ere gertatzen da, alderantziz izan beharko lukeen arren, seme-alabek haiek zaindu beharko lituzketen arren:

– “Jendea ikusten dut bi edo hiru bilobarekin eta lur jota gelditzen naiz. Nola dabilzan! Zergatik zaindu behar dituzte bilobak, seme-alabek haiek zaindu behar dituzte eta?”.

– “Ikusten dut seme-alabek eta bilobek aitona-amonak asko ustiatzen dituztela; andre horrek erran duenez, bilobak herrestan daramatzate. Niri gaztea nintzela egokitu zitzaidan, baina bertze batzuek gurasoei uzten dizkiete seme-alabak”.

Parte hartzaileek nabarmendu zuten zaharrez abusatu egiten dutela. “Abusua, abusu handia” (seme-alabena) behin eta berriz aipatu dute eztabaida taldeetan:

– “Nire ustez, sakrifizio handiak egiten dituzte, eta amona gaixo asko galduta daude, ez dutelako beren esparrua, eta biloben alde leher gaizto egiten dutelako, seme-alabak lanean daudenean”.

Seme-alabek gurasoek langile merketzat erabiltzen dituzten kontzientzia ezberdina da hirigunean eta landa eremuan. Hirigunean, zaharrek gehiago sentitzen dute erabili egiten dituztela, baina, landa eremuan, herri txikietan, seme-alabak

laguntzea beren gain hartu behar duten egitekoa dela onartzen dute gurasoek. Izan ere, seme-alabak bertze herri batera, edo Iruñera joaten dira lanera, eta haiek etxean gelditzen dira, haurrak zaintzen eta otorduak prestatzen:

– “Herrian horrela da beti. Etxean gaude. Ez dugu dibertsiorik. Nora joanen gara, bada? Oro har, bilobak zaindu edo alabak lagundu egiten ditugu”

Lehenago ere aipatu dugu Ikerketa Soziologikoen Zentroak zaharren bizi baldintzei buruzko inkesta egin zuela, 2006ko irailean. Bada, haren arabera, % 66,1ek seme-alabaren bat biloba txikiak zaintzen lagundu izan du edo laguntzen du egunerokoan haien gurasoek lan egiten duten bitartean, eta % 25,8k, ez. Galdetutakoek % 43,3k zaindu dituzte egunero; asteen zenbaitetan, % 30,9k; eta gutxiagotan, % 25,5ek.

G) Heziketa jarraitua

Gero eta zahar gehiagok, heziketa jarraituaren bidez (bai formalaren eta bai informalaren bidez) beren bizitza aberasteko eta aisialdia aprobetxatzeko ezin hobeto daudela betetzen dute erretiroa hartzeko adina.

Prestakuntza behar hori zahar askok sumatzen dute: batzuek, kultur maila handiagoa dutelako eta gauza berriak ikasi nahi dituztelako, eta bertze batzuek, garai batean ez zutelako izan aukerarik eta ez dituztelako alferrik galdu nahi egungo gizar-teak haien esku jartzen dituen aukera berriak.

Zaharren Unibertsitate Programa, unibertsitateak eta esperientziaren gelak antolatzekeo laguntza tekniko eta ekonomikoa da zahar askok nahi duten ekimena. Izan ere, gizarte berria interpretatu nahi dute, osasunari nola eutsi jakiteko gakoak ikasi nahi dituzte, gaixotasunen berri izan nahi dute, fenomeno naturalena... Alde horretatik, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren laguntza aktiboa oinarritzeko da, zaharren askotariko ezaugarrietara, kezketara eta eskarrietara egokitu diren heziketa ekintzak eskaintzeko.

Zenbait lekukotasunen arabera, heziketa jarraituaren hasiera erretirodun izaten ikasteko ikastaroei izan beharko lukete:

– “Administrazioak egin ditu ikastaroei funtzionarioak erretiroaldirako prestatzeko, baina enpresa pribatuak ez du ezer egin. Zerbait orokorra izan beharko litzateke, jende guztia prestatzeko. Enpresa pribatuak langileek ez dute halako ikastarorik”

Zenbait solaskidek gaztetxeen antzeko zaharretxeen beharra aldarrikatu dute. Funtzio anitz bete beharko litzukete, eta jarduera nagusietako bat heziketa jarraitua izan liteke.

Egun, zaharren heziketa jarraituaren sustatzailer nagusiak erretirodun klubak dira. Hitzaldiak (osasunari, sasoiari eta gaitasunei eusteari eta abarri buruzkoak) antolatzen dituzte, eta jostakuntza, joga, pintura, eskulan, altzarien kontserbazioa, argazkilaritza... ikastaroei egiten dituzte, hala nola, Lizarran eta Iruñean.

Boluntario lanetan hasten diren zaharrek ere nolabaiteko prestakuntza espezifikoa behar dute. Esaterako, mendekotasun egoeran dauden pertsonak laguntzen aritzen diren boluntarioek haien ezaugarrien berri izan behar dute, zer-nolako laguntza behar duten jakin behar dute, zer egoerari aurre egin behar dieten... Bertze zenbaitetan, berriz, badirudi prestakuntza ez dela hain garrantzizkoa, baina boluntarioaren eta lagundu egiten dituen pertsonen arteko harremana aberastuko luke. Horixe gertatzen da, adibidez, zahar boluntarioak inor medikuarengana eramaten jarduten direnean, egunean zenbait orduz lagun egiten dietenean, etab.

Hainbat elkarte horretaz arduratzen dira

– “Guk badugu boluntario zerbitzu bat, eta boluntarioak prestatzeko ikastaroei egiten ditugu elkarteak. Boluntarioei familia bat egokitu aurretik, prestakuntza aldi bat egin behar dute elkarteak”

Bertze batzuetan, ostera, ez da gauza bera gertatzen, eta boluntarioek esperientzia eskuratu ahala ikasten dute:

– “Ez digute ematen prestakuntzarik. Esperientziari esker lortzen dugu”

H) Teknologia berriak erabiltzea

Azken urteotan, iraultza teknologikoa gertatu da zinez. Informazio eta komunikazio teknologiak orokortu egin dira, eta Internet, posta elektronikoa, telefonia mugikor bidezko komunikazioa, etab. jendartearen zabaldu dira. Bilobek mezuak igortzen dizkiete aitona-amonei, eta haiek komunikazio tresna berriak erabiltzen jakin behar dute, harremanetan jarraitzeko. Zaharrek jakin badakite teknologia berrietan alfabetatu behar dutela; bestela, komunikazioaren haria galduko dute.

Gero eta zahar gehiagok erraten dute nork bere herriko egunkariak eta berriak irakurri nahiko litzuketela Internet bidez, sakelako telefonoaren bidez mezu edo argazkiren bat bidali, Internet bidez osasun eta kontsumo gaiei buruzko informazioa bildu...

Erretirodun klub batzuek ordenagailua erabiltzen ikasteko prestakuntza ematen dute. Gizarte Gaietako Departamentuaren arabera, 2006. urtean erretirodun klubak % 15ek antolatu zituzten infor-

matika ikastaroak; kopuru nabarmena da, zinez. Zaharrak kexu dira, halako ikastaroak doakoak direlako zenbait herritan, baina bertze zenbaitetan, ordea, ordaindu egin behar direlako:

– “Ez dakit nola den posible ikastaroak antolatu eta, gainera, doakoak izatea. Herrian, Udalak ez du halakorik egiten. Badira informatika ikastaroak, baina 40 euro ordaindu behar dira orduko. Zer zaharrek ordain dezake hori! Nire ustez, diskriminazioa dago herrien artean; izan ere, jendeak izanen luke interesik ordenagailua eta Internet erabiltzen ikasteko eskolak emateko, berrikuntza baita.”

Ordenagailuak ere arazo dira, bada-eta ordenagailua ez duenik Hori dela-eta, erakunde publikoek eta finantza erakundeek zaharrek ordenagailuak erosteko sustapenak egin beharko omen lituzkete, bertze talde batzuekin egin izan duten bezala.

Solaskideek sarera tarifa finkoa ordainduz konektatzeko arazoa ere aipatu dute. Izan ere, azkenean, garestia omen da; erretirodun gehienek ezin dute ordaindu eta, ondorioz, informazioaren autobide berrietatik kanpo gelditzen dira.

VII.4. LAGUNTZA ETA ZAINZTA

Nazio Batuek laguntza edo zaintzari buruz zehaztu duten printzipioa da zaharrak familiek zaindu behar dituztela; gizarte, osasun eta laguntza zerbitzuak erabiltzea izan behar dutela; eta oinarriko giza eskubideak eta askatasunak erabili behar dituztela, bai etxean eta bai zahar etxeetan eta erakundeetan.

Alor honetan jarri dute, zalantzarik gabe, Madrilgo nazioarteko Ekintza Planak (2002) eta Zaharrendako Espainiako Ekintza Planak (2003-2007) arreta gehien. Biak ildo beretik doaz, eta elkar osatzen dute, eta alor honetan finkatu diren helburuen zerrendarik osoena eratzen:

- Abandonuari aurrea hartzea
- Abandonu mota guztiak desagerraraztea.
- Mendekotasunari aurrea hartzea eta autonomia sustatzea
- Prebentzio neurriak eta osasuna sustatzeko neurriak hartzea eta nork bere burua zaintzea eta mendekotasunei aurrea hartzea bultzatzea.
- Bizitza osoan ahalik eta gaitasun funtzional handienari eustea eta hori bultzatzea.
- Zaharren autonomiari bide ematea, oztupoak kentzeko plan osoen bidez eta laguntza teknikoak eta teknologia berriak erabiliz.

– Mendekotasun egoeran dauden zaharrak laguntzea

- Mendekotasun egoeran dauden zaharrak laguntzeko neurriak hartzea, batez ere, Alzheimerrek eta bertze demenzia batzuek jotakoak.

– Osasun laguntza

- Osasun laguntza berdintasunean eskuratu ahal izatea ziurtatzea.
- Lehenengo mailako osasun laguntzako zerbitzuak garatu eta sendotzea, zaharren beharrei erantzuteko, eta prozesuan parte har dezaten bultzatzea.
- Adimen osasunaren alorrean zerbitzu zabalak sortzea, zaharren adimen osasunaren arazoei aurrea hartzeko, goiz esku hartzeko, tratamendu zerbitzuak emateko eta arazook kudeatzeko.

– Zaintzaileak laguntzea eta prestatzea

- Zaharrak laguntzen dituzten pertsonak babestea, batez ere, bertze zahar batzuek arduratzen diren emakumezko zaharrak.
- Zaintzaile informalek duten informazioa hobetzea eta gizartean onespren handiagoa izatea.

– Zaharrei laguntza osoa ematea

- Hainbat iturrik zaharrei laguntza eta zerbitzu jarraituak eskaintzea.
- Zaharrek kalean sentitzen duten segurtasuna handiagotzea, gizarteratu egin daitezten eta gizartean parte har dezaten.
- Landa eremuan bizi diren zaharrek in programa eta ekintza bereziak egin daitezten bultzatzea.

– Profesionalak prestatzea


- Osasunaren eta gizarte zerbitzuen alorreko profesionalak zaharren beharren inguruan duten informazioa eta prestakuntza hobetzea, baita alor juridikoko eta arkitektura arloko profesionalena ere, haien gerontologia eta geriatría arloko prestakuntza ziurtatuz.

Laguntza zaharren kezka nagusietako bat da, eta, batik bat, zaharrenak kezkatzen ditu.

Ondoko grafikoan ikusten denez, 65 urte dituzten zaharren ia % 90ek beren gaitasunei erabat eusten diete, eta, ia 80 urte betetzen dituzten artean, zaharren % 75ek ez du ezgaitasunik. Hain zuzen ere, egoera adin horretatik aurrera hasten da aldatzen. Hainbertzeraino, 85 urtetik gorakoek % 70ek baino gehiagok ezgaitasun esanguratsuren bat dute.

15. grafikoa

EZGAITASUNA DUTEN PERTSONAK, ADIN ETA SEXUAREN ARABERA. 1999



Iturria: INE. INEBASE: *Encuesta sobre discapacidades, deficiencias y estado de salud*, 1999. INE 2004. Emaitzak, autonomia erkidego, sexu, ezgaitasun-multzo, adierazle-mota eta adinaren arabera antolatuta. INE, 2004.
INE. INEBASE. *Revisión del Padrón Municipal 1999*.
Estatuko, autonomia erkidegoetako eta probintzietako mailako datuak. INE, 2004.

Era berean, adin multzo horretakoen (85 urtetik gorakoen) ehunekoa hazten ari da gehien, eta, ondorioz, zaintza eta laguntza beharrak ere handitzen ari dira. Areago, 2020. urterako, 85 urtetik gorakoen ehunekoa % 70 handituko dela iragarri dute.

Immersok zaharren bizi baldintzei buruz egindako inkestak eta Zaharrak Espainian (2006) txostenak diotenez, beren kasa moldatu ezin diren zaharren % 77,1ek nahiago dute etxean jarraitu eta lagundu eta zaindu egi ditzaten; % 10,6k, seme-alabekin bizi; eta % 4,5ek baino ez, zahar etxera joan.

65 urtetik gorako zaharren % 35 seme-alabaren batekin bizi dira –CISek 2006ko irailean egin zuen inkestaren arabera, % 39–, eta, haiekin bizi ez direnen artean, % 80 astero daude harremanetan edo gertu bizi dira. % 0,6 bakarrik ibiltzen dira seme-alaben edo bertze senide batzuen etxe batetik bertzera.

Kapitulu honetan zaharrek behar duten laguntzari erreparatuko diogu.

A) Abandonua eta bakardadea

Ohikoa dirudi zahar asko eta asko bakarrik bizitzea, eta abandonua eta bakardadea sentitzea etengabe.

Aldizka, komunikabideek plazaratzen dute zahar baten hilotza aurkitu dutela haren etxean, eta kontzientzia nahasten du jakiteak zenbait egun edo, areago, zenbait aste lehenago hil dela eta inor ez dela ohartu. Alabaina, gero eta gutxiago harritzen gaitu. Izan ere, urte honetan, 80 zahar


baino gehiago hil dira bakarrik Espainian, eta ez da alerta seinale bat ere piztu; joera, gainera, are kezkarriagoa da. Frantzia azkeneko bero boladetan gertatutakoa gogoratu bertzerik ez dago. Gizartearen paradoxa da: fenomeno ahokoagoa da hirigunean, hirietako hurbiltasun fisiko landa eremuan dagoen giza hurbiltasunarekiko alderantziz proportzionala baita.

Bakarrik hiltzen direnen egoera, oster, hiri handietan egunerokoan sumatzen den arazo baten alderdirik dramatikoena baino ez da.

Espainiako Gurutze Gorriaren arabera, milioi bat zahar baino gehiago bakarrik bizi dira Espainian: zaharren bosten bat. Askok beren borondatez bizi dira bakarrik.

Nafarroan, berriz, Nafarroako Estatistika Institutuaren arabera, 2001ean jendearen % 9 bizi zen bakarrik, eta 2005ean, % 20. Aldaketaren arrazoiak ezkontidea galdu duten pertsonak (funtsean, alargun gelditu diren zaharrak –bakarrik bizi direnen % 57 dira–) eta beren etxebizitza nahi duten gazteak izan dira. Dena dela, soziologoek uste dute hazkundea moteldu egiten ari dela. Udan, arazoa larriagotu egiten da: zahar etxeetan eta ospitaleetako larrialdietako zerbitzuetan sartzen direnen kopurua handitu egiten da orduan. Hala ere, Espainiako Geriatria eta Gerontologia Elkarte-ko ordezkarien aburuz, “abandonua handitu egiten da pixka bat udan, baina ez hiri kondairak dioen bezainbat”. Zaharrak ez dira oporretako ihesaldietan joaten, eta litekeena da kopurua hirukoiztu ere egitea udaldian.

ZAHARREN BAKARTASUN-TASAK, ADIN ETA SEXUAREN ARABERA. 2001



Iturria: INE. INEBASE: Censos de Población y Viviendas, 2001. INE 2004. Geuk eginak.

Bakardadeak emakumezko zaharrak jotzen ditu batez ere. Ondoko grafikoan ikusten denez, 85 eta 90 urte arteko emakumezko zaharren heren bat bakarrik bizi dira.

Bakardadea sentitzea da zaharren bizi kalitatea gehien okertzen duten faktoreetako bat, eta, batez ere, GKEek abiatu dituzte planak haien bakardadeari aurre egiteko.

Eztabaida saioetan parte hartu zutenek bakardadeari buruz emandako lekukotasunek tristura handia adierazten dute:

– “Tristea da bakarrik egotea. Oro har, bakarrik egotea tristea da, musika izan edo telebista izan.”

– “Nire ustez, zaharren bakardadea gero eta handiagoa da gizartean. Oso arazo larria da, oso.”

Bertze lekukotasun batek bakardadeak zenbaterainoko tristura sortzen duen berretsi zuen:

– “Klubera joaten naizenean eta bi edo hiru egunez norbait ikusten ez dudanean, denak nahiko zaharrak direla-eta, zera galdetzen dut: ‘Urlia ez da etorri. Ba al dakizue ezer?’. Zenbakia badakit, telefonoz deitzen diot, eta, ez badu hartzen... Hirugarren edo laugarren egunean ikusi eta zera erraten diot: ‘Zer gertatu zaizu? Seme-alabekin joan zara?’; eta zera erantzuten dit: ‘Ez, ohean egon naiz, ez nengoen ondo’. Eta seme-alabak ez dira ama ikustera joan ere egin! Mesedez! Askotan gertatzen da, eta ez erran ezetz, ikusi egiten dugulako, eta min handia ematen du. Zertarako hazi ditugu, bada, seme-alabak!’”

Askok uste dute bakardadea ohikoagoa dela hirietan, baina herrian bizi diren solaskide batzuek erran zutenez, herri txikiak eta baserrietako zaharrak ere bakarrik daude:

– “Denak kanpora joaten dira lanera, bertze herri batera. Bakarrik gelditzen gara. Ez dago inor herrian. Batzuetan, biloba txikia uzten digute, zaintzeko... Hirian, behintzat, kalera irteten ahal dira.”

– “Hemen ezin gara inora joan, ez dago klubik, ezta tabernarik... Hemen, herri txikietan, oso tristea da, batez ere, indarrak ez baduzu, baratzera joaten ahal garen bitartean, behintzat, animatu egiten baikara. Eta ez dezagun hitz egin baserriez.”

– “Orduak, batez ere, oso zaharrei eta gaixoei, oso luze iruditzen zaizkie herrian.”

Ildo horretan, bakardadea nabarmenagoa da Nafarroako Pirinioetan. Izan ere, jende gehiago bizi da bakarrik han, Nafarroan batez bertze baino: Pirinioetan jendearen % 28 bizi da bakarrik, eta Nafarroan, % 20.

Urrutiko laguntza zerbitzuek oso harrera ona izan dute; haiei esker, zaharrak laguntza etxeekin harremanetan jar daitezke, noiznahi. Solaskideek erran zutenez, ez du saihesten bakardadea, baina, nahiko ondo gutxienez, segurtasunik ezak sortzen dituen arazoak konpontzen ditu, eta gaixotu eta inori ezin deitzeko beldurra. Alde horretatik, zerbitzuaren estaldura askoz ere handiagoa da Nafarroan Espainian batez bertze baino.

Gaur egun, kalkuluek diotenez, Espainian 65 urtetik gorako zazpi milioi pertsona daude, eta horietako 45.000k urrutiko laguntza zerbitzua emateko terminalak dituzte etxean; zaharrak eta ezgaituak dira, eta, haiei esker, egunean 24 orduz berehalako laguntza lor dezakete. Zenbaitetan, arazoa ez da osasuna, norbaitekin harremanetan egotea baizik.

B) Familiarteko zaintza eta zainzaileak laguntzea

Zorionez, oraindik seme-alaba askok sentitzen dute Espainian gurasoak lagundu eta zaintzeko "betebehar morala":


– "Ama dut eta, jakina, lagundu egin behar dut. 89 urte ditu, eta ezin dut bakarrik utzi."

Zaharrak zaintzeko lana emakumezkoek hartu dute beren gain historian. Zahar ezgaituen otorduez arduratzea, sendagaiez, bainuaz, eguneroko paseoaz... praktikan, alaben eginkizuna da. Espainiako Estatistika Institutuak egindako txosten batek berretsi zuen zaharrak zaintzeko ardura nagusia alabek hartzen dutela beren gain; hain zuzen ere, alaben % 32 arduratzen dira haiez. Gurasoak 80 urtetik gorakoak badira, kopurua handitu eta % 40koa da.

Emakumezkoak lan merkatuan sartu izanaren ondorioz, aldaketa garrantzitsuak gertatu dira:

– "Oraindik badago kultur gaitz moduko bat, emakumezkoak superwoman izatera behartzen dituena; lan egiteaz gain, gurasoez eta seme-alabaz arduratu ere egin behar dute."

NORK ZAINTZEN DITU EZGAITASUNA DUTEN ZAHARRAK? 1999



Oharra: Bestelako ahaideak: anaia, arreba/ahizpa, ama, aita edo bestelako ahaide bat.

Beste egoera bat: bestelako harremanak eta datu horren informaziorik ez.

Iturria: INE. INEBASE: Encuesta sobre discapacidades, deficiencias y estado de salud, 1999. INE, 2004.

Inkesta horren beraren arabera, ezgaitasunen bat duten gizonezko zaharren % 49 emazteak zaintzen ditu; % 25,1, alabak; eta % 7,9, langile, adiskide edo bizilagun batek. % 3,8 bakarrik zaintzen ditu semeak. Hau da, ezgaitasunen bat duten gizonezko zaharren % 74 emakumezko batek zaintzen ditu.

Ezgaitasunen bat duten emakumezko zaharrei dagokienez, berriz, % 43,5 alabak zaintzen ditu; % 10,3, senarrak; eta % 24,6, bertze senide batek. % 5,6 zaintzen ditu semeak.

Pixkana-pixkana bada ere, hainbat gizonezko ardura hori beren gain ere hartzen hasi dira. Gaur

egun, gurasoak zaintzen dituztenen % 6 semeak dira; duela bost urte bertzerik ez, gizonezkoen % 1 bakarrik arduratzen ziren gurasoez.

Zahar askok, sufritu egiten badute ere, ulertu egiten dute seme-alabek zailtasunak dituztela haiek behar bezala zaintzeko, egungo bizimodua eta erritmoa direla eta:

– "Nork bere lan ordutegia du, edo herrietara joan behar du lan egitera. Ezin dituzte seme-alabak ere zaindu, zer dela-eta zainduko naute ni!"

– "Seme-alabek lanera joan behar dute, ez dute bertze erremediorik, eta zaharrak, ezin badu mugitu, itzuli egiten diren arte itxaron behar du!"

– “Seme-alaba batzuek gurasoak zaindu nahi dituzte, eta bertze batzuek atea itxi eta zahar etxera eramaten dituzte.”

Nafarroako Gobernuako Gizarte Gaietako Departamentuarekin bat, oro har, Nafarroako zahar gehienak etxean bizi dira, bakarrik edo familiarekin; zahar etxeetan leku asko dago; eta zahar etxeetan dauden pertsonak nahi dutelako daude han. Alde horretatik, ados ez badago, inor ezin da bidali zahar etxera.

Gobernuek lana eta mendekotasun egoeran dauden zaharrak zaindu beharra bateratzeko orain arte sustatu dituzten neurriak nabarmen hobetu daitezke.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak ematen dituen laguntzen zenbatekoa Estatuak ematen dituenena baino askoz handiagoa da, baina zenbaitek uste dute senide bat zaintzen dutenei ematen dizkieten laguntzak eskasak direla:

– “Laguntzaileak ordaintzen dituen gisa berean, administrazioak zaharrak zaintzen dituzten senideak ordaindu beharko lituzke.”

Nafarroan bada hitzarmen bat Gizarte Gaietako Departamentuaren eta Nafarroako Gurutze Gorriaren artean, zaharrak laguntzeko ekintzak egiteko, haien beharrei erantzutearren. Alzheimerak jotakoen senideen elkarteak alor honetan egiten dituen zenbait ekimen finantzatzen dituzte.

Bestalde, autonomia erkidego gehienek “bizikidetza unitatea” kontzeptua darabilte etxeko laguntza zerbitzua ordaintzeko laguntzak kalkulatzeko, baina, Nafarroan, haren ordez, Foru Komunitateko administrazioak “familia unitatea” kontzeptua erabiltzen hasi da. Izan ere, errenta finkatu eta dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, bizikidetza unitateetatik etxebizitza berean bizi ziren pertsona guztiak hartzen ziren, eta, ondorioz, jendeak atzera egiten zuen zaharrak etxean hartzeko, haien seme-alabak, ilobak, bilobak, bizilagunak edo dena delakoa izan. Aitzitik, Foru Komunitateko laguntza berriek “familia unitate” kontzeptua darabilte, mendekotasun egoeran dauden pertsonen etxean jarrai dezaten eta haien zaintzen dituzten senideak laguntzeko, eta honako hauek bertzerik ez dituzte hartzen kontuan:

a) Ezkontideek eta seme-alaba adingabeek osatzen duten unitatea, gurasoen adostasuna izanik, haiengandik bereiz bizi direnek izan ezik.

b) Legedia espezifikoren arabera egonkorra den bikoteak eta haren seme-alaba adingabeek osatzen duten unitatea, gurasoen adostasuna izanik, haiengandik bereiz bizi direnek izan ezik.

c) Senar-emazteak legez banantzen direnean, bikotea ezkondata ez dagoenean edo bikotea elkarrekin bizi ez denean, aitak edo amak eta harekin bizi diren seme-alaba guztiak eratzten duten unitatea, aurreko atalek ezartzen dituzten baldintzak betetzen badituzte.

d) Aukeran, familia unitateko kideetatik har daitetzeko lanbide arteko gutxieneko soldata baino diru-sarrera txikiagoak dituzten eta gurasoengandik bereiz bizi ez diren 18 eta 25 urte arteko seme-alabak.

Definizioz ondorioztatzen denez, “familia unitate” kontzeptuak ez die inongo kalte egiten senideek hartzen dituzten zaharrei, senideek etxebizitza berean bizi diren ezkontide edo bikotekide zaharrak izan ezean.

Gizarte Gaietako Departamentuaren ustez, irizpide hori mendekotasun egoeran dagoen pertsonaren banakako errenta baino askoz ere bidezkoagoa eta aurrerakoiagoa da. Dioenez, gogoan izan beharra dago ukazina dela zerbitzu eta laguntza publikoek familiaren gaineko zama eragina dutela; murriztu egiten omen dute. Laguntzak eskatzailearen errentaren eta ondarearen arabera bakarrik ematen badira, berdintasun erreala lortu eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen errenta mendekotasunari aurre egiteko osatzeko helburuak aldatu egiten dira askotan. Baliabide ekonomiko nahikoak dituen familia unitateko kide den eta mendekotasun egoeran dagoen pertsona ez du arazorik, baina, familiarako zama kontuan hartzen ez badira, mendekotasun egoeran murgiltzen diren eta senideez arduratu behar duten pertsonen arazoak ez dira konpontzen.

Ulergaitza litzateke eta ez litzateke etorriko bat berdintasun erreala alderantzizko printzipioarekin, senar-emazte zaharren artean, batek zerbitzuak eta laguntzak eskuratzeko ahalmen ekonomiko handiagoa izatea, hau da, errentak nork eskuratu dituen edo, areago, ezkondu aurretik zer araubide ekonomiko hitzartu zuten begiratzea. Bestela erranda, Departamentuaren arabera, elkar laguntzeko legeko betebeharra abiapuntu hartuta, erabat arrazoizkoa dirudi senar-emazteak unitate ekonomikotzat hartzea xedatutako zerbitzuak eta laguntzak emateko.

C) Diskriminaziorik gabeko osasun laguntza

Medikuntzan, ohikoa izan da adina irizpide garrantzitsu edo, areago, irizpide erabakigarritzat hartzea proba osagarri jakinak egin ala ez, teknologia berriak erabili ala ez, espezialistarengana bideratu ala ez, ebakuntza egin ala ez, errehabilitazio tratamendu jakinak aplikatu ala ez, zaintza intentsiboko unitateetara, bihotzeko gaixoendako

unitateetara, dialisi unitateetara eraman ala ez... erabaki, larrialdi zerbitzuetan, ebakuntza egiteko itxaron zerrendetan, transplanteak egiteko eta bularreko minbiziari aurrea hartzeko programe-tan... lehentasunak ezartzeko, etab.

Irizpide hori, ordea, zalantzan dago, gero eta gehiago, eta hainbatek erakundeen diskriminazio-tzat hartu dute.

Adina faktore gisa kontuan hartzea baliabide eskasak modu eragingarrian erabili beharrekin lotu izan da, eta arrazoitzat eman izan da lehenta-suna baliabideok etekin handiena ateratzen dutenekin erabiltzeari eman beharra.

Alabaina, erabaki horrek arazo etikoak eragin ditu:

– Dagoeneko gerra ekonomia aplikatu behar ez dugula diote eta, horrenbestez, behar adina baliabide bideratu behar direla.

– Adina bera pronostikoak egiteko faktore era-bakigarria ez dela diote, gaixo bat une jakin batean zer osasun egoeratan dagoen baizik. Izan ere, litekeena da 70 urteko pertsona osasuntsuaren pronostikoa gaixotasun jakin batzuek jotako per-sona gazte batena baino hobea izatea.

Zorionez, transplanteak egiteko, minbizia bahe-tzeko programak aplikatzeko, bihotzeko ebakun-tzak egiteko... irizpideak gero eta zabalagoak dira, baina oraindik ere baliteke, oharkabean, inor dis-kriminatzea, eta diskriminazio hori gainditu egin behar da.

Oro har, eztabaida taldeetan parte hartu zute-nek ez dute asko sumatzen diskriminazioa, edo naturala dela onartzen dute, neurri batean behinik behin:

– “Bada erraten duenik: ‘Beno, zaharrak dira, nola ez dute bada minik izanen’”.

Zenbaitetik atsekabea adierazi zuten oraindik ere badelako medikurik gaitz guztiak eta, areago, heriotza adinari egozten diona, haiek benetan era-giten dituzten arrazoietan sakondu ezean:

– “Medikuak zera erran zidan, amaginarrebaz ari zela: ‘Zahartasunak hil du andre hau, ez alzhei-merrak’. Sutan jarri ninduen”.

– “Hemengo kardiologo batekin hitz egiten egon nintzen –ez dut izena erranen–, eta, zioenez, ‘zaharrak zerbaitek hil behar ditu’. Txundituta geldi-tu nintzen”.

Parte hartzaileek erran zuten, proba batzuk ez dituzte egiten, bertzerik gabe, gaixoak adin jakin bat bete duelako.

Ildo horretan, uste dute familiako medikuek zaharrak ez dituztela bidali ohi espezialistengana, ez omen delako beharrezkoa. Oro har, zaharrek onartu egiten dute medikuaren erabakia, baina bada kezarik:

– “Hiru urte daramat kekatzen, doktoreak espe-zialistarengana bidai nazar”.

Zaharrek are gehiago nabaritzen dute osasun zerbitzuen alorrean lurraldeen artean dagoen ore-karik eza, haiek baitira erabiltzaile nagusiak. Alde horretatik, landa eremuko biztanleek gehiago sumatzen dute, hango zahartzea dela eta:

– “Jaiegunak elkarren segidan direnean, herrie-tan ez da zerbitzurik. Erretirodunek galtzeko auke-ra guztiak ditugu”.

Ildo berean, osasun zerbitzu espezializatuak erabiltzeak asko kezkatzen ditu zaharrak eta, batez ere, emakumezko zaharrak. Izan ere, zerbi-tzuok hiri handietan daude, eta zaharrek mugak dituzte osasun zerbitzuetara joateko, gehienez ez baitute autorik eta oso baliabide ekonomiko muga-tuak baitituzte. Honako lekukotasun hauek jende askoren egoeraren adierazgarri dira:

– “Zaharren arazo nagusietako bat da % 90ek ezin dugula gidatu Iruñera, eta Iruñean ez dutela adeitasunik hitzordua autobusaren ordutegiarekin bat etortzeko moduan egiteko. Taxia hartzeko ere erran izan digute”.

– “Emaztea erikorra da, eta medikua sei aldiz etorri behar izan zen etxera. Azkenean, haserretu egin nintzen ia, baina emaztea gero eta okerrago zegoen, eta Iruñera eraman behar nuela erran zidaten. Ez da nagikeria kontua, baina emaztea anbulantziak joateko moduan zen, eta ez zegoen anbulantziarik. Larrialdi zerbitzuetara joan ginene-an, hiru anbulantzia iritsi ziren: bihurrikieriatan ibili ziren hiru gazte zeramatzen. Anbulantzian ekarri zituzten, medikudun anbulantzietan gainera, eta poliziek, baina emaztearentzat ez zen anbulan-tziarik. Lotsagarria da”.

Geriatría arloan langile espezializaturik ez iza-teak ere eztabaida anitz eta sutsuak piztu zituen.

Zaharrek gero eta gehiago aldarrikatzen dute osasun etxeetan geriatrak izan beharra, gaixo gehienak zaharrak direnez gero:

– “Atarrabiako osasun etxean pediatriak, familia-ko medikuak daude, baina ez dago geriatrarik. 11.000 biztanleri eta Ezkabarteko ibarrari ematen diote zerbitzu, baina ez dago geriatrarik”.

– “Osasun etxera astean hirutan pediatria etor-zen den gisa berean, geriatría ere etorri beharko litzateke”.

– “Ama batek badaki seme-alabak pediatarrengana eraman behar dituela. Zer dela-eta ez dago geriatra, zaharren gaitzak tratatzeko, aurrez familiako medikuarengana joan beharrik gabe?”

– “Especialista bat izan beharko genuke, zaharren berezko gaitzak tratatzeko.”

Zenbait parte hartzailek alor honetan adituak diren teknikariak izan beharra ere aldarrikatu zuten, baina ez zuten zehaztu non kokatu behar duten sistemaren barnean:

– “Gobernuan badira kultura teknikariak, etab. Bada, zahartzaroaren alorreko teknikariak ere izan beharko lirateke.”

Gai honetan adituak direnek geriatría sendotu beharra eskatzen dute. Ildo horretan, Espainiako Geriatría eta Gerontologia Elkarteko kide Isidoro Ruipérez doktoreak zera adierazi berri du, Iruñean:

– “Nafarroako osasun sistema bikaina da, baina geriatría konpondu gabeko auzia da.”

– “Geriatrek laguntza espezializatua ematea oinarritzko zerbitzua da, oinarritzko eskubidea da, inolaz ere ez da luxua. Frogatu egin dute, zerbitzu egokiak izanez gero, urteei bizia emateko xedea lortzeko modukoa dela.”

Bileretan parte hartu zuten geriatrek ere eman zuten iritzia:

– “Gure iritzia zein den? Zahar asko dauden erakundeetan, zentroetan, sistemetan... geriatrak izan behar direla, hala nola, zahar etxeetan.”

– “Arazoa ez da geriatra nahikoak ez izatea soilik; aitzitik, osasun eragileek, bai medikuek eta bai erizainek, geriatría jakin beharko lukete. Hori da egungo gabezia, baina asko hobetzen ari gara.”

– “Jende gaitua behar da alor honetan; alegia, familiako medikuak geriatría eta gerontologia behar adina jakitea, urologoak behar adina jakitea, kardiologoak behar adina jakitea. Pediatrak ez jakitea ez dio axola, baina gainerakoek jakin egin behar dute.”

Eztabaidak entzun ondoren, argi eta garbi dago zaharrak ikaragarri kezkatzen dituela osasun laguntzak. Erran bezala, CISek 2006ko irailean egin zuen inkestaren arabera, osasuna da zaharren kezka nagusia. Inkesta horren beraren arabera, % 39,2k erdipurdikotzat du bere osasun egoera, eta % 11,6k, txartzat; alderantziz, % 7,4k oso ontzat jotzen du, eta % 39,1ek, ontzat.

Nabarmendu beharra dago eztabaidetan hartu zuten pertsona askok erran zutela “medikuntza”

gero eta okerragoa dela. Arrazoitzat immigrazioaren ondorioz izandako biztanleriaren hazkundera eta aurrekontuaren eskasia eman zituzten, baliabideak eskari berrietara egokitzea eragozten dutelakoan. Edonola ere, ondorioa da osasun laguntzari buruzko iritzia ez dela ona. Hona hemen parte hartzaile askoren iritzia laburbiltzen duten zenbait lekukotasun:

– “Osasun laguntza gero eta okerragoa da, guztien laguntza eta adin guztiena.”

– “Zaharren ikuspegitik, are okerragoa da, gehiago behar dutelako osasun sistema. Itxaron zerrenda izugarria da. Nik urtebete ere itxaron behar izan dut ebakuntza egiteko.”

Bagenekien zerbait egiaztatu ere egin dugu: irizpide teknikoak aldatu eta ginekologia azterketak hiru urtean behin egiten hasteko arrazoa ez diete behar bezala argitu herritarrei, eta askok ez dute ez ulertu ez onartu:

– “Hiru urtean behin... Hiru urtean behin minbizia sortu eta hil egin gaitezke; bestela, dirua gastatu behar dugu. Alegia, bi urtean behin hitzordua eskatu eta urte eta koska itxaron behar da. Oso gaizki iruditzen zait, zerbait nahi izanez gero, mediku partikularrarengana joan behar baitugu azterketa egitera.”

D) Mendekotasunari aurrea hartzea eta autonomia sustatzea

Eztabaida taldeek ez dute gai hau landu, baina, hala ere, ezin aipatu gabe utzi, labur-labur bada ere.

Bernardo López Majano enpresak aholkatzeko boluntarioen elkarteko kontseilariak dioenez,

– “Espainian, zaharren mendekotasuna fenomeno halabeharrezko eta saihestezintzat hartzen da; lehenago edo geroago, denboraren poderioz, zaharrak jotzen dituen fenomenotzat.”

Egia erran, orain arte, oso diru gutxi inbertitu da mendekotasunari aurrea hartzeko programean, Espainiako Geriatría Elkarteak behin eta berriro salatu duenez.

E) Kalitateko gizarte laguntza

Kalitateko gizarte laguntza da zaharrek gehien sumatzen duten bertze beharretako bat.

Alde horretatik, Nafarroan ematen duten gizarte laguntza bigarrena da Espainiako autonomia erkidegoetakoan artean.

Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen indizea, autonomia erkidegoen arabera

	Etxeko laguntza	Urrutiko laguntza	Eguneko zentroak	Zahar etxeak	Guztira
Andaluzia	3,48	1,79	0,33	2,84	8,45
Aragoi	3,07	2,66	0,34	4,46	10,54
Asturias	3,26	1,76	0,37	4,06	9,44
Balearrak	2,09	1,89	0,24	2,84	7,06
Kanariak	2,69	0,62	0,23	2,89	6,43
Kantabria	1,92	0,48	0,35	4,01	6,77
Gaztela eta Leon	3,12	2,54	0,35	6,12	12,13
Gaztela-Mantxa	4,87	3,93	0,24	5,06	14,09
Katalunia	3,87	0,79	0,95	4,37	9,98
Valentziako E.	1,67	1,87	0,25	2,52	6,31
Extremadura	7,41	1,34	0,44	3,68	12,87
Galizia	1,91	0,67	0,18	2,08	4,84
Madril	3,37	4,57	0,70	4,56	13,20
Murtzia	1,76	1,35	0,42	2,25	5,79
Nafarroa	3,56	4,68	0,38	5,32	13,95
Euskadi	1,77	2,26	0,55	3,90	8,48
Errioxa	3,41	1,25	0,48	4,71	9,86
Ceuta	3,44	0,43	0,30	1,67	5,84
Melilla	3,15	2,97	0,34	2,72	9,18
Espainia	3,14	2,05	0,46	3,78	9,43

Iturria: Autonomia erkidegoak, hiri autonomoak eta foru aldundiak.

Espainiako Estadistika Institutua (2004), Biztanleriari buruzko Datuak; udal errolda (2003ko urtarrilak 1).
Geuk egina.

Hala ere, egoera hobetu egin daiteke.

Zaharrek Nafarroako gizarte zerbitzuei buruz duten iritziari dagokionez, zera antzeman dugu.

F) Oinarrizko gizarte zerbitzuak

Oinarrizko gizarte zerbitzuen lehen mailako sareak erkidegoaren eta zaharren askotariko beharrei erantzuten die. Zaharrek oso ontzat dituzte, baina badute eragozpenik, saturatuta omen baitaude eta ezin omen baitiete behar bezala erantzun erkidegoaren eta zaharren behar guztiei:

– “Oinarrizko gizarte zerbitzuak blokeatuta daude, izapide administratiboak direla eta”

G) Etxeko laguntza

Nafarroan, etxeko laguntza ez da oinarrizko gizarte zerbitzuek ematen duten etxeko laguntza zerbitzua bakarrik, Gizarte Gaietako Departamentuak etxeko laguntza ordaintzeko ematen dituen diru-laguntzak ere baizik; harekin bat, Nafarroako Foru Komunitatea Espainiako autonomia erkidegoen buru da alde horretatik. Halaber, larrialdietako telefono bidezko zerbitzua, etxebizitza egokitzeko laguntzak, laguntza teknikoak, mugitzeko laguntzak eta eguneko laguntza zentroak ere etxeko laguntzat hartzen dira.

Mendekotasunari buruzko Legearen arabera, etxeko laguntza zerbitzua mendekotasun egoeran dauden pertsonen etxean egiten diren ekintzak dira, haien eguneroko beharrei erantzuteko, eta erakundeek eta enpresek ematen dute, horretarako egiaztagiria lortu ondoren. Zerbitzua honako hauek osatzen dute:

a) Etxeko beharrei erantzuteko zerbitzuek (garbiketa zerbitzuek, otorduak prestatzeko zerbitzuek eta abarrek).

b) Eguneroko bizitzako ekintzak egiten laguntzeko zerbitzuek.

Horiek hala, bertze autonomia erkidegoetakoan aldean, zerbitzu honen Nafarroako estaldura Espainiako batez bertzekoa baino handiagoa da, baina bertze autonomia erkidegoen batekoa baino okerragoa, eta, ezbairik gabe, Eskandinaviako herrialdeetako baino askoz okerragoa.

Halere, zerbitzuaren ordutegia gainerako autonomia erkidegoetakoena baino murriztagoa da, ondoko taulak erakusten duenez. “Zaharrak Espainian (2004)” txostenetik atera dugu, eta txostena Zaharren Behatokiak egin zuen, IMSERSOren mendeko erakunde batek. Ikusiko dugunez, datua zaharrek helarazi zizkiguten lekukotasunekin bat dator.

*Etxez etxeko laguntzako zerbitzu publikoa Espainian.
Ordu kopuruaren bilakaera, autonomia erkidegoaren arabera. 1995-2004.*

	1995	1999	2001	2002	2003	2004
Andaluzia	17,00	—	8,76	9,50	10,07	8,00
Aragoi	14,32	16,50	16,50	16,50	11,00	10,00
Asturias	8,40	15,09	15,40	13,28	18,00	13,00
Balearrak	18,96	—	12,00	12,00	12,80	12,80
Kanariak	21,44	—	12,00	12,00	12,00	10,00
Kantabria	22,76	9,83	9,83	24,14	40,00	20,53
Gaztela eta Leon	17,24	18,00	21,62	19,00	19,30	19,00
Gaztela-Mantxa	18,68	20,00	20,15	18,00	20,00	19,24
Katalunia	14,92	19,35	6,80	12,50	12,50	14,00
Valentziako E.	18,60	13,00	13,00	13,00	—	10,82
Extremadura	15,80	11,00	9,50	11,00	12,00	22,00
Galizia	19,20	12,00	34,00	32,22	27,28	29,00
Madril	19,76	18,00	14,50	17,00	13,00	16,85
Murtzia	21,52	15,50	15,00	15,00	16,78	17,00
Nafarroa	12,08	12,00	11,48	11,48	—	8,76
Euskadi	22,12	25,20	23,59	24,00	24,48	25,00
Errioxa	20,24	10,00	12,00	12,00	15,39	13,00
Ceuta	18,16	10,00	12,00	24,00	24,00	22,00
Melilla		17,49	20,00	24,00	19,00	21,20
Espainia	20,63	15,19	15,16	16,87	18,09	16,43

Eztabaida taldeetan parte hartu zuten zaharren ustez, etxeko laguntza da egokiena:

– “Aitona-amonok eta aitona-amonak izateko bidean gaudenok etxean egon nahi dugu. Alde batetik bertzera ibiltzea, nork bere arazoak eta bitxikeriak dituen jendearekin...”

– “Hoberena etxean egotea da, laguntzen gaituen pertsona maite bat badugu betiere.”

– “Nire ustez, nork gaitasuna izaten jarraitzen badu, ahal duen artean, hobe da gauzak egiten dizkion norbait etxera joatea, janaria administratzen diona, enkarguak egiten dizkiona... gauean bakarrik geratu behar izanda ere.”

– “Bizimodu normala izateko, nork bere etxean, gaixo egon ezean, pertsona bat egunean pare bat ordutan joan beharko litzateke, egunero. Hartara, jendea ez litzateke joanen zahar etxera, ezta gutxiago ere; etxean geratuko litzateke.”

– “Zaharrak herrian geratzearen alde gaude, eta, horretarako, etxeko laguntza behar da. Espainia gero eta zaharragoa da, eta gauza horiek gutxiak behar dira.”

Bestalde, Gizarte Gaietako Departamentuak ez du ezer erratekorik iritzi horri buruz; alegia, bat dator etxeko laguntza dela onena, etxeko udal zerbitzua ez den bertze aukera batzuk kontuan hartzen badira, eta hobeto errespetatzen duela laguntza emateko ereduen aniztasuna eta zaharrek nork zain ditzan nahi duten aukeratzeko eskubidea. Areago, Departamentuak emandako datu baten arabera, mendekotasun egoeran dauden

pertsonak etxean jarraitzeko eta haiek zaintzen dituzten familiak babesteko laguntzak sortu zirenetik, 132 pertsonak egin diote uko etxeko udal laguntza zerbitzuari, bertze laguntzekin bateragarria izan arren. Gainera, laguntzen eskatzaileen % 82k aukeratu dute senideren batek zain ditzan, nahiz eta laguntzaren zenbatekoa nahiko txikiagoa den horretarako kontratatutako pertsona batek ematen duen zerbitzua ordaintzeko ematen denarena baino.

Etxeko laguntza nahiko hedatuta dago, baina eskasa eta, sarri askotan, osatugabea dela jotzen da halere, kanpotiko laguntza denbora aldetik laburra delako batik bat. Izan ere, profesionalak oso ordutegi mugatuetara egokitu behar dute:

– “Egunean bi orduz joaten dira, baina gutxi da, ez da nahikoa.”

– “Bi ordu ez da nahiko, ikusi ditudan eta ikusten ari naizen egoeretan bederen. Bi ordutan garbiketa egiten dute eta ondo zaintzen dituzte, baina bi ordu bertzerik ez dira. Nire ustez, ez da nahikoa.”

– “Etxeko laguntzak bere kasa moldatzen diren pertsonen balio die, baina laguntza ordu gehiago behar dira, erosketak egiteko, etxea txukuntzeko eta janaria prestatzeko.”

Solaskideak kexu dira, langile gutxi daudelako:

– “Zangozaldekua da nik hobekien ezagutzen dudana egoera. Hain langile gutxi daude, Gizarte Ongizateak, ezgaitasunen bat dela-eta, etxeko bi laguntza ordu egokitzen badizkio pertsona bati,

ordubetez bakarrik joaten dira. Zer gertatzen da? Bada, langile gutxi daude, eta, herriz herri ibili behar badute, denbora galtzen dute bidaiatzen.”

Bertze batzuk administrazioak ematen dituen laguntzak eta zerbitzuak murriztu direlako dira kexu:

– “Lehen pertsona bat joaten zen, bi egunetan bi orduz, baina bost urte pasatu dira, pertsona okerragoa dago eta astean hirutan ordubetez bakarrik joaten zaizkio.”

– “Gero eta gehiago nabari da Gizarte Ongizateak edo dena delakoak laguntza txikiagoa ematen diela zaharrei eta mendekotasun egoeran dauden pertsoneri. Euskadikoarekin eta Kataluniakoarekin batera, zerbitzurik onenetakoa zen Nafarroakoa, baina, orain, uste izatekoaren azpitik dago. Gero eta laguntza ordu gutxiago ematen dituzte.”

Bertze batzuek, berriz, uste dute gero eta eskakizun gehiago bete behar direla:

– “Eskakizunen kopurua gero eta... la... ‘Gutxi-egi duzu-eta’... ‘Pentsioa duzu-eta’...”

Prestakuntza espezifikoko falta antzematen da, eta etxeko laguntza ematen duten profesionalen eskumeneko lanak mugatuta daudela; izan ere, zaharrak egin ezin dituen gauzak egiten dituzte, baina hark inorekin harremanetan izateko, hitz egiteko, informazioa eman eta hartzeko... beharra ere du.

– “Ez daude prestatuta. Zera erraten diete: ‘Astean behin, edo astean bitan, andre honengana ordu eta erdiz joan behar duzu’. Eta joan egiten dira, eta bainatu egiten dituzte eta azazkalak moztu dizkiete eta erostetak egitera eramaten dituzte. Horrelako gauzak eta kito. Ez dago prestakuntza gehiagorik.”

Eskertu egiten dute etorkinek bertze gabezia batzuk betetzea:

– “Eskerrak kanpoko neskak (etorkinak) etorri diren eta arazoa pixka bat konpondu dugun.”

– “Gaixo bakoitzak bere ekuadortarra du. Eskerrak.”

Etxeko laguntzak, baina, badu arazorik ere: zaharrak jotzen dituen bakardadea, gauez batez ere:

– “Nire ustez, inor bakarrik dagoenean eta “jota” dagoenean, gaua da garrantzitsuena; nire ustez, gauari, ezin lo egiteari, goizeko lauretan esnatu eta bakarrik sentitzeari, horri egin beharko liokete aurre.”

– “Gazteak ginenean, bazen kongregazio bat, gauez bakarrik zeuden pertsonak laguntzeko. Gaueko hamarretan edo zortzietan sartzen ziren eta goizeko zazpitan ateratzen ziren.”

Gai hau ez dugu egiaztatzerik izan taldeen bileretan, baina Nafarroako arartekoaren txostenek behin eta berriro azaleratu zuten ez dagoela orerarik lurraldeen artean etxeko laguntza zerbitzuak erabiltzeko. Izan ere, zerbitzuaren estaldura eta intentsitatea dena delako udalerriko edo mankomunitateko agintarien sentiberatasunaren arabera da erabat.

Gainera, CISEk 2006ko irailean zaharren bizi baldintzei buruz egindako inkestaren arabera, galdetutako % 55,6 ordaintzeko prest daude laguntza behar badute, eta % 15,1, berriz, ez.

H) Zahar etxera joatea

Zahar etxeetan dauden tokien kopuruari dagokionez, Nafarroa leku onean dago Espainiako autonomia erkidegoen zerrendan. Hala ere, parte hartzaileek uste dute zahar etxeen kopurua eskas dela.

Iritzi hori Gizarte Gaietako Departamentuaren iritzia kontrakoa da: “Nafarroako Foru Komunitatean, zahar etxeen estaldura indizea 5,6 tokikoa da 65 urtetik gorako 100 biztanleko. Batez bertekoa 3,7 tokikoa da, eta, Espainian, Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoko indizea baino ez da handiagoa. Gainera, eskariaren azterketak eta II. Gerontologia Plana egiteko txosten diagnostikoenak, eta txosten zirriborro honek, adierazten dutenez, oro har, zaharrek nahiago dute etxean gelditzea ahalik eta luzaroen, eta eskaria zaharrek etxean jarraitzeko baliabideei buruzkoa da, zahar etxeen ingurukoa baino gehiago. Gaur egun, 224 pertsona daude itxaron zerrendan zahar etxe publiko edo itundu batean lekua lortzeko, eta 85, psikogeriatría etxe publiko edo itundu batean askotariko tokiak lortzeko. Dena dela, zahar etxe pribatuetan gizarte tokiak daude.”

Eskasiari buruzko iritzi subjektiboa nabarmenagoa da landa eremuan, zaharrek ez baitute onartzen herritik urrun dagoen zahar etxe batera joatea, erreferente afektiboak eta gizartearekiko harremana galtzen dituztelako.

– “Nik ez dut nahi nire girotik atera nazaten.”

– “Familiartean egon daitezela eta bakarrik ez uztea. Adibidez, Lizarran, aitona-amonak Logroñora eramaten dituzte, eta gaixoak bakarrik hiltzen dira. Zahar etxera joan behar badute, behintzat, familiarengandik gertu egon daitezela.”

– “Zahar etxera joateak zaharren bakardadea areagotzen du.”

– “Ez dugu nahi zaharrak herritik joatea. Murchanteko bat Cascantera joan behar izan da zahar etxera, eta berehala tristurak jota hil da.”

– “Leitza, Areso, Lekunberri, Larrantz inguruko zaharrendako zahar etxea Betelun dago, baina 300.000 edo 340.000 pezeta behar dira hara joateko. Nork arraio du halako pentsioa? Batzuek izanen dute ondasunik, baina ez dutenek? Bada, zahar etxera joan gabe gelditzen dira. Horregatik, Betelun toki asko dago.”

Nafarroako Gobernuak bi zahar etxe publiko ditu: Santo Domingo, Lizarran, eta El Vergel, Iruñean. 300 toki baino gehiago daude eta, nagusiki, baliabide gutxi dituzten pertsonentzat dira, eta merkeak.

Gainera, irabazi asmorik ez duten 34 zahar etxe daude, udalen ekimenez sortutakoak, eta horiek ere baliabide gutxi dituzten pertsonentzat eta merkeak dira. Esaterako, Iruñean, La Misericordia zahar etxean 355 zahar bizi dira eta 200 lagun baino gehiago itxaron zerrendan daude.

Azkenik, erakunde pribatu batek (Gestion Asistencia Ribera sozietateak) kudeatzen dituen dozena bat udal zahar etxe daude; La Vaguada eta Amma zahar etxeak, hurrenez hurren, Rural Kutxarena eta Nafarroako Kutxarena –guztira, 800 toki daude haietan–; eta hainbat zahar etxe pribatu.

Guztira, 5.000 bat toki daude. Zahar etxe publikoetako eta irabazi asmorik gabeko zahar etxe pribatuetako tokiak beteta daude, baina zahar etxe pribatuetan bada tokirik.

Halako desberdintasuna tokiaren prezioa da: zahar etxe pribatuetan ia 1.000 euro ordaindu behar da hilabetez, zahar etxe publiko batean –600 euro– edo irabazi asmorik gabeko batean –1.000 euro– halako bi.

Oro har, parte hartzaileek iritzi ona dute zahar etxeei buruz:

– “Zahar etxeetako laguntza zoragarria da zaharrak gizarteratuta jarraitzeari, osasun laguntzari eta eguneroko bizitzako beharrei eta behar fisiologikoei erantzuteari dagokienez.”

– “Zahar etxeak aldatu egin dira –nire ustez, onerako– zenbait aldetatik; erraterako, gizatasunaren aldetik, Maitek erran duenez, aztertu egin izan baitu. Badira gabeziak, baina, oro har, zahar etxeak hobetu egin dira eta, jakina, garestiagoak dira, baina zahar etxetik kanpo eman ezin duten zerbitzua ematen dute.”

Aitzitik, zenbait zaharrek nahiko iritzi txarra dute zahar etxeei buruz. Uste dute askatasunik gabe geldituko direla eta ez dituztela tratatuko etxean tratatzen zituzten bezala:

– “Oraindik, gure belaunaldikook gure baitan uste dugu zahar etxeak lehengo zahar etxeak bezalakoak direla.”

– “Gaixok han dabilta, alde batetik bertzera, jakina, ez dutelako ahalmenik ez jolasteko ez hitz egiteko ez ezertarako.”

– “Senar-emazte batzuk ezagutzen nituen nik, zahar etxera joan eta kanpora irteten zirenak, urdaiazpikoa-eta eroatera, zahar etxeko janaria ez omen zelako ona.”

Iritzia eman zutenen ustez, arazorik larriena gelan bertze norbaitekin bizi beharra da. Bada zahar etxetik joan direnei buruzko lekukotasunik, gelakidearekin bizi ezin zutelako:

– “Arazoa banakoendako gelen eskasia da.”

Ahal duten bitartean etxean seme-alabekin jarraitu nahia orokorra da zaharren artean, autonomia, independentzia, askatasuna dutelako hartara:

– “Oro har, ahal duen bitartean, jende guztiak etxean bizi nahi du, eta logikoa eta normala da. Bertze kontu bat da gizarteak, oro har, bere gain hartzea pertsona bati etxean jarraitzeko behar duen laguntza guztia ematea.”

– “Seme-alabek edo emazteak babesten gaituztenean, edo andrea senarrak babesten duenean, eta bilobak ditugunean, zahar etxera joatea banantzea da, bakarrik egotea, jendez inguratuta egon arren, hutsa baita.”

Askok eta askok badakite ezin dela beti etxean jarraitu, eta askok etsipenez onartzen dute, baita saminez ere:

– “Seme-alaba batzuek etxean izan nahi dituzte gurasoak, baina ezin dute. Orduan, zera erraten dute: ‘Goazen zahar etxea ikustera.’”

– “75 urte ditugunean, seme-alabak lanean izanen dira, eta etxeak txikiak dira, ez dago tokirik. Eta zahar batzuek egunean 24 orduz behar dute laguntza.”

– “Egoera batzuetan, baldintzak nagusitzen dira, eta jendeak zahar etxera joan behar du, baina ez nahi duelako.”

– “Etxeko laguntza zerbitzua bi ordukoa da, eta egunak 24 ordu ditu. Beraz, bakardade ordu luzeak ditugu, eta, ordaindu ahal badugu, aparteko laguntza dugu, baina, bestela, zahar etxera joan behar dugu.”

Hainbatek normalizat dute seme-alabek haiek zaintzea beren gain hartu ezina:

– “Zaharren belaunaldi berria osatzen dugunok argiago ditugu gauzak. Jakin badakigu seme-alabek ezin gaituztela zaindu, lan egiten dutelako, eta gero eta garbiago dugu zahar etxera joanen gaitela. Gainera, nire ustez, hobe da, jendearekin egon ohi bagara, gero bakarrik gelditzea baino, hobe delako inguruan jendea izatea.”

Dela segurtasun arrazoiak direla-eta, dela laguntzaren kalitatea, bakardadea edo bertze arrazoi asko direla-eta, zahar etxea zahar askoren etorkizunerako aukera bat da:

– “Senarrari kontzientzia harrarazi diot dagoneko; ez dugu bertze erremediorik. Ez dakit zer izanen dudan zahar etxean, baina kontua da, seme-alaben arbuioak edo laguntza eskasak halako mina emanen dit, ez dudala ikusi nahi; ez dut arbuiorik sentitu nahi.”

– “Zahar etxean behar dudan guztia izanen dut. Agian, ez dut izanen maitasunik, familiak ematen duena bezalakoa. Ikusten dut langileek maitasunez tratatzen dutela jendea, baina hotzagoa da. Gurean gurea da, eta zahar etxean ez dago halakorik.”

– “Etxean segurtasuna ematen badigute, etxean, eta, bestela, zahar etxera.”

Gero eta zahar gehiagok uste dute zahar etxeak mendekotasun handi bat dutenentzat direla, funtsean:

– “Egia da: zahar etxera ez da joaten nahi duena, behar duena baizik.”

– “Nire ustez, zahar etxeak aukera ona dira pertsonak bere burua gaizki ikusten duenerako eta ezin duenerako.”

– “Zahar etxeak familia ez dutenentzat dira, bakarrik daudenentzat edo gaixo daudenentzat eta bere kasa ezin moldatu direnentzat.”

– “Familia dutenek ez dute zertan zahar etxera joan, nire ustez. Etxean egon behar dute.”

– “Jendeak etxean zahartu nahi du. Noiz joaten dira zahar etxera? Ezin dutenean. Eta noiz ezin dute? Funtsean, gaixotasun psikikoren bat dutenean, demenzia prozesuan murgiltzen direnean.”

Zahar etxera joatea borondatezkoa izatea eta zaharrak hori onartzea faktore erabakigarria da:

– “Alabak zahar etxe batean lan egiten du duela zortzi urtez geroztik, eta, dioenez, oso ondo zaintzen dituzte, gauez eta egunez. Baina, dioenez, alde ikaragarria dago nahi dutelako joaten diren

eta seme-alabek sartzen dituzten zaharren artean. Zahar batzuei dirua kendu diete seme-alabek eta zahar etxean daude, botila huts bat baino tristeago. Bertze batzuek zera diote: ‘Hementxe gaude’.”

Alde horretatik, Gizarte Gaietako Departamentuak gogorarazi du zahar etxera joateak borondatezkoa izan behar duela, eta Departamentuak inongo salaketarik hartu ez duela erantsi du.

Zalantzarik gabe, zahar etxeei buruzko kexa nagusia prezioei buruzkoa da:

– “Zahar etxeak oso garestiak dira eta inor ezin da joan. Nora joanen da 70.000 pezeta kobratzen duen zaharra? Nahi izanda ere, ezin du. Hortaz, zer egin dezakegu seme-alaben laguntzarik ez dugun zaharrok? Seme-alaba batzuek ez dute egon nahi gurasoekin.”

– “Nork nahi izanda ere, ezin da zahar etxera joan, erretiroa ez da-eta nahiko hura ordaintzeko.”

– “Nire ustez, oso zaila da zahar etxera joatea, oso garestia delako eta, oro har, pentsioen zenbatekoa oso txikia delako.”

– “Zahar etxera joan nahi duten egungo zaharrek pentsio nahikoa izan behar dute, baina, gehienak nekazariak izan direnez gero hemen, gutxieneko pentsioa 400 euro eta koskakoa da.”

Zenbaitek uste dute, kostuak murrizte aldera, familiak behartuta daudela bazkalorduan joatera, laguntzera:

– “Beraz, zahar etxera eramaten dut, baina jaten ematera joan behar dut, aitari edo amari edo osabari jaten ematera joan behar dut. Izan ere, jendea... Hori da, lehengo egunean zahar etxe horretan bertan ikusi nuen. Hortaz, gosaltzen ematera joan behar dut, etab., jakina, bertzeek baino diru gutxiago ordainduta, zahar etxeetako prezioak garestiegiak baitira.”

Gizarte Gaietako Departamentuaren ustez, baieztapen hori onartezina da, foru legediak berariaz debekatzen baitu kostuak hala murriztea.

Arazoa are larriagoa da laguntza behar dutenendako tokiei dagokienez. Horixe erran zuten, behinik behin, zenbait parte hartzailek:

– “Badut esperientziarik zahar etxeekin, emazteak alzheimerra izan baitzuen hamabi urtez... Pentsioaren % 50 etxera etortzen zen laguntzaileari ordaindu behar izan nion. Zahar etxeek asko eskatzen zuten: dirua, arropa eta mihise sorta, baita emaztea zahar etxean bertan laguntzen zuen norbait. Hori dela-eta, pertsona bat kontratatzea erabaki genuen, baina etxerako.”

Zenbait kexa zerbitzuaren “privatizazioari” buruzkoak dira:

– “Gainera, Nafarroako Gobernua sektore pribatuaren esku uzten ari da zahar etxeak”

– “Lagunartean eta jendaurrean, klan eta mafia batzuekiko permisibitatea kritikatu nuke, dirua irabaztea bertzerik ez baitute helburu”

Eztabaida talde batzuek zahar etxe pribatuak oro har ere kritikatu dituzte, kalitatearen eta prezioaren arteko egokitasuna egokia ez dela eta:

– “Amaginarrebaren ahizpa zahar etxe pribatu batean dago eta 380.000 pezeta ordaintzen du. Laguntza erdipurdikoa da, eta, are, txartxoak”

– “300.000 pezeta kobratzen dute, eta, zer zerbitzu ematen duten ikusirik, gehiegizkoa iruditzen zait. Eta nahiko sektore txikiak soilik ordain dezake”

– “Nire ustez, zahar etxeetan gehiegi ordaintzen da nori zer ematen dioten ikusirik. Udal zahar etxeak eta Nafarroako Gobernuak zuzentzen dituenak nahiko ondo daude”

Zahar askok ez dute ulertzen ez onartzen, zahar etxera joatearen ondorioz, bizitza osoan bildu duten ondare txikia galdu behar dutenik:

– “Nire ustez, egun, inork ez du soldata nahikoa zahar etxera joateko, eta etxebizitza kentzen digute. Zahar etxera hainbat urtez joan behar badugu eta 300.000 edo 350.000 pezeta ordaindu behar badugu, akabo etxebizitza, halakorik izanez gero. Zer pentsiodunek ordain dezake hainbertze?”

Gizarte Gaietako Departamentuak baieztapen hori argitu egin du, eta oroitarazi du laguntzak ematen dituela zahar etxe pribatuetako egonaldiak ordaintzeko, inor, baliabide ekonomiko eskasak dituela-eta, haietara joan ezin bada; hau da, zahar etxera joan beharra duen inor, arrazoi ekonomikoak direla medio, kanpoan gera ez dadin saiater da. Toki “itunduok” publikotzat hartu behar dira, erabiltzaileak toki publikoa izateko zenbateko bera ordaindu behar baitu. 2005. urtean, guztira, 952 toki itundu zeuden; alegia, zahar etxeetako tokien bosten bat itundua zen.

Itxaron zerrendei buruz apenas izan da aipamenik.

Hainbatek uste dute zahar etxeek ez dituztela langile nahikoak eta behar bezain gaituak zaharren beharrei erantzuteko. Alabaina, Gizarte Gaietako Departamentuak erran du Nafarroako zahar etxeetako langileen ratioak Espainiako batez bertzeok baino nahiko handiagoak direla:

– “Ez dago langile gaiturik, zaintzailerik, gerontologia arloko langilerik”

– “Langile gutxi daude, gaitu gabeak. Denok dakigu nork zaintzen dituen zaharrak: etorkinek. Eskerrak. Bestela, ez dakit nor arituko litzatekeen honetan. Azkenean, ondorioa da gaixoak ez daudela egon beharko luketen bezala”

– “Ohera lotzen dituzte, ihes ez egiteko, eta, gero, zauriak sortzen zaizkie...”

– “Elkarte bat eratzen dugun aldetik, egin deza-kegu, gure lana da joan eta behatzea, eta, jakina, gauzak ikusten ditugu. Baina, noski, joaten garenean, dena, primeran. Pertsona batzuek zera erran digute: ‘Joan egiten zaretenean, gauzak bestelakoak dira’”

Bada, sektore honetako soldatak eskasak direla eta lana nekeza eta jarraitua dela-eta, langileek motibaziorik ez dutela kritikatu duenik ere:

– “Langileei ez diete ondo ordaintzen, eta, ondorioz, ez dute motibaziorik”

CISek zaharren bizi baldintzen inguruan egin-dako inkestaren emaitza esanguratsu batekin bat, galdetutakoen % 25,6k uste du zahar etxeek txikiak izan behar dutela, 16-50 pertsonarentzat; % 24,4k, are txikiagoak izan behar dutela, 10-15 pertsonarentzat; % 14,8k, ertainak, 50-90 pertsonarentzat; eta % 8,5ek baino ez, 90 pertsonarentzat baino gehiagorentzat.

I) Askotariko gizarte zerbitzuak

Gizartearen beharrak aldatu egiten dira. Elkarrekin bizitzeko modu berriak sortzen dira, zaharrek ezaugarri berriak dituzte, eta, ondorioz, zerbitzu motek ere berriak izan behar dute.

Zaharrek beren giroan jarraitu nahi dute, baina, horretarako, zerbitzu osagarriak behar dituzte, etxeko laguntza zerbitzuaz gain.

Alde horretatik, eztabaida taldeetan parte hartu zutenek oso begi onez ikusten dituzte eguneko zentroak. Haien ustez, abantaila asko dituzte, laguntza profesionala eta zaharrek bere giroan, herrian jarraitzea eta familiarekin harremanetan segitzea bateratzen omen baitute. Hots, zaharrak ez dituzte deserrotzen eta, ondorioz, ez diete halako kalterik egiten; zaharrek erkidegoko kide izaten jarraitzen dute. Jendeak ikusi egin nahi ditu, haiekiko interesa agertu, nola dauden jakin, galdetu, etab.:

– “Zaharrek herritik alde egin behar ez izatea eta etxeko laguntza zerbitzuak zain ditzan, edo eguneko zentroan zain ditzaten”

Kontua da, Nafarroan, bertze alor batzuen ez bezala, eguneko zentroen bilakaera motela izan dela, Espainiako batez bertzekoa baino are motelagoa. Gizarte Gaietako Departamentuaren erranetan, "egia da, baina egia da, halaber, eskaria ez dela oso argia izan orain arte eta gaur egun ikaragarri bultzatzen ari garela zahar etxeetan eguneko laguntza zerbitzuak izatea. Eguneko zentroen antzeko baliabideak dira, erabiltzaileak laguntza osoa izatea ziurtatzen baitute, baina kostu txikiagoaren trukean. Jakina, kostatu egiten dute, erabiltzaileak zahar etxeko azpiegitura bera erabiltzen duelako".

Zaharrek ere sumatzen dute gabezia:

– "Eguneko zentro gutxi daude, eta daudenak oso garestiak dira".

Gipuzkoak eguneko zentroak eredutzat dituzte:

– "20 euro kobratzen diete, eta egun osoan lanpetuta daude eta jaten ematen diete".

Erretiroadun etxeetan eta klubetan edo haietatik kanpo eman daitezkeen zerbitzu osagarrien eskaintza ere (jangela kolektiboak, gizarte garbitokiak, etab.) apenas bultzatu da Nafarroan. Alabaina, zenbait parte hartzailek haien alde egin zuten:

– "Murchanten jangela bat sortuko dugu, zaharrek etxeko lan batzuk egin behar ez ditzaten. Menua nominaren arabera kobratuko dugu".

Tutoretzapeko etxebizitzak eta apartamentuak ere apenas hedatu dira Nafarroan, baina, zaharren ustez, konponbide ona dira:

– "Nire ustez, zoragarriak dira".

VII.5. PARTE HARTZEA

Parte hartzeari buruz zehaztu duten printzipioa da guztiok barne hartzen gaituen, guztiondako gizartearen esparruan, zaharrek modu aktibo batean, talde gisa parte hartu behar dutela haien ongizatean zuzeneko eragina duten politikak eta jardunbideak ezartzen, bertze belaunaldiekiko elkartasunean oinarrituta, eta printzipio hori elkarrezko askatasunaren ikuspegitik hartu behar dela.

Madrilgo Nazioarteko II. Ekintza Planak hiru helburu edo gai estrategiko nagusi finkatu zituen alor honetan:

– Zaharrek erabakitze prozesuetan parte hartzea, maila guztietan.

– Zaharrek gizarte, kultur, ekonomia eta politika arloan egiten duten ekarpena aitortzea.

– Elkartasuna handitzea, belaunaldien arteko berdintasunaren eta elkarrekotasunaren bidez.

Zaharrendako Ekintza Planak (2003-2007) helburua pixka bat gehiago zehaztu eta honako honen alde egiten du:

– Egun dauden ordezkari eta partaidetza organoak sendotu eta berriak sortzearen alde.

Zaharrek garai batean gizartean izan zuten garrantzi handia galdu dute. Orduan, eragin handia zuten erabakitze prozesuetan, eta zaharren kontseiluak jakintsuen kontseiluak ziren. Ildo horretan, "senatu" terminoa latinezko "senectus" hitzetik eratorri da, "iuventus" hitzaren antonimotik, eta Nafarroako Gorteak jakintsuen kontseilua ziren sortu zirenean, zaharrek eraturakoa.

Zaharrek gizarteratuta segitu behar dute, haien ongizatean zuzeneko eragina duten politikak eta jardunbideak ezartzen modu aktibo batean parte hartzen, baina, gainera, haiengan zuzeneko eragina duten mugimenduetan eta haien aldekoetan ez ezik, gizarteko mugimendu orokorretan ere parte har dezaten bultzatu behar da.

Ezin dugu jarraitu onartzen zaharrak gizartean ikusezinak izatea eta erkidegoaren bizitzan apenas parte hartzea.

Horretarako, administrazio publiko eskudunek politika aktiboak abian jarri behar dituzte, zaharrek haiengan zuzeneko eragina duten erabaki publikoak hartzen parte har dezaten bultzatzeko.

A) Erabakiak hartzen dituzten organoetan parte hartzea

Espainiako Zahar Elkartearen Federazioaren Espainiako VII. Biltzarrean eman zituzten datuen arabera, zaharrek oso gutxi parte hartzen dute ordezkari organo publikoetan.

Espainiako biztanleria osoaren ia % 18k ditu 64 urte baino gehiago, eta hutesleen % 22 dira zaharrak, baina, Diputatuen Kongresuan, ordezkarien % 2,8 soilik dira adin horretatik gorakoak; udalengan, % 1,5 ere ez; autonomia erkidegoetan, % 3,04 baino ez; eta, Europako Parlamentuan, % 8,47.

Nafarroako Parlamentuan, berriz, 64 urtetik gorako pertsona bakarra dago, hau da, ordezkarien % 2; Iruñeko Udalean, bat ere ez; eta Nafarroako Gobernuan ez dago 64 urtetik gorako kontseilari bat bera ere.

64 urtetik gorako ordezkari politikoen Espainiako kopurua Europar Batasuneko bertze herrialde batzuetako baino askoz ere txikiagoa da, FATEC Federació d'Associacions de Gent Gran de Catalunya federazioak egindako azterketak frogatzen duenez.

Dena dela, datu deigarriok bat datoz zaharrek alderdi politikoetako batzorde exekutiboetan duten ordezkariak eskasarekin, asko jota, % 2,2 ingurukoa baita.

Nafarroako Zaharren Behatokiak darabiltzan datuek diotenez, alderdi politikoetako batzorde exekutiboak 96 kidek osatzen dituzte, eta 60 urtetik gorako bederatzi lagun bertzerik ez daude, alegia, % 9,37; sindikatuetakozuzendaritza batzordeak 43 kidek osatzen dituzte, eta 60 urtetik gorako bi pertsona daude, alegia, % 4,6; kultur erakundeetako zuzendaritza batzordeak 139 kidek osatzen dituzte, eta 30 zahar daude, alegia, % 21,6; eta bankuetako zuzendaritza batzordeak eta administrazio kontseiluak 418 kidek osatzen dituzte, eta ez dago bat bera ere.

Politikan parte hartzeak erran nahi du zaharrek, adina gorabehera, erkidegoaren eta taldearen aldeko jarduera politikoetan parte hartu nahi duela:

– “Nire ustez, gazteek dituzten indar eta berme berdinekin parte hartu behar dugu politikan. Gure adinean, zerbaitetan zenbat eta gehiago parte hartu, orduan eta gazteago sentitzen gara, eta geure burua gauzatzen dugu. Alderdi politiko bateko militantea naiz ni, eta oso pozik nago, etengabe mugitzen naiz.”

Gehienek, ordea, ez dute parte hartu nahi. Gazteen eta helduen esku utzi dute, bertzeak bertze, politikagintzan ere badelako samintasunik:

– “Nik urte askoan parte hartu dut politikan. Alkatea izan nintzen eta zinegotzia izan naiz. Inork nahi ez zuelako hasi nintzen. Ez naiz inongo alderditakoa. Baina oso samingarria da. Erabaki egin behar da, eta erabakiak ez dira denen gustukoak... Oraindik bada hitz egiten ez didan jendea, uste duelako nahita kalte egin niola.”

Oro har, zaharrek bozkatu bertzerik ez dute egiten, eta erabili egiten dituztela sentitzen dute:

– “Bada zaharrak erabili egiten dituen politikagintza bat”

– “Boto bat gara. Bertzerik ez”

– “Gobernua botoak behar dituenean soilik gogoratzen da gutaz. Askok eskaintzen digute: pentsioak, etab., baina, ondoren, pentsioak berdin gelditzen dira.”

Hainbatek iradoki zuten zaharrek parte hartu egin dezaten bultzatzeko estrategia bat zerrenda paritarioak izan litezkeela:

– “Sexuaren araberako zerrenda paritarioak ditugu, baina ez dago zaharrik. Hortaz, oker hasi gara eta oker gabilta.”

– “Nire ustez, zerrendetan % 30 gehiago ez litzateke sobera egonen.”

B) Aholkularitza organoetan parte hartzea

Zaharrek ez dute erabaki organo politikoetan bakarrik parte hartu behar. Alde horretatik, zaharrek aholkularitza organoetan parte hartzea are garrantzitsuagoa da.

Ezinbestekoa da, osasun, hezkuntza eta gizarte zerbitzu publikoak diseinatu eta kudeatzean, lurraldea antolatzean, hirigintza plangintza egitean, etxebizitzak diseinatzean... adinaren arabera ikuspegia aintzat hartzen hastea.

Izan ere, hiriak diseinatzen ditugunean, gutxitan hartzen dugu kontuan zaharren ikuspegia, haien mugak eta beharrak, eta ahaztu egiten dugu nekez izaten ahal dutela bizimodu autonomoa eta gustukoa hiri askotako egitura estresagarrian, gizonezko exekutibo gazte eta osasuntsuaren ikuspegitik diseinatu dituzten aldetik:

– “Gazteek gazteentzat diseinatutako gizarte bizi gara. Ur botila hau, botikak, zerbitzuak, osasun sistema, aisialdia, hezkuntza... Dena haiek diseinatzen dute, haienentzat.”

Hain zuzen, “eguneroko eremuak”, hirigintza, zentroak eta zerbitzuak diseinatzeko, aurrez adinaren araberako beharrak eta ikuskerak ez aztertzea da oztupoak izatearen eta, ondorioz, zahar askoren bizi kalitatea nabarmenki okertzearen arrazoia.

Bai partaidetza organo berezien eta bai partaidetza organo orokorren bitartez, zahar taldeek gizarte sistematikoki parte hartzea, dudarik gabe, oinarritzkoa da, eremu egokiak sortu eta zaharrek sentitzeko haien bidezko gogoak eta interesak kontuan hartu dituztela, eta zaharrek beren autonomiari ahalik eta luzaroen eusteko.

Nafarroan, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak bultzatzen du zaharrek haiengan eragina duten politika publiko orokorrak diseinatzen parte hartzea. Alde horretatik, zaharrek ordezkariak dituzte Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan. Hain zuzen, gizarte zerbitzuen alorreko eskumena duen departamentua aholkularitza organoetan parte hartzen dute, bertze talde batzuekin batera. Gainera, bada organo espezifiko bat, Nafarroako Zaharren Kontseilua, zahar elkarleen ordezkariak anitz batek eratutakoa.

C) Gizarte zibilean parte hartzea

Partaidetza, administrazio publikoen esparruan ez ezik, gizarte zibilean ere bultzatu behar da. Gizarte zibilak ahal bezainbat ahalegindu behar du zaharrek kirol elkarteetako zuzendaritza batzordeetan, bizilagun elkarteetan, GKEetan, auzo elkarteetan... ere parte har dezaten.

Zaharrek denbora dute, egungo ondasunik preziatuenetako bat, eta ekarpen handia egin dezakete halako erakundeetan. Partaidetza bideragarria izateko, baina, beren buruarengan konfiantza izan behar dute, eta gizarteak ere haiengan konfiantza duela eta bakartu egiten ez dituela sentitu behar dute, edo haien iritzia arbuiatzen ez dituela.

D) Erretirodun klubak

Nafarroan, Gizarte Gaietako Departamentuak emandako datuekin bat, gaur egun, 89.099 pertsona dira erretirodun klubetako bazkide, hau da, 65 urtetik gorako nafarren % 90 inguru.

Orain arte, oro har, zaharrak erretirodun klubetara joaten ziren eta beren adineko jendearekin bakarrik zeuden harremanetan, baina begien bistakoa dirudi, erretirodun berrien belaunaldia dela eta, egoera aldatu egin dela.

Taldekide batzuek erretirodun klubetako "gainbetera" ere aipatu zuten:

– "Erretirodun berriak ez dira joaten klubetara, "zabortegien" gisakoak direla uste dutelako".

Erretirodun berriak gazteak dira nolabait, helduaroa 75 urte ditugun arte luzatzen ari baita. Ordura arte, zahar gehienak osasuntsu daude eta aktiboak dira; erretiroa hartu dute, baina beren burua ez dute zahartzat. Zahar berriek ez dute ezberdinak izan nahi bertzeren aldean. Lan egiten duen jendea dagoen eremu berdinetan egon nahi dute: kalean, dendetan, irtenaldietan, kirol elkarteetan, kontzertuetan... Erakargarriak izateko, erretirodun klubetako jarduerak askotarikoagoak izan behar dute eta aukera berriak eman behar dituzte.

Klubetan parte hartzeari dagokionez, bazkideek apenas adierazten dute interesik:

– "Ez dute parte hartu nahi, ez dutelako lan egin nahi, ez dutelako buruhausterik nahi".

– "Zazpi urte daramat presidente, eta egin beharreko lan txikiak egiten ditut eta denetarik egiten dut, baina inork ez nau lagundu nahi".

– "Elkarteetan badira 80 urtetik gorako zaharrak, eta haiek nahikoa parte hartu dute, baina badira 62, 66 urteko erretirodun gazteak ere, eta ez dute ezertan parte hartzen. Ez dute nahi. Elkartera gonbidatzen ditugu zerbaitetan parte hartzera,

eta ezetz erraten dute, ezetz. Eta, gero, aspertuta ibiltzen dira batetik bertzera".

– "Elkartean, inor aukeratzeko, jendeak ez du bozkatu ere egiten eta nahierara aukeratu behar da, eta, nor uste badu aukeratu egiten dutela, joan egiten da".

Klubek eta elkarteek antolatzen dituzten jardueretan ere ez dute modu aktiboan edo zuzenean parte hartzen.

Faktore ekonomikoa erabakigarria da erretirodun elkarte batera joatea erabakitzeke. Edariak askoz ere merkeagoak dira, eta, pentsio eskasak direla-eta, zahar gehienek ezin dute joan erregulartasunez ostatu normalizatuera. Hori dela-eta, gizarteratzea eta normalizazioa bultzatzeko, beharrezkoa da kirol eta aisialdi elkarteek, kultur elkarteek eta abarrek zaharrendako prezio bereziak finkatzea.

E) Zahar etxeetan parte hartzea

Zenbait eztabaida taldetan zahar etxeak proposatu genituen gaitzat, zaharrek haiei buruz eta, ordezkarien bitartez, zahar etxeen kudeaketan (ordutegiak eta bisita araubidea finkatzen, bizikidetzara arazoak eta janariak eragindakoak konpontzen eta abarretan) parte hartzeari buruz zer iritzia duten jakiteko.

Oso pertsona gutxi zuten zahar etxeen berri. Berezitasunen baten berri bertzerik ez zuten, eta ez dute lehentasunezko gaitzat.

Baten batzuek adierazi zuenez, zahar etxeetan lege eta arauz (Gizarte zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legearen eta 209/1991 Foru Dekretuaren aginduz) izan beharreko partaidetza organoak ontzat hartzekoak dira:

– "Ona da, nolabait, pixkana-pixkana baina aurrera eginez, zaharrak partaidetza kontseiluetan parte hartzen hastea, zahar etxearen eskumeneko erabakiak hartzen hastea eta haiek entzun behar izatea. Eta, nire ustez, kultur maila handiagoko eta baliabide ekonomiko gehiagoko pertsonak sartzen direnean, haien parte hartzea are esanguratsua goa izanen da".

Partaidetza kontseiluen helburua erabiltzaileek edo, haiek ezin badute, haien senideek parte hartu egin dezaten da.

Zahar etxeetan dauden askok eta askok ezgaitasunen bat izatea haien kudeaketan parte hartzearen eragozten du:

– "Zahar etxeetara, egun, zertarako sortu diren, nire esperientziaren arabera, makalduta edo mendekotasun egoeran dagoenean joaten da jendea,

eta, hortaz, ordurako ez du autonomiarik. Zahar etxera segurtasun bila joaten dira.”

Bertze batzuek, berriz, uste dute, laguntza behar dutenendako zahar etxeei dagokienez, zuzeneko senideek parte hartu beharko luketela:

– “Familiak parte hartu egin behar du. Inor gai ez denean, normala denez, familiarengana jo behar da. Zenbateraino hartzen dute parte familiekin zahar etxeetan hartzen diren erabakietan? Nire ustez, inor dementzia prozesu batean murgiltzen

denean, norbaitek zaindu behar du ezgaitu edo ustezko ezgaitu hori. Iruditzen zait oso gutxi hartzen dituztela kontuan familiak.”

Eztabaida taldeetan sumatu zenez, parte hartzaileek eraginkorragotzat dituzte kanpoko ikusketzaileak abusuei aurrea hartu eta, halakorik gertatzen bada, haiek antzemateko:

– “Zahar etheen funtzionamendua ebaluatu eta haien jarraipena egin beharko litzateke, pribatuena batez ere.”

VIII. KAPITULUA. ONDORIO OROKORRAK

VIII.1. ZAHARRAK, MULTZO HETEROGENEOA

Zaharrek ez dute talde homogenea osatzen, eta, horrenbestez, ezin ditugu estereotipo baten bidez deskribatu. Haien ezaugarriak, izaerak, ideologiak, sineskerak, osasun egoera, egoera ekonomikoa... askotarikoak dira. Bereziki, zahar berriak nahiko ezberdinak dira aurreko hamarkadetakoan aldean: kultur maila handiagoa eta osasun egoera hobea dute, eta diru-sarrera gehiago dituzte; halaber, kezka eta interes gehiago dituzte, eta, hortaz, pentsatzekoa da haien jarduna, parte hartzea eta aldarrikapenak eta gizartean duten eragina ere handiagoak izan direla.

VIII.2. IRUDI ESTEREOTIPATUA ETA IKUSEZINTASUNA GIZARTEAN

Orain arte, zahartzaroaren gaineko gizartearen irudia aurreiritzi eta estereotipo negatibo eta okerrez beteta egon da, baina azterketa epidemiologiko zorrotzek zera adierazten dute: 70 urtetik gorako % 80ren eguneroko bizitza aktiboa eta haien gustukoa dela.

Zahartzaroarekin lotu izan diren balio positiboak gutxietsi egiten ditugu.

Oro har, zaharrek uste dute haiei buruzko berriek ez dutela interesik komunikabideetan eta oso parte hartze txikia dutela erabakiak hartzeko eta gizartean parte hartzeko organoetan, eta, hori dela-eta, haien iritzia apenas entzuten dela eta, maiz, gizartean "ikusezin" izatera kondenatzen dituztela.

Batzuen eta bertzeen erretiroaren gaineko irudia oso bestelakoa da: batetik, erretiroa lasaitasunarekin eta atsedenarekin lotzen dute, nork bere buruarentzat denbora izatearekin, bizitzaz gozatzearekin... baina, bertzetik, erretiroak zahartzea, gaixotzea eta mendekotasuna gogorarazten die. Edonola ere, oro har, erretirodunek gauza on gehiago igartzen dizkiote erretiroari, txarrak baino.

VIII.3. PARTE HARTZE ETA GARRANTZI ESKASA GIZARTEAN

Egungo gizartean, zaharrek lehen gizartean zuten garrantzia galdu dute, baina historian ez da beti hori gertatu.

Spainiaiko biztanleria osoaren ia % 18k ditu 64 urte baino gehiago, eta hautesleen % 22 dira zaharrak, baina oso gutxi parte hartzen dute erakunde politiko nagusietan; haien presentzia nekez da % 5etik gorakoa.

Zaharren parte hartzea partaidetza eta aholkularitza organoetan ezin da izan sinbolikoa. Bestela, osasun, hezkuntza eta gizarte zerbitzu publikoak diseinatu eta kudeatzean, lurraldea antolatzean, hirigintza plangintza egitean, etxebizitzak diseinatzean... adinaren arabera ikuspegia ez da kontuan hartzen, zaharren beharrak eta haiek espero dutena.

VIII.4. ADINAGATIKO DISKRIMINAZIOA

Gizarteak bestela diskriminatzen ditu zaharrak eta helduak eta, batzuetan, zaharrak beraiek ere ez dira jabetzen. Normaltzat dituzte egoera asko, baina adinagatiko diskriminazio motak baino ez dira.

Lan arloan, erraterako, adinean oinarrituta diskriminatzeko modu asko daude, eta nork erretiroa hartu baino askoz lehenago hasten dira: lan eskaintzek ezaugarri jakin batzuek baztertzea, bereizketa, enplegua berregituratzeko planak, etab.

Ildo berean, normaltzat hartzen da zaharrek baliabide ekonomiko gutxiago izatea, soldatapeko lanak egin ditzaten debekatzea eta aseguru polizek klausula baztertzaileak xedatzea, bertzeak bertze.

Edonola ere, zaharren arazo nagusia pentsioak dira, eta haiei buruz dute diskriminatu egiten dituztelako kontzientziarik handiena. Zaharren bi herenek pentsio eskasak kobratzen dituzte, eta heren bat pobrezia atalasetik behera bizi dira. Hori dela-eta, lehen ekonomia arloan independenteak ziren zaharrek diote iraingarria dela seme-alabei laguntza eskatu beharra bizitzeko.

Zahar askok diotenez, pozik daude, lan nekeza utzi dutelako, baina bertze batzuek, aitzitik, diskriminaziotzat dute bat-batean lan egiteko eta soldatapeko lanak egiteko eskubiderik gabe gelditzea. Horregatik, erretiroa eskubidea izateko aldarrikatzen dute, ez betebeharra.

Gizarteak zaharrak diskriminatzen dituelako kontzientzia dugu, eta haien gaitasunak eta eza-gutzak alferrik galtzen dituelakoa.

Medikuntzan, ohikoa izan da adina, gaixo zaharrak iraupen txikiagoa duela-eta, irizpide garrantzitsu edo, areago, irizpide erabakigarritzat hartzea proba osagarri jakinak egin ala ez, teknologia berriak erabili ala ez, espezialistarengana bideratu ala ez, ebakuntza egin ala ez, errehabilitazio tratamendu jakinak aplikatu ala ez, zaintza intentsiboko unitateetara, bihotzeko gaixoendako unitateetara, dialisi unitateetara eraman ala ez... erabakitzeke, larrialdi zerbitzuetan, ebakuntza egi-

teko itxaron zerrendetan, transplanteak egiteko eta bularreko minbiziari aurrea hartzeko programe-tan... lehenetsiak ezartzeko, etab. Alabaina, ohi-tura hori aldatu egin da, arrazoi etikoak direla medio, adina bera ez baita, inola ere ez, pronosti-koak egiteko faktore erabakigarria, gaixo bat une jakin batean zer osasun egoeratan dagoen baizik.

VIII.5. LAGUNTZA ETA ZAINTZA

80 eta 90 urte arteko emakumeen heren bat bakarrik bizi dira, eta bakardadea sentitzea da zaharren bizi kalitatea gehien okertzen duten fak-toreetako bat.

Zaharrak oso kezkatuta daude nork bere betiko giroan jarraitzeari eta familiarreko harremanei eta harreman afektiboari eusteari buruz, eta Nafarroan bada horretarako laguntza eta zerbitzu publikoen araubide bat.

Ez dugu lortu familia eta lana bateratzea eta etxebizitzak txikiak dira. Horregatik guztiagatik, neurri handi batean, zaharrak zaintzeko betebeh-ar morala galdu egin da.

Eguneko zentroen, atsedeen hartzeko bertze aukera batzuen eta gizarte jangelen eta garbitoki-en bilakaera motela izan da, edo oihartzun txikia izan du Nafarroan.

Hala eta guztiz ere, zahar etxeei dagokienez, Nafarroa Espainiako autonomia erkidegoetan biga-rra da zahar tokien kopuruaren aldetik.

Landa eremuan, hainbatek ez dute onartzen herritik urrun dauden zahar etxeetara joatea, erre-ferente afektiboak galtzen dituztelako. Herrian zahar etxe pribatu bat izatea ere ez da konponbi-dea, zahar batzuen ikuspegitik garestiegiak direla-ko, eta ez dakitelako Nafarroako Gobernuak laguntzak ematen dituela errenta nahikoa ez bada.

Oro har, parte hartzaileek iritzi ona dute zahar etxeei buruz: Dela segurtasun arrazoiak direla-eta, dela laguntzaren kalitatea, bakardadea edo bertze arrazoi asko direla-eta, zahar etxea zahar askoren etorkizunerako aukera bat da.

Gero eta zahar gehiagok uste dute zahar etxe-ak mendekotasun handi bat dutenez direla, funtsean.

Zalantzarik gabe, zahar etxeei buruzko kexa nagusia prezioei buruzkoa da: zahar askok ez dute ulertzen ez onartzen, zahar etxera joatearen ondo-rioz, bizitza osoan bildu duten ondare txikia galdu behar dutenik.

Osasun arloan, ez dago alde handirik zaharren eskarien eta bertze herritarren artean, aurreko atalean aipatutako diskriminazio motei dagokienez

izan ezik; dena dela, sentimendu hori ez da oso nabarmena. Espezialitateei dagokienez, zaharrek laguntza geriatrikoko osasun zerbitzuak sendotze-ko aldarrikatzen dute.

VIII.6. NORK BERE BURUA ASKI IZATEA ETA NOR BERE KASA MOLDATZEA

Zaharrak gauzak egiteko zailtasunak izaten hasten direnean, askotan, pazientzia galtzen dugu, eta presatu egiten ditugu, gauzak guk "nor-malzat" dugun denboran egin ditzaten; bestela, ezin badute, geuk egiten ditugu, haiek behar duten bezain luzaroan egin ditzaten bultzatu beharrean. Hartara, azkarrago galtzen dituzte beren gaitasu-nak.

"Gazteek eta helduek gazte eta heldu osasun-tsuentzat diseinatutako gizarteak" bizi gara, eta hori ez dator bat NBEK, "inolako oztoporik ezean" eta "guztiendako diseinuan" oinarrituta, "adin guzti-ndako gizarteak" sortzearen alde ezarritako kon-zeptu zabalarekin.

Zaharrek zailtasun gehiago dituzte beren kasa moldatzeko, ezinezkoa delako bilgarriak irekitzea, altzariak ez daudelako egokituta, sakelako telefo-noko botoien tamaina desegokia delako, sendagai-en erabilera orrietako letren tamaina txikia delako, etxeko tresneria desegokia delako...

Segurtasuna ere faktore erabakigarria da zaha-rraren ikuspegitik. Jakin badakite ahulak direla eta, ondorioz, segurtasuna ematen dieten erreferente-ak bilatzen dituzte. Hiri askoren egitura estresaga-rria dela-eta, zaharrek zailtasun handiak dituzte gure hirietan bizimodu autonomo eta gustukoa iza-teko, gizonezko exekutibo gazte eta osasuntsua-ren ikuspegitik diseinatu baitituzte.

VIII.7. ABUSUAK ETA TRATU TXARRAK

Batzuetan, zaharren eskubideak ez ditugu errespetatzen, eta litekeena da noiz edo noiz abu-suak ere jazotzea. Hala eta guztiz ere, Gizarte Gaietako Departamentuak ez omen du halako ger-taerei buruzko salaketan berri.

Zaharren aurkako tratatu txarrak existitu egiten dira. Zenbait azterlan orokorrekin diotenez, zaharren % 1 - % 10i tratatu txarrak ematen dizkiete, fisikoak eta, batik bat, psikikoak. Alde horretatik, Torontoko Adierazpenak gogorarazten du, duela 20 edo 30 urtera arte, munduko gizarteek emakumeen aur-kako indarkeria eta haurren aurkako tratatu txarrak zeudenik ere ukatzen zutela, baina, gaur egun, ezin eztabaidatuzkoa dela halako egoerak gertatu egiten direla.

Zenbaitetan, zaharren aurka hautematen zailak diren eta itxuraz minik egiten ez duten tratu txar psikologiko motak ere erabili izan dira, hala nola, etengabeko irainak eta zaharra abandonatzeko mehatxuak. Halakoetan, litekeena da zaharraren oreka emozionalari eta bere buruarekiko estimuari kalte larria egitea.

Zaharrek seme-alabak laguntzen jarraitu nahi dute, "betebehar moralizat" dutelako, baina, xantaia afektiboaren edo presio egiteko bertze modu bidegabe batzuen bidez, hartara behartzea abusua dela diote.

Zenbait zaharrek beren bizimodua askatasunez aukeratzeko eskubidea ere galtzen dute, eta bertze haien ordezkari erabakitzen saiatzen da non bizi behar duten, zer altzari izan behar dituzten gelan, etab. Halaber, presio egiten diete, beren artean bikote berriak sor ez ditzaten.

VIII.8. GARAPEN PERTSONALA

Zaharrak, nornahi bezala, baliagarri sentitzeko beharrak kezkatzen ditu, haien iritzia kontuan hartzen dutela eta haien gaitasunak aprobetxatu egiten dituztela.

AXA azterketaren arabera, kontraesan nabarmena dago espainiarrek erretiroa hartzen dutenean egiten dutela uste dutenaren (bidaiatzearen) eta egin egiten dutenaren (paseatu, kartetan jolastu, familia zaindu eta ezer ez egitearen) artean. Espainiarren % 14k bakarrik bidaiatzen dute, eta iparramerikarren artean, berriz, % 31k; eta espainiarren % 9k bakarrik egiten dute kirola. % 19k paseatu egiten dute; % 14k hobby bat dute; eta %

20k diote denbora gehiena ezer egin gabe ematen dutela.

Nazioartean dauden alde handiak kultur maila eta maila ekonomiko ezberdinen ondorio dira, neurri handi batean, baina egoera errotik aldatzen hasi da zahar berriei esker, jarduera bizigarri eta atsegingarriagoak eskatzen baitituzte, prestakuntza arlokoak barne.

Erretirodunak eta aurreko erretiroa hartu dutenak gizartearen baliabide esanguratsua dira. Gizarte lanetan eta boluntario lanetan aritzea da zaharrek egin dezaketen gauzarik atsegingarrienetako bat, baina, Espainian, erretirodunen % 2 baino ez da jarduten boluntario lanetan; kanadarraren eta australiarren artean, berriz, % 26 eta % 19 aritzen dira, hurrenez hurren.

Badirudi beharrezkoa dela aukera berri bat bilatzea, erretirodun klubak ordezkatzeko, eta jarduerak erabilera anitzetarako zentroetan edo kultur etxeetan eta liburutegietan antolatzea, zaharrei ere aisia emateko bertze bide batzuk eskaintzeko. Alde horretatik, gizarte etxeak oso baliagarriak dira, eta Nafarroan izan baditugu.

VIII.9. ZAHARREN BETEBEHARRAK

Zaharrek, talde gisa, izan behar dute lehenak beren pentsaera eta jarrera aldatzen, bai beren baitan eta bai talde gisa. Beren baitan, aktiboak izaten jarraitzeko ahalegindu behar dute, ez dute onartu behar normaltzat haien ordezkari erabakitzea, etab. eta, talde gisa, gehiago parte hartu behar dute gizartearen bizitzan.

IX. KAPITULUA. "NAFARROAKO ZAHARRREN ESKUBIDEEN ETA BETEBEHARREN GUTUNA"REN PROPOSAMENA

Erran bezala, aipatu testuak, azaldutako leku-kotasunak eta ateratako ondorioak erabiliz, Nafarroako arartekoak Nafarroako Zaharren Eskubideen eta Betebeharren Gutunaren proposamena egin du.

Helburua Nafarroako Parlamentuan aurkeztea da, eta, egoki baderitzo, hark eztabaidatu eta Nafarroako zaharren eskubideen aldeko adierazpentzat onartzea.

Alde juridikotik, Gutuna ez da loteslea. Ez da agintari publikoak halabeharrez behartzen dituen araua.

Hala ere, adierazpen formal, serio eta irmoa da, Nafarroan bizi diren zaharren eskubideak eta betebeharrak sendotzeko aldarrikapena.

Balio anitz ditu: Nafarroako biztanleriaren ia % 20 eratzen duen aldetik, kalitate eta kantitate aldetik oso garrantzitsua den talde baten eskubide subjektiboen adierazpen arretatsua da. Gainera, Nafarroako herritarren ordezkari nagusiak zaharrak eta haiek gizartean duten garrantzi eztabaida sendotzeko modua ere bada.

Haiekiko konpromiso morala ere bada, eskubi-deok eta betebeharrak formalki onartu eta, gero, behar bezala, Nafarroako Parlamentuak unean-unean deritzon bezala, hark onartzen dituen legeen, planen eta programen bidez gauzatzekoa.

Orobat, alor honetan eskumena duten Nafarroako administrazio publikoek erreferentetzat erabiltzeko dokumentua da, gizartean eragina duten nork bere eskumeneko politika sozialak eta ekonomikoak haiek bultzatzera bideratzeko. Izan ere, administraziook politika horiek neurtzeko erabil dezakete, hartzen dituzten neurriak Gutunak aldarrikatzen dituen eskubideekin eta betebeharrekin alderatzeko.

Azken finean, zaharrak ordezkatu eta haien izenean haiengan zuzeneko eragina duten auziak erabakitzen dituztenek gure zaharrak eta haien balioak, sentimenduak eta kezkak aitortzeko ekin-tza nagusi bat da.

NAFARROAKO ZAHARRREN ESKUBIDEEN ETA BETEBEHARREN GUTUNA ESKUBIDEAK

Nafarroan bizi diren zahar guztiek, zer adin duten gorabehera, honako eskubide hauek dituzte:

1. ERRESPETUZ ETA DUINTASUNEZ TRATA DITZATEN ETA ADINA DELA MEDIO DISKRIMINA EZ DITZATEN

1.1. Duintasun pertsonalerako eskubidea eta zaharrek gizartean balio eta onespen handiagoa izatekoa.

1.2. Nork bere iritzia emateko eskubidea, gizartean ikusezinak ez izatekoa eta komunikabideek tratatu normalizatua eta estereotiporik gabea eman diezaieten.

1.3. Inongo alor pertsonaletan edo sozialetan adina dela medio diskrimina ez ditzaten.

1.4. Inolaz ere ez diezaieten tratatu txar fisiko edo psikikorik eman eta haien aurka babes ditzagun.

1.5. Zaharren balizko mugak errespeta daitezzen.

1.6. Diru-sarrera eta pentsio bidezko eta egokiak kobratzeko eskubidea, haiekin aski izateko.

1.7. Familiarteko harremani eta harreman afektiboek eusteko eskubidea.

1.8. Zaintza aringarriak gizalegez eman diezazkieten eta haien azken nahia errespeta dadin.

2. INDEPENDENTE IZATEKO ETA NORK BERE BIZITZA KONTROLATZEKO ESKUBIDEA

2.1. Nork bere nortasuna askatasunez garatzeko eskubidea eta bizitza pribatuan eta familiarrean nola bizi nahi duten erabateko askatasunez eta autonomiaz erabakitzekoa.

2.2. Non bizi nahi duten askatasunez aukeratzeko eskubidea eta hura beren nahierara egokitzekoa.

2.3. Nork nahi duen pertsonarekin bizitzeko eskubidea, inolako diskriminaziorik gabe, eta intimitatezko harremanak izatekoa.

2.4. Beren baliabide ekonomikoak nola erabili askatasunez erabakitzeko eskubidea, epaileek ezgaituz bakarrik gal daitekeena.

2.5. Nork behar duen aholkularitza izateko eskubidea eta haien eskubideak zain ditzaten, askatasunez erabakitzeko, bereziki, haiek ezgaitzeko prozesuei eta ondarea lagatzeari eta abarri buruz.

2.6. Intimitaterako eskubidea eta haien etxebizitza eta posta errespeta daitezzen.

2.7. Autonomoak izateko eta sentitzeko eta beren buruarekin aski izateko eta beren buruarekin aski dutela sentitzeko eskubidea eta beren kasa moldatzeko beharrezko laguntzak izatekoa.

2.8. Inguruan oztoporik ez izateko eskubidea eta ingurunea gozoa eta segurua izatekoa, bizimodu autonomoa izateko eta gizartean aktiboak izateko.

3. SEGURU ETA BABESTUTA SENTITZEKO BEHARREZKO LAGUNTZA IZATEKOA

3.1. Osasun laguntza unibertsal, doako, esku-ragarri, diskriminaziorik gabe eta xedetzat galduta-ko gaitasunak ahal bezainbat berreskuratzea duena izateko eskubidea.

3.2. Familian eta gizartean abandonatuta eta bakarrik ez sentitzeko beharrezko babesa izateko eskubidea.

3.3. Seguru eta babestuta sentitzeko beharrez-ko laguntza izateko eskubidea.

3.4. Kalitateko gizarte laguntza izateko eskubi-dea, norberaren ezgaitasun eta mendekotasun mailara egokitutakoa eta nork bere kasa ordain dezakeena.

3.5. Etxean eta gizartean, familian eta beren harremanetan beren giroan jarraitzeko eskubidea, beharrezko egokitzapenen eta osasun eta gizarte laguntzen bidez.

3.6. Oztoporik gabeko etxebizitza segurua izateko eskubidea, norberaren beharretara egokituta-koa.

3.7. Haien mugak errespetatu daitezzen eta ezgaitasun fisiko edo psikiko bat dela medio diskrimina ez ditzaten.

4. BALIOZKOAK ETA BEREN BURUAREKIN POZIK SENTI DAITEZEN UZTEA ETA BULTZATZEA

4.1. Beren gaitasunak eta esperientzia erabil-tzeko eskubidea, beren proiektuen eta atseginga-riak iruditzen zaizkien gizarte ekimenen bidez.

4.2. Haurrak zaintzen eta hezten laguntzeko eskubidea, haiez abusatu eta haiek esplotatu gabe.

4.3. Ikasten jarraitzeko eta heziketa eta presta-kuntza programa egokietan parte hartzeko eskubi-dea eta pertsona, herritar eta gizarteko kide gisa dituzten jakintza, abileziak eta gaitasunak hobe-tzeko nolanhiko jardueretan parte hartzekoa.

4.4. Teknologia berriek informazioa biltzeko eta komunikatzeko ematen dituzten aukerak erabil-tzeko eskubidea eta haiek erabiltzetik kanpo ez gera-tzekoa.

4.5. Kultur arloko eta aisialdiko jardueretan zinez parte hartzeko eskubidea.

5. ERKIDEGOKO BIZITZA SOZIALEAN ETA POLITIKOAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

5.1. Erabakiak hartzen dituzten organoetan ordezkaritza proportzionatua izateko eskubidea.

5.2. Galdetu egin ditzaten eta haien iritzia ent-zun dadin, adinaren arabera ikuspegia kontuan hartzeko, zerbitzu publikoen plangintza egin eta haiek kudeatzeko eta hiriak diseinatzeko.

5.3. Zinez gizarteratzeko eskubidea eta siste-matikoki, beren borondatearen kontra zaharrenda-ko erakundeetan bakartu ez ditzaten.

5.4. Askatasunez komunikatzeko eskubidea eta haien erakundeak haien kasa kudeatzeko gaitasu-na errespetatu dezaten.

5.5. Zaharrendako zentro eta zerbitzu publiko-ak zuzenean edo, ezgaitasun bat badute, senide-n bidez kudeatzen parte hartzeko eskubidea.

BETEBEHARRAK

Era berean, Nafarroan bizi diren zahar guztiek, zer adin duten gorabehera, honako betebeh-ar haiek betetzeko konpromisoa hartu dute beren buruarekin eta osatzen duten gizartearekin:

1. Beren autonomia eta independentzia babes-tea eta bertzek haien izenean erabaki dezan ez uztea.

2. Beren kasa moldatzen, autonomoak izaten eta beren buruarekin aski dutela sentitzen ahale-gintzea.

3. Norberaren gaitasunetara egokitutako kirola egitea erregulartasunez.

4. Adimen aldetik aktiboak izaten jarraitzeko ahalegintzea eta gauza berriak ikasteko jakin-minari eustea.

5. Beren gaitasunak eta esperientziak aprobe-tzatzea eta bertzeren esku jartzea, baliagarri senti-tzeko.

6. Aldaketetara ahal bezainbat egokitzea eta bertzeren pentsaerarekin eta jarrerarekin ulerko-rrak eta toleranteak izatea.

7. Gizartean bizimodu aktiboa izatea eta bertze zaharrek eta belaunaldiekin harremanetan iza-tea.

8. Gizartean parte hartzea, zaharren iritzia entzunarazteko.

9. Beren eta ezagutzen dituzten zaharren aur-kako abusuak, tratatu txarrak eta diskriminazioak salatzea.

10. Beren eskariak eta iritzia askatasunez adie-raztea ematen dizkieten zerbitzuen kalitateari dagokionez eta, beharrezkoa bada, kexak eta hobekuntza proposamenak egitea.

X. KAPITULUA. GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK

Arartekoak aurrez egin izan duenez, nabarmendu beharra dago, herritarren eskubideak babesteko, ez dela nahikoa eskubideak esplizituki aldarrikatzea edo legeak ematea, behar bezala zehaztutako printzipioei eta helburu handinahiei jarraiki. Aitzitik, beharrezkoa da eskubideok beteazteko bitarteko eraginkorrak izatea ere.

Arartekoaren ustez, Nafarroako zaharren eskubideak hobeto babestu eta sustatzeko, egiturazko oinarriko neurriak hartu behar dira, horretarako politika aktibo eta osoa finkatzeko. Hori dela-eta, honako gomendio eta iradokizun hauek egin ditu:

1. Nafarroako Gobernuak Gizarte Gaietako Departamentuari gomendatzea Nafarroako administrazio publikoek orain artean zaharrak alor guztietan laguntzeko aplikatu duten politika publikoaren ebaluazioa egiteko. Politika publikoa ebaluatzeko, Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legeak oso erreferente baliagarriak eta guztiek onartutakoak dakartza.

2. Nafarroako Gobernuari gomendatzea ebaluazioa aztertu eta Zaharrei buruzko Foru Legea aldarrikatzeko edo Zaharrendako Plana egiteko, gizartearen zati handi baten laguntzaz, zaharren eskubideak sendotze eta zaharrak babestu eta laguntzeko eta zahartzaro aktiboa sustatzeko politika osoen esparru orokorra zehazte aldera. Foru Legearen edo Planaren, dena delakoaren edukia horizontala eta askotarikoa izan daiteke, eta zaharrek aisialdiaren, kulturaren, etxebizitzaren, oztopoen, osasunaren, gizarte zerbitzuen, pentsioen, heziketaren... alorrean dituzten behar espezifikoak kontuan hartu behar ditu.

3. Nafarroako Gobernuak bultzatzea Nafarroako Gerontologia Plana (berria) egitera, iragarri egin baitu, eta hura onartzera. Planak integrala izan behar du eta, helburu eta aurrekontu konkretuen bidez, zaharrei buruzko Espainiako eta nazioarteko estrategiak eta planak gauzatu behar ditu, betiere, gogoan izanik zaharrek ez dutela multzo homogeneoa osatzen eta ezin direla estereotipo baten bidez deskribatu. Hortaz, zerbitzuek eta ekimenek ere askotarikoak eta anitzak izan behar dute.

4. Agintari publiko eskudunak hertsatzea Espainiako Konstituzioko 50. artikulua onartzen duen eskubidea (zaharrek erregulartasunez pentsio publiko egoki eta nahikoa kobratzekoa) erabili egin ahal izan dadin ziurtatzera. Dena dela, horrek ez du erran nahi, egoki baderitza, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako aurrekontu orokorren kontura,

ezin dituenik osatu zahar talde jakin batzuen (alar-gunen, zahartzarorako eta ezgaitasunetarako nahitaezko laguntzaren onuradunen eta abarren) diru-sarrera eskasak.

5. Nafarroako Gobernuak, Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko Foru Legearekin eta aplikatu beharreko gainerako araudiarekin bat, Gizarte Zerbitzuen Zorroak onartzea eta zorrook zaharrei zer zerbitzu bermatzen dizkieten zehaztea, zaharrek etxean eta beren giroan jarraitzeko politikak sendotzeko: etxeko laguntza, eguneko zentroak, gizarte zerbitzuak, familia eta zaintzaile nagusia laguntzea... Zaharrek zahar etxera joateak borondatezkoa izan behar du, edo etxeko laguntza nahikoa ez denerako konponbidea.

6. Zaharren esparrua gainditu arren, Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legearen garapenak ziurtatzea, egokien jotzen den bidearen bitartez, autonomia erkidegoetan Mendekotasun egoeran dauden pertsonen eta haien senideen autonomia pertsonala sustatu eta haien laguntzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea aplikatzearen ondorioz lortzen duten babes maila bera lortzen eta, ahal dela, hobetzen dugula.

7. Nafarroako Adinekoen Kontseiluaren parte hartzea handitzea, politika sektorialeak (gutxienez, osasunaren, gizarte ongizatearen, hezkuntzaren, hirigintzaren, etxebizitzaren, garraioaren eta komunikazioaren arlokoek) adinaren arabera ikuspegi kontuan hartzeko.

8. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren esparruan, Gizarte Gaietako Departamentuaren mendean adituen batzorde bat sortzea komeni ote den aztertzea, jakintza arlo askotako profesionalek osatutakoa, administrazioaren eguneroko jardunetik kanpo, hura baldintzatzen duten faktoreak alde batera utzita, neurriak eta ekimenak aztertu, eztabaidatu eta iradokitze, zaharren bizi kalitatea alor guztietan eta gizartearen egoerara egokituta hobetze aldera: osasunaren, gizarte laguntzaren, garraio publikoaren, pentsioak osatzearen, zuzenbide zibilaren, ikerkuntzaren, komunikazioaren... alorrean.

9. Nafarroako administrazio publikoaren esparruan organo eta egitura administratiboak sortzea, behar adinako maila dutenak, zaharrak babestu eta laguntzeko politika osoak koordinatu eta sustatzeko eta zahartzaro aktiboa bultzatzeko.

10. Osasun Departamentuak laguntza geriatrikoko osasun zerbitzuak sendotu eta behar adina hedatzea, antzematen diren behar guztiei erantzuteko, eta mendekotasunari alor guztietan aurrea hartzeko programa sustatzen jarraitzea; eta giza baliabide eta baliabide ekonomiko eta material

gehiago bideratzea komeni ote den aztertzea, zaharren berezko gaixotasunei eta haien ondorioei aurrea hartzeko, haiek sendatzeko eta zaharrak errehabilitatu eta laguntzeko. Zaharrek gehien eskatzen duten gauzetako bat geriatrek laguntza espezializatua ematea da, pediatrek hurrei ematen dieten antzera, eta zahar asko dauden zentroetan (zahar etxeetan eta abarretan) geriatrak izatea.

11. Osasun eta gizarte zerbitzuak eta etxeak (batez ere, oinarrizko edo lehen mailakoak) antolatzeari edo, bestela, behar bezala koordinatzea, gaixotasun kronikoak dituzten zaharrei gizarte eta osasun arloko laguntza emateko eta gaixotasun kronikoak dituzten zaharrek osasun eta gizarte zerbitzuen aldebereko jardun bateratua aprobetxatzeko, beren autonomia handitze, beren mugak eta sufrimendua arintze, zaharrak gizarteratze eta zaharrek gizarteraren bizitzan parte har dezaten bultzatze aldera. Hain zuzen ere, zaharrei horretarako ematen zaien zaintza hartu behar da gizarte eta osasun arloko laguntzatzat.

Ilido berean, Osasun Departamentuak eta Gizarte Gaietako Departamentuak lan talde bat sor dezaten bultzatzea, zaharrak eta laguntza mota honen balizko bertze onuradun batzuk laguntzearren, Nafarroan ezarri beharreko "osasun eta gizarte arloko laguntza" edo "laguntza osoaren" eredia aztertu eta proposatzeko, aukera guztiak eta, batez ere, zenbait autonomia erkidego probatzen ari diren bi ereduak analizatu: a) osasun sistema eta gizarte zerbitzuak antolatzeko egiturak koordinatzea, zaharrei laguntza osoa emateko beharrari erantzun osoa emateko, eta, horretarako, koordinazio egiturak sortzea berariaz, hala nola, "eskualdeko gizarte eta osasun batzordeak", "gizarte eta osasun laguntzaren koordinatzailea" eta gizarte zerbitzuen eta osasunaren alorreko oinarrizko taldeak harremanetan egoteko mekanismo formalizatuak, edo alor honetako zentroak eta profesionalak zuzenean koordinatzea, gizarte eta osasun laguntza kudeatzeko mekanismoen edo bestelako egituren bidez; eta b) osasun sistemaren eta gizarte zerbitzuen alorreko egituren (baliabide materialen eta giza baliabideen) organoak eta funtzioak bateratzea eta osasun eta gizarte laguntzara bideratzea, zuzendaritza bakkarraren esparruan.

12. Nafarroan zaharren gaixotasunak ikertzeko erreferentziazko zentroa sortzea komeni ote den aztertzea. Aukera bat Nafarroako Gobernuak eta Estatuko administrazioak fundazio bat eratzea da, eta Nafarroako Unibertsitateko Klinikak, Nafarroako Unibertsitateak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak, espezialitate hau lantzen duten bertze uni-

bertsitate batzuek, Nafarroako Aurrezki Kutxak eta bertze finantza erakunde batzuek... eraketan parte hartzea. Ondoren, edo aldi berean, osasun arloko profesionalak (medikuak, erizainak, erizain laguntzaileak...) zaharrak zaintzen espezializatzea azter daiteke.

13. Zaharrak zaintzeko eta aholkatzeko mekanismoak sendotzea, nola bizi nahi duten eta beren ondarea nola erabili nahi duten askatasunez erabakitzeko eskubidea babesteko. Nafarroako arartekoa bitarteko baliagarria izan daiteke zaharrek Nafarroako administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak babesteko, baina Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak Zaharrak Laguntzeko Bulegoa sortu beharko luke, zaharrak bizitza pribatuko abusuei eta tratu txarrei buruz aholkatzeko eta haien aurka babesteko, eta karpaina orokorrak edo espezifikokoak egin beharko lituzke, haien eskubideak urratu edo alde batera utzi egiten dituzten egoeren aurka babesteko.

14. Gutxienez, 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, Zaharren Kontseilu Sektorialak sor daitezkeen bultzatzea. Iruñeko Udalak eman du jada urrats handi hori, eta halabeharrezko erreferente bihurtu da bertze udalerritako batzuentzat, eta gizarteak gai honi buruz duen kontzientziaren adierazgarri.

15. Zaharrek ordezkaritza organo publikoetan (Nafarroako Parlamentuan, udalbatzetan eta abarretan) parte har dezaten bultzatzea eta askotariko alderdi politikoak, taldeak, elkarteak, klubak eta erakundeak zaharrek haietako erabaki, ordezkaritza eta partaidetza organoetan parte har dezaten bultzatzera deitzea.

16. Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legearen aplikazio osoa sustatzea, zaharren arazoak kontuan hartuz eta haiek teknikoki konponduz. Bereziki, autobus batzuetako plataformek ez dutela funtzionatzen sumatzen da, eta, alde horretatik, Etxebizitza eta Lurralde Antolamendu Departamentuak Foru Legea eta haren arauzko garapena berrikusi beharko lituzke eta neurri eraginkorrak hartu beharko lituzke, zaharren mugikortasuna sustatu eta haiek gizarteratzeko, oztopo fisikoak eta zentzumenezkoak kenduz.

17. Nafarroako zaharren egoera sozialari buruzko azterlan eta ikerlan enpirikoak egitea, bertze neurri batzuk finkatzeko, hala nola, zaharrendako gizarte zerbitzuen zorroen esparruko laguntzak zehazteko. Ez dakigu orain arte halakorik egin duen, baina Nafarroako Estatistika Institutuak zaharrei buruzko inkesta egin beharko luke zenbait urtean behin, zaharren kopuruaren, ezaugarri-

en, banaketa geografikoaren eta isilpeko kezken berri jakiteko. Bertze gomendio bat aldizka zaharrek gizarteari buruz dituzten kezken inguruko bilguneak eta batzarrak antolatzea da.

18. Nahi duten zaharrei prestakuntza ematen jarraitzea eta haien prestakuntza hobetzea, batez ere, esperientziaren gelen bidez, komunikazio teknologia berriei buruz, teknologia arloan bakartuta gera ez daitezen eta komunikazio globalaren gizarte berrian parte hartzea izan dezaten; eta funtzionarioak eta sektore pribatuko langileak erretiroaldirako prestatzeko ikastaroak egitea edo babestea, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak egiten duen bezala.

19. Egokien jotzen diren baliabideen bitartez –erakundeek prentsan egiten duten publizitatea hartzen du jendeak gehien, baina irratia, etab. ere erabili beharko lirakeke–, zaharrek hobeto jakitea zer laguntza publiko ematen dizkien Nafarroako Gobernuak, nora jo behar duten, nola eska ditzaketen laguntzak, non eska dezaketen informazioa...

20. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak zaharrek elkarteak eratu ditzaten bultzatzea, gizartean hobeto parte hartzeko, beren eskubideak babesteko eta abarretarako.

21. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak irabazi asmorik gabeko erakundeei ematen dizkien diru-laguntzei eustea eta, behar eta ahal den heinean, haiek handitzea, zaharrak lagundu, babestu eta zaintzeko, bereziki, ahulenak, bakarrik daudenak, baliabide ekonomiko gutxien dituztenak eta arazo edo gaixotasun larriak dituztenak; eta, hartara, gizarte ekimenen sare zabal eta eraginkorra eratu dadin bultzatzea, arazorik larrienei eta baliabide ekonomiko gutxien dituzten eta bakarrik dauden pertsonen arazoei erantzuten laguntzeko, batez ere, kontuan izanik, seguru asko, biztanleriaren zahartzea handitu eginen dela.

22. Bereziki, zaharrak bakarrik egotearen kontrako programak aztertu eta, beharrezkoa bada, sustatzea, bai hirigunean eta bai landa eremuan, neurri egokien bitartez eta boluntario elkarteetan laguntzaz.

Adibidez, esperientzia onak izan dira –esate baterako, Lugoko Udalean, “Bideak urratuz” programaren bidez–, batez ere, emakumeak eta luza-ro langabe egon direnak prestakuntzan eta lanean laguntzeko programei esker; xedea berezko beharrak dituzten taldeei (bertzeak bertze, zaharrak, bakarrik daudenak edo ezgaitasunen bat dutenak) gizarte zerbitzuak emateko prestatzea zen. Europar Batasunak (Europako Gizarte Funtsak) diruz babesten ditu programok, eta, haiei esker, lan egi-

teko aukera berriak sortzen dira; gainera, ez da behar prestakuntza handirik, parte hartzeko interesa dutenak beren kabuz lan egiteari edo enpresa bat sortzeari buruz aholkatzen dituzte, tokiko enpresei mikrokredituak ematen dizkiete... Haiei esker, azken batean, etxeko laguntza hobetu egin da eta bakarrik dauden pertsonen beharrei erantzun zaie.

23. Nafarroako Gobernuak azterketa eredu bat prestatzea, gizartearen eskariak eta, beraz, gizarteak etorkizunean beharko dituen azpiegiturak eta zerbitzuak analizatzeko; izan ere, 65 urtetik gorako nafarren kopurua % 16koa da egun, baina % 31koa izanen da urte batzuen buruan. Hortaz, komeni da aztertzea nolakoa izanen den etorkizuneko gizartea eta zer zerbitzu izan beharko diren biztanleria zaharragoaren beharrei erantzuteko.

24. Gizarte Gaietako Departamentuak Nafarroa osoko zahar etxeetako tokien epe ertaineko eta epe luzeko plangintza egitea, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak zaharregan dituen ondorioak kontuan hartuz. Plangintzaren helburuak ekimen publikoa (foru eta udal ekimena) eta ekimen pribatua (irabazi asmorik gabekoa eta irabazi asmoa duena) koordinatzea izan behar du, bien artean sarea eratu eta toki nahikoak eskaintzeko, bertzeak bertze, eskatzailearen eta, baldin badagokio, senideen diru-sarrerak eta ondarea eta zaharren egoera fisikoa eta psikikoa (laguntza behar dutenena) kontuan hartuz. Ez dugu ezarri beharreko ereduari buruzko aurreiritzirik, baina ekimen publikoaren eta pribatuaren arteko sistema bat etorriko litzateke zuzenbide estatu sozial eta demokratiko-arekin.

25. Kalitateko zahar etxe txikiez eta ertainez osatutako eredu baten alde egitea, zaharrak integratuago senti daitezen.

26. Zahar etxeetako tokiak banatzeari dagokionez, Nafarroako arartekoaren ebazpen batek gomendatu zuenez, zahar etxean sartzeko eskatzeko prozedura eta aplikatu beharreko baremo orokorra arautzea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharreko foru agindu edo foru dekretu baten bidez, eta interesdunei baremo bakoitzaren esparruan zenbat puntu lortzen dituzten jakinaraztea eta, administrazioaren erabakiarekin ados ez badaude, zer helegite aurkez ditzaketen eta noren aurrean aurkeztu behar dituzten adieraztea.

27. Gizarte Gaietako Departamentuak zaharrendako telefono zerbitzu bat sortzea (edo diruz laguntzea edo elkartutako gizarte ekimen baten bidez sortzea): zerbitzu unibertsal eta doakoa, zaharrek (batez ere, bakarrik bizi direnek) deitu eta beren arazoak azaltzeko, iradokizunak egiteko,

iritzia emateko, barrua arindu eta beren sentimenduez eta arazoez hitz egiteko...

28. Erakundeek zaharren eskubideei eta kezka eta arazo nagusiei buruzko kanpaina egitea bertze sektoreen artean, paternalismoan erori gabe. Urtero Zaharren Eguna ospatzea edo datorren urteren bat Zaharren Urte izendatzea ekimen egokiak izan daitezke gure zaharren balioen kontzientzia handiagotzeko eta gizarteak merezi duten esker ona eman diezaien.

29. Zuzenbide publikoaren alorrean, adinean oinarritutako diskriminazio oro lege mailako arau baten bidez arautzea –ez da nahikoa, bertzerik gabe, araudiari lotzea– eta, betiere, Espainiako Konstituzioaren balioetan oinarritutako arrazoi objektiboen ondorio izatea. Adina dela medio diskriminatzea ahal bezainbat saihestu behar da, eta adinak ezin du izan eraginik osasun eta gizarte arloko baliabideak mugatzeko. Ez da etikoa maila teknologiko handiko osasun zerbitzuak adina dela eta mugatzea.

30. Goi instantziek (Justizia ministroak berak) gizartea “heriotza duinari” edo “eutasiari” buruz eztabaidatzen hasi beharra planteatu dute, horrela edo bestela erranda, baina kontu handiz ibili behar dugu halako eztabaidekin. Ezinbestekoa da eztabaidaren gaia (funtsean, osasun arlokoa eta beren egoera ulertzeko erabateko gaitasuna duten gaixo, batez ere, erabat ezgaituei buruzkoa) eta bertze edozein gai ezin argiago bereiztea, eta inola ere ezin dugu nahasi zaharrei eta, are gutxiago, ezgaituei edo laguntza behar dutenei buruzko edozein eztabaidarekin, zifrarekin, egoerarekin edo dena delakoarekin. Halako eztabaidek ezin dute izan eta ez lukete izan beharko inolako eraginik haiengan, eta zaharrek ezin dute nabaritu eta ez lukete nabaritu beharko halako eztabaiden inolako eraginik, ez zuzenean eta ez zeharka, inoiz. Zaharrek inoiz ez dira zama familia normalean, zahar etxe arduratsu eta profesionaletan, gizarte demokratiko aurreratuetan eta zuzenbide estatu sozialean, ezta haren gastu publikoa kontuan hartuz ere. Betiere, zaharrek herritarrak eta gizarteko kide dira, bertze bezala, eta beren eskubideak eta betebeharrak dituzte, hala nola, bizitzeko eta duintasunerako eskubidea; alde horretatik, bizitzeko eskubidetzat etorkizunerako proiektua eta, lortu ezinda ere, autonomia nahi izatea hartu behar da.

31. Nafarroako zahar etxeetan dauden zaharren artean ez dugu antzeman oinarritzko eskubideen (Espainiako Konstituzioko 14.-29. artikuluen) urratze nabarmenik, baina gaur egun halakorik ez izateak ez du erran nahi etorkizunean gertatuko ez denik. Zahar etxeetan inoiz eta, are gutxiago, egituraz oinarritzko eskubideak urratzeari aurrea hartzeko, Gizarte Gaietako Departamentuak honako hauek egin beharko lituzke:

a) Zahar etxeak urtero ikuskatzeko plan egoki eta espezifikoa prestatu, ikusteko zer egoeratan dagoen arrisku gehien oinarritzko eskubideak urratzeko; zenbat ikuskatze egin behar dituen zehaztu, leku eta egoera arriskutsu guztiak edo, gutxienez, larrienak aztertzeko eta gainerakoekin lagin adierazgarria osatzeko; eta plana gauzatzeko baliabideak eta egutegia finkatu. Bereziki, beharrezkoa da planak zahar etxean beren borondatearen kontra sartzen dituzten zaharrek dauden lekuetan jartzea arreta. Planak ziurtatu behar du zaharrek uneoro dutela beren eskubideen berri, ahal bezainbat erabil ditzaketela, bai bere kabuz edo bai ordezkatzeko dituen norbaiten bidez, eta, formalak ez ezik, eragingarriak diren errekamazioak egin ditzaketela kalte egiten dieten erabaki guztien aurka.

b) Ikuskatze lana behar bezala egiteko baliabideez hornitu.

c) Ikuskatze lana egiteko arduradunei prestakuntza egokia eman.

d) Ikuskatze lana behar bezala egin, haren emaitzak aktetan bildu eta aktak ikuskatze planen gauzatzea kontrolatzen duten administrazioako organoen esku jarri.

e) Dagokionari egiten duenaren larritasunaren araberrako zigor egoki eta proportzionatuak ezarri, zaharrei edo dena delakoari beren eskubideak zuzenean edo zeharka ukatzeagatik, egitez edo ez-egitez. Egitea edo ez-egitea oso larria ez bada, zigorra ohartarazpen edo jakinarazpen modukoa izan daiteke, zigortzeko baino gehiago, kontzientzia harrarazteko.

Nafarroako arartekoak, antolamendu juridikoak egokitzen dizkion eskumenak erabiliz, administrazioak gomendio horixe eta txosteneko gainerako gomendioak zenbateraino betetzen dituen aztertze txostenak egiten ditu, eta ad hoc jarraipena egiten du. Hain zuzen ere, administrazioaren jarduna ikuskatuko du, zaharren eskubideak noiznahi eta nonahi errespetatzen direla ziurtatzeko.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »	